

Euskal Biblioteka Labayru

Oparia - Donación

BIZITZAKO URRATSAK

© AUGUSTIN ZUBIKARAI
GEU Argitaldaria

I.S.B.N. 84-85328-13-2

Depósito Legal: BI - 2346 - 1981

Imprime: GAUBECA Irarkola
GERNIKA

BIZITZAKO URRATSAK

GURE GIROETAKO
ELEBERRIA

Egilea:
AUGUSTIN ZUBIKARAI

Mendiko ibillaldietan

Bein,
gure denporetako egun garratzetan,
mendi bidetan hebillen,
ustutako baserri baten ingurutan,
Zegaitik ustu zan, itandu bearrik ez.
Ateraño piñuák sartuta dagoz.
Asun eta larrak atea sarratuta dauke.
Makillakadak emon bear tartea egiteko.
Etxearen ondorenak istori luzea emongo leuke.
Ba dakie iñoiz ormak berba egiten, eta tella zarrak
tartetatik argia egiten.
An nagola, eurei begira nagola, au diñoste, lenagokoak
laga-ta, oraingo ezaupidean:
Zarrenak ziran zintzoenak.
Semerik nausiena etxeratuko eben.
Proba eta joko, jai eta feri, geitu ordeztu, ondu ordeztu
laster ipini eban arek etxea eri.
Emaztea, kaletik eroandako neska on, zintzo eta
azkarra, baserrirako baiño kalerako egiñagoa zan. Baiña
borondatez eta jakitez, senarraren utsak eskutatatu eta eteten
alegintzen zan.
Berrogetak urtegaz alargun geratu zan.
Sei seme euki zituen erreskadan.
Bat Ameriketara joan zan artzain. Baserriko lotuera
neketsuegi arentzat.
Bere barririk geiago ez eben izan.
Ondorenguk itxas-jantziak artu zitun, bizibide
eratsuko baten garrez.
Jantzi eta gutzi, gau baten, ekaitz izugarri batek ontziko

guztiak onduratu zitun tatarrez.

Irugarrena abade sartu eben.

Lau eta bost, neskak ziran.

Ez eben mendian bizi nai. Kaleko industrietan sartu eta euren kontura geratu ziran.

Alabak izanarren ez eben amaren ardura andirik euki.

Seigarrena geratu zan etxerako.

Kozkondu ordurako, baserriak lagateko kokoa nausituta egoan gaztediaren buruetan.

Laster zan bera be besteen eritzi eta jokabideko.

Ama zuritu eben.

Kalean jaio eta oitutako amak, min artu eban bere semeak jaio ziran etxea lagatea.

Baserria ustutzean, bere senarrari maitasunaren samurtasunik gurienak eskiñi eutsazan oea bere aurrean desegin eta erretea nai izan eban.

Baserriak maite daben etxeko ondasunik onena, oea, beste iñok zikindu edo erabili baifto lenago erretea nai izan eban, gizaldietako lotsa gordeten ebalakoan.

Kalerako gauza ez ziran arasa zar eta lizunduak, bertan laga zituen, denporak ustelduko zitulakoan.

Aintzat ez zituen artu bertan, urteetan iñok ikutu eta jaramon barik gordeten ziran irakurgaiak.

Orrelako paper eta agiri zarrak etxe barrian eta egunetako giroan tokirik ez eukela ta baserri zarretik laster aldenduko ziralakoan, an laga zituen.

Aldizkari, egunkarien zati, bestelako orri banaka eta ikasketako paperak ziran geienak.

Askok izena be ba euken: Abel Dongaitz.

Baserriak, bere atadi gaiñean, oraindak irauten eban egur zabalean, eskuz taillatutako eguzkiaren arpegi azpian, jatorriaren deitura bardiña eukan:

Dongaitz-eneko.

Ortik konturatu nitzan etxe aretan ikasleren bat egon zala.

Eta esan be egin dot irugarrena abade sartu zala.

Abadetza edo frailetza, garai baten, etxe askoren arnasa izan ziran, famili ugarien urteera bat.

Bai eta Eleizarentzat be eskintza bete eta atsegiña.

Semearen «biotza»

Katalin zarra bere kaleko etxean bizi da.

Larogetak urte. Abel'en izeko ta bere ama besoetako.

Kalera urteteko baiño zarrago.

«Dongaitz-eneko» ikusten izan nitzala gogoratu dautsat. Ango egoera, ango tresna zatituak, ango paperak, ango ondakiñak.

Ta berak: An naigabez laga ziran paperen artean, ez dakit baliokorik ezer ba egoan. Ez dot uste. Baiña ba daukat nik, ementxe, ango «semearen» «biotza» erakusten ebena. Begiko zan beretzat Abel.

Kuadernotxu txiki bat da.

Bildur naz zeenak jango ez ete daben.

Nunbaiten busti ta likindu zan.

Ta ikusteko, aldendu barik irakurteko, geiago apurtu barik erabilteko aginduz...

Berak urrea bezin maitetsu gordeta eukan kuadernotxoak erakutsi dausta.

Eskuz idatzitako egunkaria, patrikeran erraz erabilteko lako kuadernotxo txiki bat.

Asiera garbia dauka.

Erdi aldera lizunak berdetuta.

Bustitasunak orriak alkarri lotu eta zabaldu eziñak, edo

zabaldueran erraz apurtzen diranak; eten ezik, urratu barik azkatu eziñak azken aldekoak.

Egunkariak ez dauka egun bakoitzaren zeastasunik, banaken baten izan ezik.

Egunik egun egiña dala igarten da; zerbait geratu-ala, bear ba da egun batzutan bi-iru alditan idatzitako gauzakin.

Beste zeregiñik ez eta burua erdi kezkatu eta larriz, erdi galdutako egunetako oroitzak dira.

Kontzientziko oarrak askotan.

Igarten da giroak estututako gizon baten egiñak dirala.

Edo ta santu batenak.

Agertu ala dakarkidaz.

Irakurten nago.

Gure giroak ez ditu danak oartu edo zeaztuko bere esan naitan. Onartu be ez.

Ez ei dago eta ez éi da egon mundu onetan, giroaren iraultzaileen artean, oituren apurtzaile edo barritzaileen artean, aurrez poeta edo mistiku izan ez danik.

Egunkari onen egillea nor ete zan eta zer ete zan igarteko, al bestean irakurri daiguzan bere kontzientziko oarrak eta bere biozkadak.

EGUNKARIA

Munaegi'n

*Izerdi likiñetan eldu naiz.
Bide luze, bide latz, bide txakuna bertara.
Mendi andien sakonetan,
kanpo alderako ikuspegirik gitxien dagon tokian,
amar etxe, piñadietan erdi eskutatuta.
Piñadi mamintsuak, beteak, sanatuak. Urtez urte beteak
eta sasi lanezjosiak.
Enekatxo baten egalean dagoz etxe guztiak.
Etxe txiki, itxusi, illunak. Karearen zuria aspaldi galduak,
iñoiz euki ba eben be.
Txabolak dirudie. Danak bardintsu, antzeko.
Bear ba da iñoiz mendi oneitan langintzaren baterako
egiñiko etxeak, aterpeak.
Egaltxo baten, bastenerago, eleiza txiki eta zaana.
Ani zatanezko orma egalak. Gorputza bustiñez, lunez
betea. Anakalatuta, etenda igarten da.
Inguruak, arri eta lur, asun eta sasi.
Atea beiajota, oker, itxi eziñean.
Lizun usaiña.
Ijito txabola dirudi.*

*Errian, edo dalakoan, sartu eta eleizatxoari ikustaldi arin
bat egin dausat.
Kanpaia jotea datorkit burura, etorri naizela jakin erazi
nairik.
Ten da ten txilin bakanari.
Otsik ez.*

*Mingaiñik ez ete dauka nire eleiza barriko kanpai txikiak?
Nori eskatuko ete dautsat bizi laguntza edo zein ete da
orretarako izentatua?*

*Iñor ez dator.
Erri txiki baterako gauza bakana.
Etxeen inguruetara nua.
Lenengoan dei.Jaramonik ez.
Bigarreanean bardin.
Ez dot iñor ikusi, baña badakie emen nagona.
Etxe aurretatik igarokeran, leioetako zulo atzetan edo ate
tartetan, geldi ez dagozan itzalak igarri dodaz.
Aizerik ez dago.
Bat bateko burubidea: Lenengo gaua, eleizan.
Egunak argi egingo dau.*

*Ez da gaitz eleizako liburuak aztertzea.
Orma zulo baten dagpz. Giltzik barik, agirian.
Ogei ta amabi urte azkenengoa jaio zala. Edo bataiatu
zala.
Lau urte azkenengoa il zanetik.
Arrigarria: Ez eben eleiz otoitz edo laguntzaz lurreratu.
Ez nau bildurtzen nire eleiztarrak izan leikezanak.
Mindu, bai, egiten nau lau katuren artzai etorteak.*

*Karta bat billatu dot liburu artean.
Eskartzeko da.*

Baiña beragarri.

«Úrrengo datorren abadeari».

«Urte bete igaro dot, gosez eta bakarrik. Nire aurrekoa era berean bizi zan.

Aren aurrekoak, itxuraz, ba ekian barrabillak nun eukazan.

Beretarregi ei zan eta gaizto.

Robespierre deituten ei eutsen.

Gogorjarkiten ei ekian, baiña arrika atara eben.

Diñuena ezin idatzi nei, baiña laster jakingo dozu.

Geroztik abadea eleizan bizi da.

A ezkeroztik, ez dago etxerik abaderik artu nai dabenik.

Amabost egun gaixorik egon naz eta errukirik ez dot billatu. Azkenean, lagun arteko barik, pizti antzera ikusi nahe. Ez dakit zegaitik.

Osaba baten bitartez lortu dot emendik beste toki haterako izentatzea.

Baiña, ona zatozen ahadea... Jainkoaren grazia be galdu egingo dozu hakartade zitak eta mintsu onetan.

Erruki zaitut».

Beste orri zatitxo hat billatu dot:

«Datorren abadeari:

Ogetazortzi lagun bizi dira Munoege'n, zatozenerako gitxituten ez ba dira.

Geituteko itxurarik ez dago, ardi galduren bat agertu ezik. Emengoak antzutu ziran.

Amalau atso, amahi agure ta sorgin antzeko bi...

Problemari ez dozu eukiko, bakartadearena ezik. Kezkak bai. Ta aspertasuna ta utsune larria.

Argi, itzaltasunak menperatu ta gaixotu edo burua artu ez

daizun».

Irugarren eguna.

Ezinjarri ta egin hakarrik hizitera. Ezin.

Kanpaiajo dot amesez goizean.

Lotuta eukan zeĩnu-miña, ez dakit zegaitik, eta nasaitu dautsat.

Eguer dian he kanpai joten ibili naz. Erantzunik ez. Dei harriro...

Barrutik, zitalki, abots me ta zoliz erantzuna artu dot: Urrundu, zoaz ortik txarri ori.

Egia ete sorgiñena?

Mintsu ta etsita urrundu naz. Ez dot berha biderik emon nai asieratik,

Nire txabolatxoan kaletik ekarritako lata ondakiñak jan dodaz.

Ogi barik.

Ura, egarriaren asegarri.

Illuntzúa.

Barriro kanpai joten nabil, emen nagola adierazoteko. Bizi naizela jakiten emon nairik.

Ta dei egiten.

Tartetan eleiz atera urteten dot.

Iñor agiri ez.

Zelan leikean?

Ez ete dago hertan hizitari etsitako zaarrik, edo bere negarrak fedean arindu nai ditun biotzik, makurtutako errenik, edo usteldutako okerrik be?

Larrikeriz, kirioz beteta, kezkatu eta urduri obispadurako karta bat egin dot.

«Menpetasunik andienagaz.

Ba dakizue nun dagon Munaegi?

Iru egunetan ezagutzen alegindu naz.

Iñor ez dot ikusi.

Orain lau urte egon zan abadearen esanetan, amalau atso, amabi agure ta sorgin biren erria da. Parkatu azken esaera au, ez da nirea, arena baiño.

Nik itzalak bakarrik ikusi dodaz. Origaitik ezin nei ainbesterik esan.

Abade naz. Arimak nai dodaz.

Gizon naz. Jan egin bear dot.

Arren, mesedez, arimak etajanaria emon egidazuez.

Nire buruarentzat bakarrik abade egitea, nire serbitsurako bakarrik abade izatea, pekatu deritxat. Arrokerizko pekatu.

Piñu orriak jateko edo bedarreka biziteko, ez ndz ardi ez asto.

Abade naz eta gizon. Bietarajokatu nai dot.

Diñodazan laguntxoak bizi ba dira be, millakaJa millaka lagun argi billa dabiltzan garaian, pekatu deritxat bizitzea erdi etenda dauken atso-aguratxoei egun guztian deika ibiltea.

Oneik, izaryei begira, ba dakie gorako bidea nun dagon. Ez dabe beste egarririk.

Areik, kei zikin da auts artean, arimarik ez daben makiñen jostallu dira. Egarririk dira.

Ikastun ba nitz, kanonigotzarako ikaskizunak egiteko be, etengarri eritxiko neutsake toki oneri.

Ez naz ikasmin. Garra darabilt barruan.

Menpetasun eskintza egiña daukat. Baiña abadetasunaren

truke.

Nire egoera aztertu egizue, mesedez».

Laugarren eguna.

Zerjan neike?

Basora urten dot.

Piñadiak.

Perrotxiku batzuk billatu dodaz eta batu.

Gaurko ta biarko.

Orio barik, ogi barik, erre tajan dodaz.

Kartema billatu dot bidean.

Auzoko erritik etorten ei da.

Zazkarra, kirten samarra, baiña leiala dirudi. Brasta-brasta esaten daki sentiduten dabena, eta orrek poztu egin nau.

Alegin nadin gure arteko jarduna gogoratzen.

-Naiago neban etorri ez ba ziña.

-Karteruak abadien aurka?

-Ez orrelakorik. Baiña neuk nai ez etortetik.

-Zegaitik?

-Hlean karta bi, bira eltzen ba dira, naiko izaten dira onako. Ortik igarri zenbat turista etorten diran.

Abadea bertan dagoenetan, karta geiago elduten dira, batez be etorri barri diranetan, ta nik tarte artu bear bertaratzeko, egunero izan ez da be.

-Zenbat bizi dira bertan?

-Kartak artzen dituenak bi.

-Baiña, zenbat biziP

-Ez dakit. Nik ezagutzen dodazanak bi. Ta ez ezagunak ogeiren bat. Asko geiagorik ez.

Emengorik ez dozu ikusiko ortik zear gaur oi diran turismoko tarjetetan. Ziur egon.

-Lengo abadea ezagutzen zendun?

-Bai. Eguzkigitxi artu eban arek emen.

-Ta aurreragokoa?

-Zein?

-A, ba, bal

Robespierre deituten eutsen emen. Nik... ba, ez nua esaten ze deituten eutsen. Gonadunen aurrerako itz... gordiña da. Baiña ba, bal, merezia eukan.

Emen, nik ez dakit, baiña diñuena da...

Mereziko al dau gauza zarrrik astintzerik?

-Esan, esan, komeni yat zerbait jakitea, arpegia zelan emon ikasteko be.

-Ba zerbaitjazo bear izan eban abaderen bategaz. Ez dozu eleiza baltzituta igarri? Eleiza be erre nai izan eutsen.

-Erri txikia da au, baiña... Piperrikjan dozu iñoiz?

-Ezin ukatu.

-Piperrik txikienak ez dira mintsuenak eta beroenak izaten?

Egun bat geiago.

Nire gorputza ez dagojaso.

Izerdi atsa. Ke usaiña igarten dausat soiñari.

Ijitoak daukadaz irudietan. Ijitoak. Alaxe nago, nai ta arein antzera ibili ez.

Ez dakit euren eskolarik. Baiña onela jarraitzekotan zerbait ikasi bearko dot. Ta illuntzetan etxe ondoetan jorratu ta ortu edo solo txikien barrenak aztertu.

Lenakoren bat arrika erabili ta atara ba eben...

Zortzigarren eguna.
Kartarik ez.
Lagunik ez.
Zekpoztu ez.
Zerjanik ez...
Gero ta itzalago nago. Eta gero ta aulago.
Ames egin dotgaur. Ames...
Bildurra sartu yat. Dardaraka sentidu naz gabea. Koldarti.
Goizean ez dot mezarik eskiñi.
Gorputzari lagata nago.
Negar egin dot tarteka. Mara-mara negar. Nik pentsatuko
ez neban aiña negar...
Ta negarrak baretasuna ekarri dausta.

Iru andratxo makur ikusi dodaz basorantz.
Atzetik nua.
Igarri dauste, igarri, ta ibilkera arindu dabe. Nik geiago.
Uxatu egin dodazala dirudi.
Zatarkeriak eta zantarkeriak esaten asi yataz irri-destañez,
urrunetik, atxurrak jasoaz.
Lotsatu egin naz.
Ez nabe ezagutzen eta ez dakit zegaitik, baiña nire izateari
gorrotoa dautse.
Bide ertzean jezarri, exeri naz.
Bide egalek duan ur garbiaren zurru ixil eta leunak be
nire bakartadea minduten dau.
Nire kirioen, nerbioen asarreari eutsi ezin da nago.
Gorputza, zortzi egunetan, lotu, mindu eta astundu egin
yat.
Zetan bialdu nabe onera, zetan?
Ez ete da egongo nire kidekorik zerbaitetan alkar artzeko?

Etixeratzean, nire etxetxoan, nire txabolan, eta eleizan zartzeko be, koldarti naz, bildur.

Nire gorputza bota egin dot lurrera. Erantzi harik, huruz bera zotinka geratu naz.

Gaztetasunaren adorea galdu egin dot, ez dakit zelan eta zegaitik.

Bederatzigarren eguna.

Zegaitik ez naz ausartuten emendik alde egitenP

Iñora ez urteteko aginduari, zegaitik ain itsu men egin?

Meza ezkintzera nua.

Aldarera eldutean, ez dakit miñez ala amorruz, edo etsipenez, olezko kurutzeari begiratu dautsat, lizun likiñez berdetu eta zeenak jandako kurutze zaarrari. Zoli zoli!

Gordiñegi zara, Jauna! Ez zara nigaz ermkituko?

Berotu nai izan dot nire izakera. Adoretu.

Ezin... ezin,..!

Erruki eske nago.

Salduta ikusten naz.

Ez naz nirejaube.

Otz... otz... gero ta etsiago.

Atearen grakadea.

Karterua.

Xabier'en karta.

Ba datoz lagunak bakartadea apurtuten.

OUEne!

Ezin dot irakurri. Gaitz.

Malkoak,

lausoa,

ínkesak,

*estutasuna,
ittotasuna...*

Negarrez asi naz zaratatsu.

Deadarka negarrez!

Ama UJ

AmatxoJ

Ez dakit noiz urrundu dan karterua.

*Neuk ez dakidala kanpai joten asi naz. Illeta joten, nire
erritxoan joten dan antzera.*

Ama! Lagun eidazu! Lagundu!

Zetan ekin, baiña, kanpaijoten?

Zoro! Zoro!

Ama!

Zu izan zara

niretzat dana.

Bide,

bizi...

Gaur maitasunez

eta zuzentza naiez

itsututen naben

Kristo baiño geiago.

Kristo azkatzaille zan,

bizientzat,

ez sortu bakoentzat.

Ta zu zara nire

bizi emole,

Kristo orren azkatasun

ezagutu dagidan

bizi ekarle.

*Zu barik
ez neban ezagutuko Kristorik.
Nik ez neban eukiko
Kristo orren garrik,
zure sortze barik.*

*Gizadia maite dot,
baiña ez nindun beste iñok
bizitzara ekarri
ta argitara igorri.
Zuri esker datorkit maitasun.
Zure arnasari esker
datorkidaz geroko alegiñak.
Ama!
Nitzan,
naizen
ta neiken
izate ta bular!
Zakidaz,
baita ere,
nire gogo barrien
arnas!*

*Negarra datorkit barriro be.
Betazpiak malkoz beteta daukezan agura dirudit.
Abadeak be mundutarrei lotuten gara, lotu, lotu... nai ta
emen, bidean, bakarrik ibilli, nai ta zoriona eriotz atetik
igarokeran asten dala sinistu, itxaron eta erakutsi.
Egun guztia, itzal.
Ama!
Ta nire erria!*

*Otoi, negarraren etengarri. Otoi eta negar, Negar, otoi orde.
Karta bat asi dot.
Etxe guztietan zabaltzeko asmotan.
«Ez nazue ezagutzen, eta ez zaituet ezagutzen.
Zuentzat etorri naz. Zuen miñak biguntzeko, zuen
kezkak arintzeko, zueri betiko bidea erakusteko...»
Tol
Apurtu dot.
Zetarako karta au egin, irakurten dakienik be ez ba dakitP
Zoratuta lez nago.*

*Biozkada bategazjaiki naz.
Nire maletatxoan daukadan txistua artu ta goiz soñuak
jotera nua etxe aurretara.
Ez dakit nundik datorkidan ames ori.
Norbaitek indartu nau.
AmakP
Ikusiko nabe ta ezagutu.
Borondatea igarriko dauste, gogoa, garra. Ta adizkidetasun
miña. Eta nok daki.J
Ba nabil... ba nabil...
Munoegi'ko bakartadeak ez dabe sekula olako soiñu bigun
eta errukitsurik entzun.
Txoriak egazka itsututa, olloak igezka, asto bat be
arrantzaka asi da.
Zerbaiten bizitasuna ba dago Munoegi'n!
Baiña...
Bazterreko txabola itxusiaren aurrean, ate txirriotsa. Ara
aguratxo bat.
Irribarrea. Barruko poza datorkit.
-Egunon gizon, egunon anai.*

-Zoaz aurretik, alu oril
-Asarre zabiltz.
-Ta ibiliko.
-Zuretzat okerrago.
-Ainbat zuretzat.
-Abadea nazana jakingo dozu.
-Lengoak be, agertu ez ba lira, obe.
-Bialdu egin nabe zuekana.
-Guk ez dogu iñor eskatu.
-Baiña oiturea izango da...
-Komeni diran oiturak zaintzen dira. Besteak ez.
-Itz egin nai neuke. Danok ezagutu.
-Zoaz... zoaz... auntzari esnea erasten laga egidazu.

Nire txistuak soiñu ona dauka.
Korta zarren bat apaiñago egongo da gure aldeko erritxoen
baten, azkenengo etxe oker eta trakets au baiño.
Nor bizi ete da?
Jo tajo nabil.
Norbaiten itzala igarten da aurreko belardian ara ta ona.
Itzal salataria.
Barrukoak ez daki itzal onen bitartez bere egon eziña
igarten nabillenik.
Zelataka igarten dot. Itzala ba dabil. Joan eta etorri, sartu ta
urten.
Bat baiño geiago barruan.
Dantzan?
Au ete da sorgiñen etxea?
Nire txapela zabaldu dot. Ta etxe bakoitzaren aurrean
porru bi eta kipulak, edo azaren bat, edo ortuari pixketak artu
dodaz, emon eta zabaldu dodan pozaren ordaiñez.

*Ez dakit barrukoak zer esango daben. Or konpon.
Goiz erdian, eleizatxora biurtzean, ez nago ain itzal.
Nortasuna barriztu eta dot niregan?*

*Ama! Aragiaren astuntasunik harik, zeruetan izango
zaitudan amaren gogoa! Nire aingeru izan zakidaz!*

*Eguerdia.
Karterua barrero. Obispaduko karta.
-Suerte on bat opa dautzut.
-Zegaitik?
-Zuretzat elitzake txarto aldaketaren bat eta niretzako
obeto.*

*Nik baiño gogo biziago dahela dirudi irakurteko.
«Obispaduak ba daki noiz eta nora komeniko dan zu
aldatzea. Bitartean ez zaitez eskahidetan aurreratu ta keixatu, ta
ez egizu orretan denporarik galdu...»*

*-Barri txarrak?
-Nok esan dautzu?
-Arpegian igarri.
-Ps.J
-Ezetz?
-Ofizina guztietan bardiñak dira.
Biotzak kajoietan gordeta daukez.
Orain bosteun urte, erriak abadez beteta egozanean,
Munoegi'n abaderen bat egongo zan. Eta arrezkero jarrai heti
«utsune» au beteten.*

*Uleroko eskel bat hialduko dautzue ta euren zeregiña hete
dahelakoan egongo dira.*

*Eta erri harriak sortuko dira. Berrogetamar, eun milla,
geiagoko erri harriak alkartu eta osotuko dira, eta ara hialtzen
dituezan ahade hat edo biren laguntza eskariei, ezin dala*

erantzun esango dautse, ez dagola abaderik.

Eta Munoegi'n lau katuk abaderik ez dabe eskatuko, ikusi be ez dabe nai-ta, itxuraz. Baiña Munoegi'ra abadea bialduko dabe, eta bat il edo besteak iges egiten dabenetan, Munoegi utsik dagola-ta, laster bialduko dabe norbait.

-Eun peseta ba daukazuz?

-Hlean bein ikusten dodaz.

-Nik ez dakit noiz ikusi nebazan.

-Zetarako nai dozuz? Noiz biurtzeko?

-Asmo bat neban. Baiña laga. Merkatari ikusi zaitut. «Noiz biurtzeko»? Ori, ori egi gordiña. Bizibideko matematikarrik premiñazkoena. Dirua.

-Lengoak, beintzat, danak joan ziran- urrengo baten ordaintzekotan. Asiko ba nitz, eleizako atea be nirea litzake.

-Konponduta biurtzen ba daustazu, eroan zeinke nai dozunean.

Uhuntzea

Norbait dator.

Eten da nire bakartadea!

Emakume bat.

Ez dakit beso zabalik beregana urreratu ala ez ikusi eginda, zerbait egiten nagolakoan, mututu.

Zalantzan nago.

Estultxoak, eztarri urratze biguna.

Ez entzun nik.

Urreraxeago ta barrero estul zírriña.

Begiratzen dautsat.

-ñluntzeon.

-Ala bai. Abade barria?

-Serbitzeko.

-Parkatu... Eskuturago, beste nunbaiten itz egin nai neuke.

-Guazen eleizara.

-Ez.

-Ez dakit ba. Eskintzeko etxerik ez daukat.

-Ba dakit. Baiña ez neuke iñok ikusterik nai.

-Etorri atzeko orma ostera...

Andreari begiratu ta bat batean Ebangelioko bakartadeko zirikaldiak gogora datorkidaz. Ez da eder, ez gordin. Madalenaren sasoirik ez dauka. Begietan lizun jokera baiño negar miñen urrataz geiago dau. Baiña... emakumerik garbienak be loikerizko zaiña daroela gogoratzen dakie japondarrak.

-Parkatu, zalantzan igarten zaitut.

Ez dakit zer esan.

-Igarriko dozu laster, zergaitik.

-Leike.

-Etorri nai ez? Orretara iges egin bearko dot. Eta beste baten etorri. Ez?

-Mingarri litzakit.

-Kontu asko daukadaz esateko. Kontu atsegiñak.

-Nik, erri onetan, argia ikusi nai dot bakarrik. Argia.

Ia ogei egun daroadaz. Ez dakit nor bizi dan, ez nun bizi dan. Ikusten nabena ba dakit, baiña ez nundik.

Urreratu zarean lenengoa zeu zara. Ta...

-Bildur? Konturatzen naz.

-Ori da egia. Bildur.

-Atzera nua. Ikusiko ba ninduteke, argirik ez neuke ezagutuko geiago. Orrelaxe da errigiroa abadentzat.

-Niretzat?

-Edozeiñentzat.

-Zegaitik?

-Abadeak be eukiten ditue gizonkeriak-eta. Ba nua.
-Ba zoazjoan baketan.
-Barrero txistujoten ikustea atsegin litzakit.
-Nik bestelako dantzak eragin nai neukez.
-Gure biotzak ba dauke zerbaiten egarri.

*Eguna argitu orduko Jaiotzetako liburuei bégira nabil
«Amalau atso, amabi agure ta sorgin bi...»
Ezin aztu lengo abadearen eskutitza.
Gizonak lagata, begiratu ta aztertu izenak eta urteak.
Sei beintzat irurogei urtetik gorakoak dira. Atsoen
kofradian sartu daidazan nire kontuetarako.*

*Orra bi, abizen bakarreko. Ta ez ama batenak, birenak
baiño.*

*Ba! Sartu zaite emen larra bazterrean edo sasi artean!
Uneik ete dira sorgin biak?*

*Nigana etorri dana, berrogetabost urte inguruan ibiliko da,
itxuraz, nai ta etnen, itxurak artzea errez izan ez.*

«Sorgintzakuak», biak, 46 urte ditue.

*Orra beste bat aldi bereko: Madalen. Bero ibil ziran odolak
urte orretan. Sasi arteak loratsu.*

Ames barriak dagidaz.

*Txistuari ekin bearko eta dausat sorgiñak eta Madalenak
jolastu daitezanaP*

Ba dira oraindik akelarreak gure gizaldian.

Eta abadeak, antzututako lau ardiren artzai.

*Ta milloika, milloika langille zuzentasunaren egarri, 'argi
barrien mesedez, bizia eskatzen...*

Bidea!

*Ez dakit iges egin ala barrero etxe aurretan txistujoten asi.
Egunkari zaar bat kendu dauosat karteruari.
Nire lagunak, langille artean ebiltzan abadeak, ez dabe
goikoen abegi onik.*

Eleizak ez dau bide zarrrik laga nai.

Mandazaiñen bide latzetatik beti, autopisten gizaldian be.

Errezago ta ariñago itsutuko da gizartea!

*Arrantzaleak ezin ikusi aal izaten dabez liortarrak, nai ta
euren erosleak izan eta euren arraiñen sal-erosketetan irabazia
etnon.*

Baserritarrak kaletarren bildur izan dira beti, betozkoz beti.

*Giroa bear da elkartean. Sasoiko giroa. Kideatasuna.
Ezbardintasuna baztertu al dala. Maillak kendu, errezago
ibilteko.*

*Goizaldetan lanera joateko tranbia zarrak edo autobus
tripandiak be lortu ezin dituen langilleak, Renault edo Citroen
edo Mercedes txukunetan, eratasunez beterik joanaz, edo
sedazko jantziz ibilita ekarriko doguz guk alkar izketaral*

Iru egun geiago igaro dodaz.

Nagikerian. Alperkerian.

Asmakizunetan.

Neure buruaren estualdietan.

Danaren etsipenean.

Iñoren itsukeriaren gorrotoz...

Etafedean otzitu egin naz.

Arduragetasunean zabartu...

Eta gizontasunean makaldu ta soiñaren bizitasunean lotu.

Eta gogo txarretan lizundu ta etsipenean orditu.

Garra daroat barruan, baiña gero ta gizonkeri geiagoz.

*Atnes dot txoria, egazka dabillelako.
Eta maite piñuak, egoteko kemena dabelako.
Eta begiko, alboan daukadan arria, buruausterik ez
dabelako.
Eta errekatxoa, beti bidean aurrera doalako.
Eta aurrean daukadan bustiña, eguzkiaren galdak artzen
oritzen dalako.
Eta iñori lotuten dan naimena, gero ta geiago madarikatuten
dot.
Iñori menpetuten dan bizitza gero ta geiago ezetsi.
Eta iñori makurtzen dan biotza gero ta geiago errukitu.
Ezin eutsitako egon eziña igarten dot nire barruan... baiña
eteteko, urteteko, zirti-zarta ebagiteko gero ta aulago igarten naz,
gerbo ta makalago, epelago, jausiago...
Gaixotu egin naz nire libertade lotuan.
Zek lotuten ete nau?*

*Bildur dauksat gabari.
Barrero gau guztian amesetan.
Eta izerditan.
Eta buruauste etenkorretan.
Ez nabil ni, naizena.
Zorotan darabilt burua eta minkor bularra.
Nire barruko nire gogoeta da dabillana.
Ames antzera, noiz-beinka, jaiki nairik, nire itzalak gaindu
nairik esnatuten naz.
Bildurrakjo nau. Neure izate berberaren bildur naz.
Saltoka ibili dot biotza, erarik artu ezinda. Lo nai ta ezin.
Eta gero ta dardaratiago, ikaratiago, itzalago...
Ezin egon, ezin adoretu, ezin nasaitu, ezin sentzunean*

Amesetan lez irudi illunak, indargetuten daben gogorapenak, odola meetuten daben gertaerak bata bestien gain, {Iten daben itzalak dakustaz bildurraren bildurrez ni itto bearrean.

Zetan ziñake, Abel, millaka langille artean, lau atso, iru agure ta sorgin biren <basamortu baten nortasunik agertzen eta jaubetzen ez ba dakizu?

Nire txistuari begiratu dausat erdi amesetan. Kutun-kutun laztandu. Eta almindun - zerbait ba litzaken antzera, guazen, urten daigun plazara, diñotsat.

Baiña adorerik ez daukat. Ezin artu. Naimenak erantzuten ez.

Ez dakit zerk narabillen.

Goragoko zerbait nigan egon lei. Ez dakit.

Nire biztualdietan, nire eziñaren aurkako jasoaldia geiago igarten dot beste ezer baiño.

Eta gizona, naizen gizona, zabaltzen ez dan gizona, argitzen ez dan gizona, norbere jaube ez dan gizona, tximurtzen dan gizona... Egillearen aurka pekatu larrian bizi dan izaki lez etsiten dot.

Eleiz aurretik lenengo daukadan etxearen albora nua egun sentiagaz batera.

Bildurrez nago ta tagunarte premiñan.

Zoratuko ez ba naz, bildurrak narabil.

Atea ikusi ordukojoten asi naz.

-Egunon jauna. Ikusi ta ezagutzeko garrez nabil.

-Ni barriz, ez ikusi ta ez ezagutzeko arduraz.

-Ba dakizu nor naizen.

-Etorri ziñanetik dakit, eta igarri, nor izan zeinken.

-Bialdu egin nabe.

-Alproja ederra izango zaitugu.
 -Ez ainbesteko.
 -Ona datozenak bestetan nai ez dituen abadeak gertaten dira. Zegaitik guk ez dogu sentzundun bat merezi?
 -Buru galduentzako toki txarra da au.
 -Lengo abadea erdi zoroa zan. Filosofi barrietan ebillalako bialdu ei eben onera. Bestien kaskarrak ez galtzekotan gu naastuten bialdu?
 -Gizon guztiak ezin giñei eritzi bardiñeko izan.
 -Nik aiña urtera eldu zaitezanean jakingo dozu zerbait. Eta bitartean ikasi, ikasi. Munoegi'n ikasi lei zerbait.
 -Leike.
 -Leike ez. Ikasten da. Munoegi'n ez gara gizonak?
 -Gizon artera bialduko ninduen segurutik. Gizonen artzai eta ez abere ta piztien artzai.
 -Ardien artzai ala aarien artzai?
 -Zegaitik diñozu?
 -Gu topeka ibilteko urduri egoten dakigulako. Ez dautzue ezer esan edo adierazi? Ez dozu gaitz izango ikasten. Ni beintzat akerrá*naz. Esango dautzue...
 -Ez dakit ezer.
 -Ni erri guztiagaz asarretuta nago. Barru txikikoak dira emen. Aurrean ikusten dana baiño geiagorik ez dabe igaríen.
 -Bakoitzaren usteak libre dira iñoren kalterako ez diran artean eta borondate oneko diranetan.
 Betiko esaerak. Erroi baltzen antzeko zarie. Danok itxura bardiñeko, danok bizi-bide bateko, baiña egiñen baltzak dozuez. Iñor lotu, iñor estutu, iñor kezkatu, iñor izorratu... Ni erbestean bizi nitzanean...
 -Munoegi'n baiño obeto segurutik.
 -Ez! Emen nai dodana egiten dot eta an ez. Eta nik orretan libertadea maite dot.
 -Libertadea gizonaren doaia da bere neurrietan.

-Neurria! Neurria dagonetan, ostopoa dago. Ori ez da libertadea.

-Sentzunezko ostopoa, ez besterik.

-Nik ez dakit. Sentzuna norberak erabilten dau bakoitzaren gogoaren neurriz.

-Sentzunak ba dau gidari bat: gizonaren osotasuna.

-Ba, balEz daukat zetan ainbeste jakin. Baiña nik ikusten dodana... danok, danok, norbere aldera ten egiten dozuela.

-Leike.

-Leike ez. Da.

-Danok, ez?

Gizon oneik libertadea nai dabe.

Eta etxe barmetan lotuten dira, alkar ikusi eziñik.

Maitasunik ez daukan Hbertadeak, zer dauka Hbertadearekin?

Ezagun bat egin dot.

Ez lagun eta ez adiskide, ziurretik. Ezagun.

Erri guztiagaz burrukan dabillana ain zuzen be.

Amesak artu eragiteko asiera ona!

Gaur karterurik ez dot ikusi.

Mendian nebillen artean egin dau osterea.

Zer ikusiko mendira urten dot.

Piñadietan eta basoetan sartzen naz. Zerbaiten naian, nor ikusiko bakartadean, edo zer billatuko.

Ba dakit eremitarren bizi biderik ezin maite dodala. Euren jokabide ta ardurak ezin daikedaz ezetsi. Baiña ez yataz begiko. Munduaren bildur dirala-ta nago. Ta mundua ez da gaizkatuko, salbatuko, ez da onduko, bere bildurrez iges egiten bada.

Gizaldi batzuetan aintzagarri izango ziran orrelako egiñenak. Beste askoren kupigarri. Amak be negar egiten daben semien aurrean. Baiña semeak euren erara dantzan egiten jarraitzen dabe.

Nire giroa, beiñik beiñ, ez da orrelako.

Neuk ez dakidala, nik ez dakit zein bultzadaz, erantzi egin naz. Nire barruko jantzi zikiñak beerajaurti, billotsik jarri, ta asunekin blastiatzen asi naz, eutsi eziñez eten arte, berotasunez lertu, bearrean, zoratuteko zorian gelditu arte.

Eta arnas estuka sentzunera etorri naizenean, nire konortera biztu naizenean, gora begira, ixil-ixilik, begiak malkoz lausotuta, eguzkiari eta argiari begiratu eziñik, otoitzean lotu naz.

Len, Jauna, umetasuna eskintzen neutzun nire otoitz. Geroago soiñaren garbitasuna eskiñi. Geroago eguneroko lana otoitz biurtu. Eta nire amesak, nire garrak, nire asmo eta izerdiak otoitz eta esker kantu biurtzera eldu nitzan.

Nire azkatasuna eskiñi dautzut sarri, eskiñi eragin eustelako. Tartetan arrokeri eta nortasun kutsuren bat egon eikean.

Bakartade onetan ez dago tranparik.

Sekula pentsatu ez neban otoitza eskintzen dautzut gaur.

Begiratu nire soiña, asunen beroz ebagita. Begiratu. Zikinkeriaren lorrak ikusten dodaz gorputzean. Egarri dana uren potsura makurtzen dan antzera, tatarrez doazkit zorriak azal puzpilotara odol egarri.

Egun osoa otoitza izango da gaur.

Bildurrak ala garrak, makaltasunak ala kezak sartu eta nabe otoitz onetanP

(Egunerokoaren orri batzuk ebagita eta galduta dagoz. Kartaren bat egon ete zan bitartean, orri zati bateko egalean esaten danak erakusten dabenez?)

Utsune ondoren ba dagoz beste iru-lau orri. Osotu daiguzan)

Negarrez nagola nire izena entzuten dot.

-Abeljauna! Abeljauna!

Begiratu ta... lengo emakumea.

-Zelan dakizu nire izena?

-Karteruak esanda.

-Arek ba daki, bai.

-Basoan ikusi dogu.

-Bai, eta...

Ez ukatu. Ez lotsatu ta ikaratu. Sanjeronimon eskolako?

-Zegaitik esaten dozu? Zetatik ezagutzen dozu?

-Asko gara basoetan negar egin bear izaten dogunak. Eskutuak billatu bear izaten doguzanak. Zetarako ukatu, ezagutuko ba gaitu? Madalenak be egoten dira munduan. Madalenak jaiotez, Madalenak bizitzan eta Madalenak penitentzietan.

-Ba dago emen Madalen bat.

-BaP Esan dautzue? Nok esan?

-Iñok ez.

-Karteruak?

Edo nire alboko sorgin orrek?

-Ez txarto pentsatu. Liburuetan ikusi dot. Liburuetan konturatu naz Madalen izeneko bat ba dagola emen. Nik ez dakit geiagorik. Ez dakit nor dan be.

-A!

Sagar batzuk eskintzen nator. Ez gogoratu paradisiko sagarrik...

-Andre, mesedez!

Sagastietan ikusi dogu sagar batzen. Sagar lapurretan esan dabe batzuk.

-Bizi bearra.

-Bizi bearrak eragiten dautsez bezte gauza asko gizonei, emakumiei eta abadiiei.

-Ez dot nai iñok ikusterik Eskutuan itz egin aalgeinke?

-Eskutuko gauzak misterioa agertzen dabe.

IXillean nai dozuna ta nai dozun aiña. Eskutuan ez. Ezin neike, sinistu. Ezin neike.

-Nik be oraïndik ezin neike iñok ikusteko tokian berba egin. Etnen, edozein ba letor baso bidetik, agirian nago ta salatuko ninduteke. Barru txiki eta estukoak gara emen. Ez dakigu alkarrerri parkatzen. Argi esanda, emakume lizuntzat etsiten nabe.

Setne bat euki neban...

-Eukitea pekatu da batzutan, galtzea beti. Pekaturik ez dabenak atzamarrajaso daiala.

-Ori, ori esaten dakit nik be. Ulertu daustazu, ez? Mendian baiño aker geiago ibiltzen dira kalean. Nai ta kaletik epel datozenak mendian asunekin laster berotu.

-Mesedez, andrea, laga daigun bide ori.

-Asi baiño ez naz egin. Baiña eskutuan nai neuke. Ez da zugaitik, nigaitik baiño...

-Zegaitik ez dozu ementxe esan bear dozuna bein beingoz esaten?

-Erri guztiak juramentu egiña dau abadeari biderik ez

zabalduteko, datorrena datorrenari itsu, mutu ta gor agertzeko. Ba dakizu?

-Zegaitik?

-Ogeigarren gizaldian bizigara.

-Ogei nai berrogei bardin dira norberegana dagon argiari indarririk emon ezik.

-Esan dot zerbait.

-Lanean asiako gogotan nago. Amesetan. Irakiten. Osasuna be galtzen. Etxerik etxe etorri bear naz. Zabaldur bearko daustasuez atear, zarataka ikusi nai ez ba nazue...

-Zorotzat artuko zendukez. Ta Munoege'n ba daukagu olako entzutea be.

-Zegaitik naukazue bakarrik, baztertuta, lepraduna ba nitzaken antzeraP. Zegaitik?

-Ez estutu. Urak iturrian garbitu bear izaten dira... ta ekin, ekin emengo iturria billatzen.

Ba nua. Eskutatara nua.

-Emakume...

-Norbaik dator.

-Or dozu eleiza. Sartu zaitez.

-Naiago dot iges. Amorantea naizela pentsateko ez leuke besterik bear emengoakJ

Urak iturrian garbitu bear izaten dira.

Eta ezin iturrik billatu.

Ulabete daruat Munoege'n.

Argal.

Gaixo.

Gose.

Bakar.

Jausi.

Zoro.J

Langillien arpegi asarrien amesetan. Biotz eskalea euken langille hetozkodunen kezketan.

Emen, haretan eta bakartadean dagozan arpegi baketsuak, biotz ustelak eskutaten dituez.

Ta ha duaz egunak.

Eta ni esku utsik.

Eta izerditan ez nahillelako, izerdi larritan, usteldu eta itto eragiten dahan izerdi otzetan.

Bat bateko erabagia.

Datorrena datorrela, Munoege lagatea erabagi dot.

Kanpaiakjo dodaz erria poztu daiten.

EGUNKARITIK BIZITZAKO EGUNETARA

Égunkariak egunak ezagutzera eroaten gaitu.

Egunkari orren egillearen bizitza ezagutzera beartu.

Ibilleretatik ezagutzen ei da gizona.

Gure gizona, gure irudimenak sortu daben gizona, ikasi daigun.

Gure irudimenari mesede egin dautsa eta lagundu, gure ibillera neketsuetan ikusi eta ikasiak. Alaz eta norbaitek gure eleberri onetan eta bertako gizonetan, berak bere bizitzan ezagutu al izan ditun antzerako batzuen irudia ikusten ba dau; batetik edo bestetik, baten edo besterenak diralakotzat zeaztu nai ba dau, lenengotik esana dogu: Irudituak dira, bizi izan dogun egoera batek biribildu eragiñak.

Origaitik BIZITZAKO ERRO TA URRATSAK dira.

EGUNKARITIK BIZITZAKO EGUNETARA

Égunkariak egunak ezagutzera eroaten gaitu.

Egunkari orren egillearen bizitza ezagutzera beartu.

Ibilleretatik ezagutzen ei da gizona.

Gure gizona, gure irudimenak sortu daben gizona, ikasi daigun.

Gure irudimenari mesede egin dautsa eta lagundu, gure ibillera neketsuetan ikusi eta ikasiak. Alaz eta norbaitek gure eleberri onetan eta bertako gizonetan, berak bere bizitzan ezagutu al izan ditun antzerako batzuen irudia ikusten ba dau; batetik edo bestetik, baten edo besterenak diralakotzat zeaztu nai ba dau, lenengotik esana dogu: Irudituak dira, bizi izan dogun egoera batek biribildu eragiñak.

Origaitik BIZITZAKO ERRO TA URRATSAK dira.

Goizeko oparia

Oraindik abade egin barri zan.

Esateko, parrokian be sartu barik. Asieretan.

Neurriz lo egiten be ikasi barik, lanerako eta eleizarako zaletasun eta arduraz.

Goizalde baten, eguna argitu aurretik, eleizako atea zabaltzerakoan, goizetan edegiten zan ate txikiaren inguruan geratzen zan zokondo baten, otzaratxo bat egoan.

Ikutu ta... bizien bat.

Negar muxinga ta inkesaka, otzakil, eskutxuak aizetara erabiliaz, jairo barri bat billatu eban bertan, zapitxo baten batuta.

A estutasuna!

Zer egin?

Nora deitu?

Eleizan sartu edo ez?

Izerdi likiñetan busti ta usaindu zan bat-batean.

Otzikarazko zirtadak gorputza dardaratzen eutsen tarterik tarte.

Goitik beeraño etenda lez geratu zan, bertan bera, tuku-tuku bizi baten menpe.

Aurtxoari begiratu, zapi txikia arakatu... ta ara karta bat, koipezloitutako paper zati baten.

Eskintza samurra

«Ama naizenez ezin umerik il.

Nigaz gordetekotan, il bidean sartuko da.

Gurasoak ez dakie ezer. Ez naz ausartuten nire pekatu au euren aurrean agertzen. Fedeari dauksen itzalez eta jende aurreko lotsaz, umea ta ni, biok, ilko gendukez ainbesteko pekatuz iñok euren familikoen bat ezagutu baiño len.

Langille naz. Niretzat aiña egiten naiko. Eskintza batzun menpe egonaz. Baiña dana guzurra da.

Ez naz parroki onetako. Baiña, abade jauna, umetxo onen aita zuen inguruan dabil, uso zuri antzera.

Bear bada zugaz autortuko da ta alakoren baten zuri agertuko dautzu bere egitada lotsagarria... ta bera or geldituko da iñoren lotsa ta bildur barik, eskutuan.

Zegaitik nik bardin egin ez?

Zegaitik ni lotsaz geratu guraso ta munduaren aurrez aurre?

Umetxoa bizi daiten gogoz, zure ardurapean lagaten dot.

Or dozu Goikoaren seme bat...

Al dala, Matalas izena ipintea eskatuten dautzut. Ba dakit zuzentza eskale zalako il ebela abade ori. Eta ni, izen orregaz, bear ba da, nire seme onen alde kezkatuten joango nitzake, izen ori erabili nai daben gitxi billatzen diralako».

Baster guztietara begiratu eban Abel'ek nor ikusiko. Ez ete nunbaitetik zelateka bere ama?

Eleizpetik urten eta inguruetara be begiratu eban. Bere artean iñoan: Umea osasunez jaso izan ete dan jakin barik, bere biotzak lagako ete eutsan bere burua eskutatzen dana dalakoari?

Dana egoan ixilik.

Goizaldeko oskirria. Terraltxoa.

Ingurutako etxe eta bizi-lekuetako ate ta leioak itxita.

Argirik be ez etxeetan, kalera zabaltzen ziran leioetan.

Kaleetan iñor ez. Bakartadea. Zarata batik ez.

Zein ete edo zeñena ete?

Berak igarri barik, begiratu utsaren errukiz, laztan beroz igortzi eban umetxoa.

Bere esku artean artu ta berotu nairik erabili eban.

Berotu nairik, laztandu nairik, arnasaren berotasunez arpegia ta eskutxuak maite lurrunez epeldu eutsazan.

Atea zabaldu, aurrera jo, oraindik argi barik egoan aldarera urreratu ta makurtu zan.

Ez zan bestetako otoitzekaz gogoratu. Otoitzik onena bizitzako eskintza zala ta Jaungoikoari egun sentian erru gabe beraganatu zan umetxoa eskintzen ausartu zan.

Matalas txiki au eskintzen dautzut.

Bere ama Matalas zarragaz gogoratu da.

Ba dakizu areri, burua ebagi eutsela zuzentza zale izanik azpiratuen alde ibili zalako.

Baña... zetan ori gogoratu, zuk nik baiño obeto dakizula?

Gizonen artean artu egizu ta gizon zuzenen artean biziten lagundu.

Ama billa

Egun aretan eleizara joan ziran andra banakak, arrituta geratu ziran sakristian abadeak erakusten eutsen opari errukitsuagaz.

-Ai umetxo zoragarri, kutun kutuna!, iñuan batek, adurretan.

-Zegaitik lenengotatik ume etxe batera bialdu edo eroan ez?

-Aingerutxoa dirudi bedeinkatu onek! Baiña errukarri, gaixo, koitadua! Mundu onera dator berau,

datorren antzera!

Egal baten, autu-mautuetan, itxurak eta aztarrenak artu nai eta zearkatzen, atsotxu baldar, oker eta igar bi. Kale ertz batetik besterako bizilagunak gogoratzen zituen. Inguruetan emakumerik puztu edo loditu ba zan... aitatu barik ez zan gelditzen euren artean.

Umea, bitartean, negar miñetan, nok ikutuko, edo nok laztanduko. Edo ta nok garbituko.

Abel, abade gaztea, egoera arek zer ekarri leikion pentsaten, ixilik, kezka, mintsu.

Itzik egin bearrik be ez eukan, lenengo sartu zan emakumeari erakutsi ondoren.

Geroago etozanak, Aitaren egin baiño len, ur bedeinkatu ontzira eldu ordurako jakiten eben, eskutuz beteta, zer gertatu zan eta zer egoan, eta ez Abel'en aotik

Iñok ez eban ezelako aurrerapiderik agertu nai. Jaubetasun aitamenik ez, agirian beintzat.

Erruki ta maitasuna bai, biguntasun eta zimeltasuna bai, baña danak atzera. Alkarri kiñuka, abadeak zer erabagi artuko alkarri ixil-mixillean kontulari.

Abel, bere aldetik, gero ta kezkatia, emakumeakandik zerbaitek urten egian, otoitzean.

-Orrelako beste gertaerarik ez dozue ezagutu izan erri onetan?

-Errian bai, baiña eleiz atean ez.

-Eta errian zelan konpontzen eben?

-Bi irutan Udala bera egiten zan kargu eta bere kontura asi, kozkondu arte.

-Eta monjei eroan ezkeru?

-Monjei eroan ezkeru, laster zabalduko litzake abadeak eta monjak ba dakiela aitaren barri ta...

-Bai, erantzun eban Abel'ek, monja euren zeregiña dauke, ta al dala, ez daigun euren lepora loturarik geitu.

Bat bateko erabagia

Urrutizkiña, telefonoa artu eban Abel'ek.

Larri-larri egoan eta alkartzea lortu ebanean, itzak be ezin ondo osoturik asi zan:

-Ama! Egunon eta...

Itzal egongo zara bakarrik, ez?

-Abel kutuna! Abel... Zer darabiltzu ain goiz? Gaixo? Barri okerren bat? Ez eskutatu, esan, esan lenengotik.

-Ez ama. Ez uste olakorik.

-Aztuta zagoz luzaro. Noiz etorri ziñan azkenengoz? Noiz ikusi giñan? Lotsarik bai?

-Ez nabil aaztuta, ez ama. Esatea be..! Baiña ezin joan, ezin, beti dago zerbait eta ezin.

-Zelan bizi zara laztana?

-Gaur, ain zuzen be, iñoiz baiño kezkatiago, larriago. Ba zenki, ama, ba zenki..!

-Zer dala ta? Esaidazu, esan ainbat ariñen.

-Sekula ez zaitut oraintxe bezin maitekiro gogoratu. Origaitik dei egiten dautzut.

-Eskutukorik ez' egizu gorde, txotxo. Ez nagizu larritu.

-Erregalu eder bat artuko zenduke?

-Artu ez? bai pozik be!

-Ta uzkeri bat izanda be bai?

-Ba dakit gauza andirik eskiñiko ez daustazunik, loterian jokatzen ikasi ez ba dozu beintzat.

-Eta andia ba litz?

-Ene! Zorren bat egin dozu?. Esan lenbailen.

-Zorra ez dakit, baiña lorra bai... lorra.
-Esan, esan... Kezkatan laga nazu oraintxe.
-Gero... bakarrik itzalpean bizi ez zaitez, aingerutxo bat bialduko dautzut. Aingerutxo guri guri bat.

-Zer Abel, zer?

-Umetxo jaiobarri bat eskiñi dauste, bai?

-Iñuzente eguna ez da gero gaur. Burutik ondo zabiltz? Ala adarra joteko jaiki zara? Edo ta... ene ba da ta!, pekatoren bat egin al dozu?

-Benetan ama. Oraintxe nik kristiñau egin dodan aingerutxo zuri bat, oraindik zilla aldian daben aingerutxo polit bat, nik Matalas izena ipinita bialduko dautzut, ama...

-Neskaren batek zirikatatu zaitu zu be?

-Ez ama,,

Entzuten? Entzuten, ama?

Ama! Amatxo... entzuten?

Ta aria eten zan kezka, telefonoaren zatiak ikusi ta zartatuaz, barriro amari deika:

-Entzuten zagoz? Eten egin dala dirudi. Entzuten?

Dei ta dei baiña alperrik. Ez zan geiago amaren abotsik entzun ez igarri.

Zer jazo ete zan ariaren beste aldean?

Urduri lotu zan, izerdi otzetan.

Baiña biotzak iñotzan amak ez ebala aterik itxiko. Amak irurogei urtetan be, semetxo barri bat ba letorkion amatasun eta maitasunez artuko ebala.

Eta bere pekatuko ete zan ori... bera konponduko zan ori argitzen, baiña amari ori pentsatu eragin bearrak, berari be negar ataraten eutson.

Umetxoa batiatu eban, andraen ikusmiñez eta irribarrez. Zegaitik Matalas izentzat ipini be...

-Ene ba da ta! Oneik gaurko abadeok! Ez al dago santutegian izen politik?

-Andrak, ez nagizue zirikatu. Izenak ez dau egiten gizonik, gitxiago santurik.

-Eta alderdi txarrekoen bat ba da?

-Alderdi onetik be etorten dira pekatuak, au lez. Eta mesedez, bizi danari ez egiozue begizkorik egin.

Ori entzun eta ango atsoak, erremuskadetan, atzeraka joan ziran.

Legeagazko gora berak be berak konpondu nai izan zitun, iñoren eskuetan laga barik.

Ta biotz oneko emakume bat an berbatu eban bere amarentzat opari ori eroatera bialtzeko. Bere serora argal zimeltxoan zan zer egin ori bai ta ezean artu ebana, bildurrez, misterioz eta bideko larritasunez.

Biotz uztelak

Edozein tokitan orrelako eginkizun batek biotzetako eskerra lortuko eban.

Sorgiñuri'n ez. Umeari laztan edo musu bat emoteko ez zirean andratxoak, mar-marka batu ziran laster.

-Zelako munduan bizi gara?

-Gaurko neskak ibili be edozeiñegaz egiten dira-ta!

-Gu giñanean...

Ez zara gogoratuten? Liñe gaixoa! Batek' ba daki... danok igarri geuntzan amatuten asia zala... amatuten edo, itxurak bai beiñik beiñ... Baiña goizetik gabera, edo gabetik goizera, beretu ta liraindu zan... berak jakin zelan... ta eskandalurik ez eban emon beintzat.

-Inglaterra'ra ez zan joan ba?

-Nok daki ori? Dana dala eskandalurik ez ebala emon

beintzat. Baiña gaur?

-Ez dozu jakin? Serora berbera joan ei da abadearen amari umetxoa eruaten. Ain zuzen be bere amari... Ez dozu pentsaten eraen eskutuko zerbait egon leikenik?

-Nik, zortzigarren agindurik ez ba legoke, gauz onetan abade gazte onek parterik ez dabenik be eneuke ukatuko.

-Gaurko abade bizi oneik izan be... Edonun dabiz... edozelan... Dantzak be eurak eratuten ditue askotan... Nik euren mezarik entzuteko federik be ez dot eukiten.

-Nik ezin dot sermoirik iruntsi. Onenik ez beintzat. Irakiten ipinten nabe. Ta berari musturretan emotearren, benetan gero, kurutzetakuak egiten asten naz.

-Ez ziñan konturatu lengoan? Burdiñetxeko langillerik nastetsuenak itzaldi bat entzutera ekarri zitun. Baltzekaz eta gorri guztiekaz bat eginda dabilzan abadeok bururik edo sentzunik ba dauke?

-Zure koñatua diputadu ez da ba? Zegaitik ez dogu bere bitartez abade au kanpora bialtzea eskatuten, gu danok baltzitu edo gaiztakerizko dotriñetan naastu baiño len?

-Eta ume orren autua orain... mesederako baiño ez kanpora bialtzeko.

Zortzi egun barru Abel Paris'eko parroki txiki baten egoan, bere lengotik aldatuta. Ango gotzaiña abade eske ebillanaren aitzakiz, Abel'en gotzaiñak bere artaldeko batzuk eskiñi eutsazan. Eta Abel gertatu zan arako izentatzea artu eban lenengoa.

Marta eta Dominika'k amabost misteriozko errosarioa eskiñi eben, tartean-tartean irribarezka ta autuka, erejiak

erakusteko be aal zan abade zurbil a andik aldendu ebelako.

Betiko tokian

Itzal, iñoiz baiftó illunago, maian jezartean, gorputzari jausten laga eutsan.

Neska liraiñ bat laster bere inguruan.

-Betiko antzera?

-Abel'ek, itzik barik, begi ta buruakin, baietz.

Neskatillak orritxo bete eban:

Porru-pataak.

Arrautza bi tomatetan.

Txiki erdi arda.

Zapia zabaldu, plater bi ta ortza inguratu ta arda botilla mairatu ondoren, sukalderatu zan.

Jatetxe aretan gertaten zanean apalduten ekiana orixe zan.

Paris'eko ostatu txiki ta apal aretakoak ez ekien illun-abarretan sarri agertzen zan gizon argal, zorrotz, luze, betule baltzez bete eta bizartsu a, nor zan.

Beti ordu berean eta beti mai baten jezartzen ekian.

Iñoiz ez eban itandu zer egoan aparitarako. Lenengo egunetik menu orixe eskatzen asi zan eta berakin jarraitu.

Zurbil egoan egun aretan. Kezkati ta oldozkor.

Bere begiak ez eben pozik, ez alaitasunik. Bazter ta inguruak arakatzen ez eben bizitasunik.

Pentsamentuen indarrak laiñotuta euken euren argitasuna, menderatuta, itzalak jota.

Kolkoan erabillan karta bat atara ta irakurten asiaz batera, laster zitun begiak gorri, malkoz busti.

Aldizkari ta egunerokoetatik ba ekian autu gogorra ebillala, zer esan asko sortu ebela bere ta lagunen jokera ta lanak. Batzuk txalotu ta aupatuten eben aiña, besteak ezetsi eta zeaz gaiztetsiten ebela.

Egunkarietakuak autuak ziran, esan naiak eta izan naiak askotan. Bakoitzaren alderdi, gogo eta siniskerei begira, barri asko norbere jokerrara eratuta agertu bear izaten dituelako sarri.

Aurrean eukan idazki edo kartak, ordez, ez eukan kontsejurik, agindua baiño.

Asarrez, amorrüz, beröz eta miñez idazkia esku artean batu, estutu, tximurtu ta zatituten asi zan.

Neskatillak, agertu ta maitekiro:

-Onezkero otzituko zan ta berotzea nai?

Orduntxe konturatu zan Abel aparia maian eukala.

Arduragetasuna agertu ta neskatilleari eskerrak emonaz, apaltzen ekin eutsan.

Barrua irakiten eukan, odola gartsu, bere izatea erreta, jariarien oztasunak ardura emoteko.

Idazkia esker eskuan batuta, tximirtuta; begiak malkoz bustita, lausotuta; eztarria miñez, jatekorik iruntsi eziñez... laster zan barriro geldi, berekautan, pentsamentuen menpe.

Neskatillak, bizkortzearren, bere inguruan zerbait egiteko itxuran agertu ta igaroten zanean, barriro ekiten eutsan jateari ta bereala barriro lengo erara geldi.

Lengoak gogoratzen

Ordu bete igaro zan apari ondoren.

Oraindik maian, iñoiz ez lez.

Azkenengo sei urteko jazoefa ta lanak barri-barri lez gogoan erabillazan.

Gogora ekarri ala, negar mara-mara, bakartadearen aukeran; negar ixilla, arinduten ez daben negarra.

Ikastaroko asmuak,
abadegintzako eskintzak,
ase eziñiko lan garra.

Lenengo artzaintza parroki txiki baten,
gero, langille artean, algarak.

Matalas'en bat-bateko gorabera a..

Ostatukoak keixu ta gogaituteko eran egozan.

Noiz-nai sukaldeko atera urten eta burua erakusten eban neskatiillak.

Geldi egoan Abel, jagiteko itxura barik.

Urreratu yakon, ixiltasuna eten edo luzetasuna arintzeko asmo ta gogoz:

-Kaferik nai?

-Gaur bai.

-Utsik?

-Utsik eta suko.

-Kopakorik?

-Ez daukat artzeko oiturarik.

-Len ez zana gaur izan lei.

-Gaur ez beintzat.

-Zigarrorik?

-Ez dakit erreten.

-Berialaxe, jauna.

Neskatilla biurtu zan begi ta bekokiko izurrekin sukaldekoiei gogaitasuna igarri erasoten.

A eskutatu orduko, Abel, arpegi eta bekokia esku bien artean artu ta gero ta menderatuago lengo pentsamentuak sakontzen.

Bere aurrean ba eukan lez ikusten eban bere parroko lantegirik andieneko gaixotegi itzaleko gela, aurreko illuntzean.

Sei gizon erreta egozan, garraxi ikaragarri ta itzalez eriotzeari deika, etengabeko min eta errearen berroz gelditi eziñez.

Ezbearra zabaldu ta laster an zan bera lantegian. Zoro antzera ebiltzan gizon arein ondora urreratu ta laguntasuna eskintzeko asmoz. A zan benetako zoritxarra! Amorrutaz eta gorrototz biraoka ziardeen erretako langillien lagunak. Gora-goraka.

Abade itxura ikusi eutsenerako, atzera jaurti eben edo alegiñak igarri zitun.

Berezko ez eban indarrez jarki yakoen bera.

Langilleak zarataka, orruka: Itz egiteko gogorik ez dogu nai emen, osasuna baiño.

-Gorputzetan gaitz ilkorra danetan, arimaren osasuna billatu ta zaindu bear da.

-Lelokeriekin ez etorri.

-Maitasuna dakart eta ez beste ezer.

-Itzak ez dabe balio. Aberatsei eta andikiei men egiten zabize beti, une onetantxe be bai. Aberatsei men eta mun egiten.

-Niretzat danok zarie Jaunaren seme. Langilleak maiteago, estutasun eta zoritxar geiagotan bizi zarielako.

-Bear dan lez jokatu ba zenduke, elitzake onelako zoritxarrik.

-Zoritxar onen errua gurea ete da?

-Diruaren otsein zarie. Dirua ta dirua... Orretzek

makurtzen zaitue, gizonen ardura barik.

-Begira zelan diran gaur lantegiak. Dirua egiteko makiñak, gizonen osasun eta biziaren lepoz.

Esan eta dautzuet ezetzik gai oneri buruz? Laga egidazue erretakoak ikusten.

-Kendu zaite emendik, iñoren odolaz guzurretan errukitu eta kupiratzten etorri barik. Orrelaxe irabazten dakizue emákumeak eta euren antzekuak, guzurrezko maitekeriz.

Ilten egoan bat, uluka, intziriz beterik, begiak berari zabal zabal igarri eban, errukiz.

-Ez dozue ikusten niri deiezka dagon a?

Danen artetik, bultzadaka ta indarrez, bidea zabaldu eban.

Goitik beraño urratu eutsen jantziak, konturatu barik. Alata be pozik zan bera.

Gizon iguingarri arek, mamiffa zatika ta puzpuloka jausten eukan arek, biotz gordiña agertu eban. Biotz zindo zindua. Ta garbitu zan odolez eta arimaz.

Adorez beterik, patrikarart gordeten ekian kurutzat-xoa atara, oe gaiñean jzarri, izerdi likin eta ustelak iguindu barik, azkenetan egoan gazte aren burua bere besoetan artu, unerik une kurutzeari laztan eta musu emon eragiñaz, maitasunaren eztitasun eta gozotasunaz azkenengo arnasa artzen lagundu eutsan, gorroto, birao, zantarkeri eta bildurgarritzko ainbeste agerpen itsu arein artean.

Uste bagako bidetan

Gero ta ziztrifiago neskatillea. Géro ta urduriago. .

Gizonik kanpora jaurti nai ez, baiña begi errez,

lotarako premiñaz, egon eziñik.

Ez ete dauka nora joanik?

Poliziko bultzi bat igaro zan txistu otsean aurreko kaletik, belarriak eteteko durundiz.

Laster ziran bi jatetxe barruan, atea bultzaka gogorki zabaldu ondoren.

Neskatilla ta ugazaba kezkatu eta zurbil eurekiko.

-Gizonik ez da sartu emen?

-Orixe bakarrik illuntzetik ona.

-Au bakarrik?

Beste barik lau oinkadetan Abel'gana zuzenduz:

-Zure agiriak?

-Illuntzeon edo gabon, lenengoz.

-Agiriak, agiriak mesedez.

Eukazanak luzatu eutsazan, konturatu barik.

Ertzaiñak alk begira laster.

-Abel Dongaitz ala Jean Dupont zara?

Gorfitu zan, zurbildu. Abel, erantzun eban oso osorik, beste karneta eskutatik kendu guraz.

-Nor da Jean Dupont au?

-Iñor ez.

-Iñor ezetz?

-Abel izatea egoki ez danetan, ni.

-Gizon bikotxa beraz?

Irribarre maltzurrez eurei jarraitzeko kiñu egin eutsen.

Alperrik agerbide guztiak. Erri zaindariak ez eben ezer entzun, ikusi ta aztertu nai.

Ostatuko jaubeak arrenka laster, gizon a aspaldiko jatuna ebela, luzarotik ezagutzen ebela-ta. Nungo ta zer bizi-bide eukan jakin ezarren gizon zintzo, borondatetsu, leiala zala-ta.

Eurak erantzungo ebela, premiñazko ba zan, bere

ordez,.

Alperrik.

Abel'ek jatetxekoei eskerrak emonaz, bere nortasuna bear zan tokian laster azalduko eban ustez, makur eta lotsakor, ta asarre be bai, jarraitu eutsen.

Alkarri begira

Bizkor ertzaiñean kotxea.

Txistu otsean, gelditu nai ezik, gelditu bearretan be tokia eskatzen. Bultz batera ta bestera.

Barruan, alai ez, baiña kezka barik, Abel.

Eskuetan lotu eutsen kateari begira sariago, barruko gora-berei baiño.

Ba ekian zaindari arei itz egitea alperriko zala. Naiku ta lar egin eutsen.

Begiak tinko zituen zaindariak berari begira.

Irribarre egingo eban berak gozoki, nasai, destañez, Ainbesteko arinkeri ta itsukeriak zurbilduten eban. Geiago barik gizona lotuta eroan? Agerpide ta ezaugarriak zeatzago ikusi ta aztertu barik?

Bateri begira lotu zan. Aren barruko poza igarten eban bere irribarre ta nasaitasunetan. Ez zan gaitz bere pentsamentuak irakurtea.

Bake ta zuzenbidearen zaindari egiten diranak ez ete leukie nai izango sarritan atzeman daben gizona gaizkillea izatea?

Gogapen asko biribiltzeko astirik ez eban emoten belbillak bere zabune ta bultzada ariñetan.

Poliziko baten gañera jausi zan errebera baten.

Onek, beso ta lepoaz gora bultzatu ta zuzendu eban ainbestean, alderdia jo eragiftaz.

Irribarreka berak; begirakunea zaindaria.

Eskerrak berak bigunki, gozo, maitetsu. Destaña zital, betozkoz, besteak.

Bere izateaz eta zoriaz konturatzen asi zan.

Zer esango ete eben parrokoak, kezka lakoa suspertu yakon berekautan.

Etsaien esan-mesanak ardurarik ez, baiña norberetarrenak... Zer esango ete eben bere lagunak, bere antzera arduraz eta miñez ebiltzan abade langilleak, zer pentsatuko beretar areik?

Eta zer goikoak, bere zuzendariak... aitzaki billa ebiltzanak bere eta lagunen ekin eta jokabidea ezetsiteko?

Odoletan

Burdin ots, zirrintada biurri, garraxi luze, txirristada etenkor...

Eta bat bateko ots bat.

Berenganatu zanerako ainbeste lagun ikusten zitun kotxearen inguruan, zartiatu eta eten ziran txapa artetatik.

Deardaka, ura eskatzen, osagilleak eskatzen, laguntasuna eskatzen zarataka, inguruan gertatu ziranak.

Inguruetako kotxeak gelditu ziran. Suari atsen eragiteko bonbak atara zituen.

Arin! Bizkor! dei egin eta ojuka ziarduen estu ta larri kaletarrak. Ibili arretaz gasolin ontziak su artu ta lertu baiño len! Sakuak! Ura! Atsengarriak arin, al dan ariñen!.

Gizonak igarten dira barruan, gizonak!

Burdin artean lotuta, estututa, zirkiñik egin ezinda, an egozan egon be Abel eta zaindaria.

Bere izkillua okotzetik' sartu ta burutik zear urtenda

eukan batek. Gorputza salto-saltoka igarri yakon, ostikoka, begiak zoro antzera urten bearrean...

Laster zan geldi, konort barik, didar itzal bat egin ondoren.

Bertan il zan.

Uluka, zarataka, aienaka, eteteko zorian gorputzari eutsi ezifik bestea.

-Eutsi, eutsi, iñotsan Abel'ek. Eutsi pizkat, ez estutu!

-II bear naz, il...

-Adorez zaite, kemenez eutsi... Ezin nei ezer egin, ezin... Esku oneik lotu barik ba neukaz be! laster atarako gaitue. Eutsi!

-Ai ene ama... amatxo!

-Laster azkatuko gaitue. Inguruan dabizen gizonak ba dakie nun gagozan. Laster dira gurekin.

-II bear naz... laster il!

Iturri batetik lez yatorikon odola aotik...

-Jaunagaz sinistu... otoi Berari.

-Ama..! AraaJ

-Esan nigaz batean, parkatu Jauna!

-Nire umeak..!

-Urreratu al ba nitz... Abadea naz. Parkatu daiketzut.

-Guzurti!

-Eriotz aurrean ez dago guzurrik. Damutu zaite.

-Nire umetxoak! Ai nire ama laztana!

-Ezer egiterik ez ba legoke lez gogoratu pizkat Jaungoikoagaz.

-Ene! EneJ JaunaJ

Nik parkatzen dautzut bere izenean. Otoi... Otoi..!

Kolkoan sartu zitun, al bestean, bere esku biak, lotutako esku biak Abel'ek.

Odola igarri eban bular gaiñean. Odola saietzetik, paparretik, zudurretik, ezpaifietatik, burutik. Odol

nabarbena.

Larritu zan. Kolkotik kurutzea ataratea lortu eban. Odolaz bustita gorri-gorri.

Zaindaria egoan tokira begira, eskuak al zitun bestean luzatu ta kurutzea erakutsi nai izan eutsan.

Eskuak luze, maitasuna ta parkamena erakusteko gizan... laster zan bera sentzun barik, laster bera be larrituta, odol potsuan arpegia sartuta...

Gaixotegian

Gaixotegi bateko gelan ordu luzeak eroiazan.

Irudi illunak ezagutzen asi zan bere inguruan. Bira-biraka, lanbrutsu...

Ezin etorri bere senera.

Itzal baten aurrean, irudipenen aurrean, ots egin eban:

-Nun nago?

-Egon bear ez ziñaken tokian.

-Zer dot?

-Bear zendunerako ezer ez.

-Parkatu... otoi... adoretu... Iñor zara?

-Zure lagun bat.

-Nire laguna galdu da... Eutsi... Eutsi... Nik parkatuten dautzut...

Gogorapenak biribiltzen asi zan.

Konturatu barik kolkoan eskua sartu nai izan eban. Ez eban aragirik ikutu, benda ta guate bustiak baiño.

-Nundik da nire kurutzea! Nire kurutzea nun?
 -Lapur onaren antzeko sentiduen al zara?
 -Danentzako dago tokia munduan. Nun dira nire lagunak?
 -Zein lagun?
 -Eztakit izenik. Nirekin etozanak.
 -Nun?
 -Kotxe baten sartu ninduen. Bal il egin zan. II. Besteari nik parkatu neutsan. A salbatuko zan.
 -Salbatu? Bear ez zana bai.
 -Begira... begira izkillua okotzetik. Oi! Zenbat odol! otoi Jaunari... otoi... parkatuko dautzu... nik aren izenean...
 -Zer parkatu?
 -Lotuta ez ba negoke!
 -Emakume argal eta zorrotz bat agertu zan oe ondora.
 Pultso artu eutsan.
 -Igarri eban gaixoa oraindik berera etorri barik, burutik ebillana.
 -Egon nasai gizon, egon bakez. Ez zaitetz estutu. Etorriko zara. Bake-baketan geldu egon.
 -Ura... ura...!
 -Pitin bat, tanta bat bakarrik.
 Zaintzallea, ertzaiña jakin nairik ebillen: Gogoratzen zara lagunekin? Nun laga zenduzan eurak? Ba dakizu zenbat ziñen?
 -Emakume gaixo zaiñak Mesedez, mesedez, gaixoak bakea bear dau lasaitasuna/Ez zirikatu.
 -Zerbait agertu nai genduke ainbat lasterren. Nire agintariak kezkatu dagoz, argi bidea nundik artuko.
 -Bere erantzuerak biribildu ezin ditun erantzuerak, illunagotan sartu zeinkezala ez zara konturatzen?
 -Ta zegaitik ez argi bidean?

-Olakoetan zearo galerazota dago gaixoa estutu ta larritzea. Bere osasuna da lenago. Ementxe egoeta be gaiztetsita dago, berera etorri arte.

-Bestelako gauza asko ez ete dagoz galerazota? Legea zapaltzea ez ete dago debekatuta?

-Mesedez, barriro.

-Agindu bat beteten nago.

-Mesedez, bestela zuzendariari deitu bearrean aurkituko naz. Ez beste bein esan erazi.

Atean egon neike, ez?

-Ori ezin ukatu polizikoei. Nasai egon. Oraindik ordu batzuk bearro dauz berera argi etorteko.

-Zaindaria ixildu zan.

Neskatillak, agirian eukazan arpegi alderdiak eta besoak igortzi eutsazan gaixoari.

Eta Abel'ek lapurretan lako írribarretxo estu ta neketsu bat egin eutsan einakume bigunari.

Argitasun billa

Poliziko buruak arduraz eta arretaz ebiltzan.

Ba ekien zetan eta nora joanak ziran kotxea eta zaindari bi. Ezin igarri orratik, eta ezin aztarrenik artu zeregiña zelan bete eben.

Bakarrik ete zan zaurituta bizirik jaso eben gizona a? Nor ete zan bera? Lenengo zarata eta estualdietan ez ete eban iges egingo besteren batek?

Ingurual zearkatu, kontroleko agiriak aztertu, zaindarien egon-tokietan zertzeladak billatu, batari deitu ta besteari itandu... argitasun pitin batik ezin atara eben.

Laugarren auzunetik kotxeak urten ez ebalu seguru

ekien. Geiagokoak uste ta eritziak ziran, ezelako ziurtasun barik, oi ez lako gauzarik beste zaindariaik be ez ebelako gau aretan igarri.

Ertzain biak il da, txoperra erreta... ez egoan iñor zeaztasun eta argitasun apurrik emon eikeanik?

Eta agiriak? Bizi zanaren agiriak? Nun ete ziran ezaugarriak, aren paperak, aren nortasun agerpideak?

Gaixotegian, zaurituareri inguruan, aren itz eta esaera bakan eta lotuak ezin artu ta ezin argitu ta ulertuz ordu luzietan adi ta kezka egoan zaindariaik, ordutik ordura itz egiten eban telefonoz bere nagusiekin.

Orduak igaroago ta, jakin-min biziago.

Nortasuna ta trebetasuna erakutsi nai agintariaik. Origaitik egunez eta gauez laugarren auzuneko egalak arakatuten ez ziran aspertzen, batez be toki eskutu ta illunak zearkatzen.

Edari, emakume, joko ta bizi-atsegin tokietan sartu ta jardunei adi, edo azpikeriz itaunka, orduak ordu botaten zituen egunez nai gabez polizikoak. Aztarrenik ez.

Egunkari guztiak dei bat agertu ta zabaldu eben poliziko buruaren aginduz.

Gitxi konturatu ziran dei orregaz edo ardurarik ez eb'an sortu agiri orrek.

Erantzunik ez zan eldu.

Lau bidar be argazki edo erretratuak atara eutsezan Abel'eri. Atzamarretako urratzak be artu eutsezan, lenengo batek eta geroago beste ikasiago batek.

Burua itxuragabetuta, arpegi guztia baltzunez beteta, puztuta; begi bat zearo estalita, sudurra oker, zapal-zapal, espanak durdo, andituta eta lodituta... nundik igarri gizon

aren berezko ezaugarriak?

Kaleko lagunak

Kafe bat artzen egoan Xabier, goizeko zortzirak inguru, lantegi andi baten auzuan.

Langille itxurako gazte igar eta mozolo bat urreratu yakon.

-Egunon Xabier.

-Bardin.-Nor zaitut?.

-Izenik eskatzen al da autortzetan?

-Bafdin. Nor zaitut? Ez zaitut ezagutzen.

-Ez da bear be.

-Zer nai dozu?

-Itz egin.

-Jardun.

-Kalera urten eta ibiliaz izango da.

-Zegaitik?

-Gizon baketzentzat ormak be begiak eukiten ditue.

-Esan, esan, jakitekoa ba da.

-Bildur zara? Zegaitik urten ez?

-Diru billa ba zabiltz oker zatoz.

-Ba dakit abade jatorrak bildurrez ibilten zariela.

Bildur eta estu.

-Nundik dakizu abade naizena?

-Legeari igeska gabiltzanok ondo jakiten dogu alkarren barri.

-Legetik igeska zabiltz?

-Ta zeu ez?

-Ez dakit.

-Zegaitik ez daroazu sotanarik?

-Goitik bera begiratu eutsan Xabier'ek bere lagun ez ezezagunari.

Nor ete ainbeste jarduten dana?

Ardura bizi bat agertzen eban berak, eta txamarratik ten egiñaz zirikatu ta bizkortu eban.

-Guazen, urten emendik.

-Orrenbestean...

Atarata eukan katilloko zalda iruntsi eta urten eben kalera.

-Ez dakizu ezer?

-Beti jakiten da zerbait. Zetaz oraingotan?

-Irakurri au.

Ta erdi eskutuan, ertzaiñen deia irakurteko eguneroko bat luzatu eutsan.

Xabier'ek ez eutsan garrantzirik emon irakurri ebanari. Dei bat geiago, esan eban bere arterako.

Ez dakit zer izan leiken. Onelako gauzak ia egunero agertzen dira.

-Nik ba dakit zerbait orretzaz.

-Ez naz konturatzen.

-Abel Dongaitz ezagun dozu?

-Aspaldi ikusi neban. Ta?

-Or diñon ori bera dala ezango ba neutzu?

-Ez dakit bat baten sinistuko neuken. Ez dakit zetatik esan zeinken ori.

-Artu bere agiriak.

Zurbildu zan Xabier. Benetan be Abel'enak ziran.

-Nundik daukazuz?

-Abade zareana ba dakit. Ertzaiñen aurrean ez salatuteko adorerik euki ziñei?

-Ez daukat zetan ixilekorik agertu.

-Ertzaiñak ezer igarriko ba lebe, edo nire atzetik .somatuko ba neukez... ez neukez sinistuko autortzako

ixilpenerako duin zareanik.

-Autortu egin ete zara ba?

-Kaleko agerpen batzuk, guzurrezko ta naiezko autortzak baiño egi geiago ta borondate sakonago agertzen dabe.

-Ez beti.

-Ez dozu sinistuten nigan?

-Ez dot ori esan nai.

-Ez zenkian benetan be ezer?

-Orain be ez asko.

-Areñegun, poliziko auto bat, jaubetasunari eutsi ezinda, beste baten gain sartu zan indar bizi ta itsumustuan. Bat batean ia erdibituta eta sutan geratu zan. Inguru aretan gertatu nitzan. Olakoetan gu lakoen zeregiñik arduratsuen ba dakizu zer izaten dan?

-Ez naz ainbestetan sartu ta gertatu. Ba dakit zuek zeregin «berezi» batzuk iñok ez bestean beteten dozuezala.

-Al dan bestean.

-Zer danik jakin lei?

-Lenengoz beñik bein... al dana aztertu. Olakoxeak izaten dira unerik egoki ta aukerakoenak eta erosoerak zerbait norbereganatzeko.

Ibili ta ibili

Buruaustez beterik aurrera joian Xabier.

Ezin sinistu Abel'en gertaerarik.

Bere laguna, egal guztietara adi, zurbil, begi-zorrotz.

-Ba dakizu Abel nun egon leiken?

-Ori ertzaiñak jakingo dabe. Ala ta be ez zaitez beste barik otso-zuloan sartu.

- Ziur zagoz Abel ertzaiñak eroiela?
- Ez dakit bera zanik. Emon dautsudazan agiriak eskuak lotuta eroien gazte baten patrikaratik neuk, neuk atsemonak dira.
- Geiagorik ez eukan?
- Beste agiri batzuk. Bafla lenengotik sumatu neban abade batek bere gaiñera beste batzuk ba darabiz, egokiago edo bear diranetarako eukiko dituala. Askoren jokua dogu, gaur, ori.
- Nun daukazuz?
- Orrelakoak lenengotik aldentutea izaten da bidezkoena. Aztarrenik ez laga.
- Ta?
- Sena ibaiak irunsi zitun. Orrelako asko eskutatu eta ondoratzen daki gure ibai andi orrek. Orrelakoen gose agertzen da Sena ibai zikin ori.
- Arro bota eban azkenengo esaera au gazteak.
Ez ekian Xabier'ek zelan asi eta zelan igesi.
- Bide kurutze baten garratz eta misterioz jardun eutsan lagunak: ezkerretik, guazen ezkerretik, atzera eta alboetara begiratu barik. Aurrera begira, zuzen eta ziur.
- Alaxe jo eben.
- «Begi zorrotz» bat ikusi dot, bai?, ta... ordu onetan ez da au niretzat ibiltoki egokia.
- Ezin nei jakin nor zarean?
- Obe ez.
- Atsegin izango yatan.
- Bai neuri be beste asko. Iñoiz arrapatzen ba zaitue, konpromisurik ez dozu eukiko beiñik-bein.
- Eskutu gauzetan barruan zabiltzala kpnturatzen naz.
- Sartu eragin.
- Nun lan egiten dozu? Lanera zoaz orain?
- Gertau lei. Dana da lana.

- Ez dozu lan ziurrik edo leku berez'irik?
 - Erak eta aukerak. Oraindik ez zara konturatu?
 - Zelako erak?
 - Norberak gertauak edo berez agertzen diranak.
 - Ortik bizi lei gizonik?
 - Errezago irabazten da askotan.
 - Zer irabazi?
 - Toki batzuetan izerdi ordez be emoten ez daben ogia.
 - Ta jausiko ba ziña?
 - Ostatutik ordaindu bearrik ez. Ta zetarako ukatu?
- Gaur, lapurrentzat ostatu ori, askotan txabolak baiño epelago da.
- Iñoiz ez dozu bide zuzenagorik euki?
 - Abade ikasten asi nitzanean... ez nitzan bide okerrean asi.
 - Aspertu ziñan?
 - Ez eusten erakutsi soñaren esnatzea gainduten.
 - Gordin zara, zital.
 - Gordiña eta zitala, egia egi.
 - Ta gurasoak?
 - Ez eben gura ni abade egitea besterik. Nai ta sotanak kakaz beteta erabili.
 - Nireak ez ninduen abade ikusi nai. Ta orra, zuretzat beintzat, abade naz.
 - Abadetzatik urten nebanean, ez eusten etxean biderik zabaldu ta aukerarik eskiñi. Ordutik kalean nabil. Kale zabalean edo kale estuetan, bizitza gordiñean, al dan eran.
 - Eta zure lan orretan ordez, ez zenduke nai iraultza lanean sartu?
 - Zer da ori?
 - Euskaldunak, atzerrian gabiltzan euskaldunok, zerbait

pentsatu bearra dogu. Gure errialdietan dagon giroa... Ba dakizu.

-Ta?

-Ogi bidea billatuko geuntzuke, nai ta kalean ibili bear.

-Ez zenduke besterik bear abade langilleak, daukazuen ospe ta entzuteagaz, gu lako gau txoriekin bat eginda jokatzea baiño.

-Laga orreri. Bai edo ez?

-Agur ta erdi, jauna. Etzi, ordu berean, gaurko tokian agertuko naz... bitartekorik ez ba da.

-Ze bitarteko?

-Esan dautzut autortu egin nazala. «Autortu». Ta igarri dot, iñoiz erdi lotan entzundako autortza asko baiño gogotsuago, jakin-miñago artu dozula nire autortza.

Bostekua luzatu ta beste barik Xabier konturatu be egin orduko, urrundu zan borondate oneko gazte ez ezaguna.

Nundik ekin?

Arduraz lotu zan Xabier.

Zer pentsatu sakona sartu eutsan kalean euki eban bat-bateko jardun arek.

Barrero zabaldu eban egunkaria.

Garbi egoan ertzaiñen agiria:

«Illaren iruan, gabeko amabiak inguruan, Gambetta eta Hugo kale-kurutzean erre zan poliziko kotxearen barri emoten jakin leikenari, mesedez eskatuten yako Ertzaindegi nagusira agertu daitela.

Ertzaiñak ezin emon lei gaixotegian zaurituta

dagonaren zertzeladarik. Berrogei urte inguru, itxuraz. Praka urdin eta narruzko txamarra, alkondara illuna, 1,70 luze, betule baltz... Iñok ezaupiderik ba leu, eskergarri litzake. Telefonoz emon leikezan agerpideak be onartuko dira».

Ez ekian zelan jokatu.

Sinisgaitza zan beretzat gizon a Abel izatea. Baiña agiriak ez eukan guzurrik. Ez eben lagaten zalantzako biderik.

Eta bere lagunak, ertzaiñak eta Abel'ek euki eikezan lagunak naastuteko asmotan egertu izan ba litu agiri orreik, eta ertzaiñen deiagaz alkartu gura, euren egitada zatarren bat eskutatearren?

Bestalde, ertzaiñen zertzeladak, Abel'en tankerako ziran. Urtez eta jantziz be arenak.

Zelan, baiña, Abel ertzaiñen kotxean? Nundik? Zegaitik?

Loratoki atsegin baten sartu zan. Ez usain eta ederrez atsegindu ta baretzeko asmotan. Aulki baten jzarri ta buruko pentsamentu ta usteak alkartu ta zuzentzeko asmotan baiño.

Jzarri ta bat-batera, beriala, jaiki zan.

Gero ta oinkada luze ta bizkorraguan ibilten asi zan.

Ondoren, bat-batera gelditu ta bere artean: nora, baiña, ain urduri?

Ertzaintegira zuzentzea erabagi eban, argitasun nairik.

Goizeko troleak ba etozan. Pare-parean gelditu ordez, aurreratxoago gelditu zan bat. Gizonaren salaketaren bildurra etorri yakon burura. Autortzaren ixilpenaren bildurra. Ez eban alegiñik egin bere oinkadea bizkortzen.

Trolebusak aurrera jarraitu eban. Ez zan damutu.

Obispadura dei egingo ba neu?, bururatu yakon. Ta beriala: an jakitekotan, ertzaintegian ez dira itsu egongo.

Etxean? Bakarrik bizi zanetik orko lorratzak ez eben zirikatu. Ortik ez etorran argirik.

Uste barik, konturatu be barik, oiturearen indar eta bultzadaz, Metro'ko eskilaretan beera prisaka eratsi ta tiketa erosten geratu zan. Baiña ez ekian norako artu.

Sakristau baten goizeko salmuak.

Kezkaz sartu zan Xabier Yon Done Petri'ren eleizan. Sakristira zuzen.

Garratz, goizeko garramak itzaldutako abots illunez, Xabier'en agurrari itxaron barik, urreratu yakon sakristaua:

-Egunon lenengoz.

-Parkatu. Ala euki.

-Gaur politesa neskatillentzat bakarrik lagaten da.

-Gertatu lei.

-Ta bestiok?

-Bestiok ez zarie bastertuta bizi.

-Ez aitzakirik billatu.

-Zer da? Gaixoen bat?

-Ez.

-Txarrago? Illen bat?

-Olakorik ez.

-Benetan esanda, ez neban ba txartzat artuko orrelako albiste bat. Sei egun igaro dira iñor il barik, eta borondatea borondate, guk be nunbaitetik jan eta bizi bear dogu.

-Umore baltza daukazu. Ba! Ba nekien onelako urteerak daukazuzala, barruak lagundu ezarren.

-Urteerak? urteerak eta premiñak. Zer ba?

-Tira, koplá barik: zer nai dozu?

-Nik, ba dakizu, abade naz eta...

-Abade? Gaurko abadeak sakristauak baiño itxura geiago erabili ta agertzen dozue.

-Ta agertzea bakarrik ba litz... Jakin be ez asko geiago.

-Begietako makarrak sakristauak baiño goizago garbitzen ba dakigu beintzat.

-Orraztu barik billatu nazulako difiozu ori?

-Ez txartzat artu. Guk «esan» bakarrik egiten dogu. Esan bakarrik.

-Ori da, ori, zuen jokabidea. Gura dozuezanak esan eta gero... aitzakiak. Or billatzen dozue beti santuen bat bere gain botateko egurra. «Nik ez diñot ori, done Paulok diño. Ori Job santuak diño...» Ekin beti iñori kulpak emon eta mingaiñetatik tengadaka. Danok zarie bardin, eta danok buru bateko.

Ondo ordainduko ba zeunkie, orrazia, espillua ta brillantina be erabiliko neukez, erabili. Begietako makarrak be ez genduke eukiko, nai ta goizeko iruretan kanpaiak jo bearra artu.

«Pekaturik ez egin»... zarata asko. Nik ez diñot egin bear danik, baiña, egia, arimen kutxa kandauagaz lotuta ez ba legoke, sakristauak pianua jo bearko leuke.

-Mendebaletik al dabil gaur aizea?

-Aizea eta txingorra be datorrela. Tximista ta trumoiak ots egin bearko dabe egunen baten, ots egin.

Moda barri billa zatoze beti. Or zabize orain zorioneko abade langillien autu orretan zoratuta.

Ta etxian? Etxian ez al dago langillerik? Emen ez al dago ze konpondurik? Sakristauak ez al gara gizonak?

-Ba, ba... Esnatze larri eta tontorra euki dozu, itxuraz.

-Pozago jaikiko nitzake goizeko amarretan eta txokolata artu.

-Ez da beste munduko gauza.

-Bai, egia, orrenbeste barik be pozik biziko giñake.

-Abel jaunak esaten al dau mezarik?
 -A ez da sakristaua lez bizi.
 -Zer ba?
 -Nai dabena egiten dabelako. Nik ezin orrenbeste egin.
 -Iñori parkatuko zeuntzake gaur?
 -Ba, a bera ez da gaiztua. Aregaz konpondu lei. Baiña emen dagon erretore zarragaz... Demoniño bat zitalago gaitz billatuko litzake, kortxetas!
 Zeken, zital, begitankor, mozolo... Ba, ba! Au ilten danean, benetan diñotzut, illetetako kapa baltzaren ordez, pasku eguneko zuririk ederrenak atarako dodaz, Gloria edo Tedeum kantateko.
 Ez uste, gaiñera, emengo abadeak betozkoz ikusiko leukenik orrelako jai bat.
 -Ni etorri bearko naz erretore barri.
 -Barrabas bera etorri ta be ainbesteko izango da. Zekenaren ugazaba bera etorrita be, jausiko litzake bein edo bein eskua luzatuten. Kontuak kontu, guk orixe bear dogu. Otoitzak onak dira, nik ez diñot ezetzik, baiña (atzamarrak erabiliz) ezti barik... dana garratz.

Jardun berean

Gustora jarraituko eban Xabier'ek sakristauaren egi biribil eta mardulak gordin gordin entzuten. Abel'en jakin miñak gainduten eban eta aize bera baiño zirikalariago izanarren, jarduna eten eta jardetsi eban:

-Abel etorri da ala ez?
 -Ori, ori, motzetik egin. Luzeko aria eten nai, e?
 -A ikusi naian etorri naiz.

-Nik ez dot ba ikusi. Ez gaur, ez atzo, ta arañegun be ez.

-Sarri lagaten dautsa etorteari?

-Urtean bein edo... Ama ikustera erriratzan danean.

-Ez dau ezelako barririk itxi?

-Nik dakidanik ez. Eta arek... Barrabas arek (erretoreagaitik) dakianik be, ez dot uste, bestela ormak jakingo eben.

-Nun billatu neikenik?

-Jarraitu, jarraitu azeriari ota ta sasi artean.

-Ez-bearren bat euki dabenik?

-Txarra edo okerra errezago jakiten dira, ona baiño. Orren kezkarik ez artu. Zabalduko zan, bai, ezer jakin ba litz.

-Paris andia da.

-Zatarregia. Baiña mundua biribilla da ta zoritxarrez bilin-bolonka arin ibiltan daki ezbearrak.

-Ez dakit, ez dakit. Banua.

-Etorriko ba litz edo ikusiko ba neu?

-Bere lagun bat emon egon dala. Ziurrago lenago ikusiko dot nik, zuk baiño. Nai neuke. Agur.

Ez aaztu gero zar au ilten danean, erretore gazte batekin lan egin nairik dagon sakristaua emen dagola. Ia bein autsak kentzen dautsaguzan santuei ta arimen diruari baketan laga.

-Lenengotatik sakristau jatorrarentzako eske berezia egingo neukela agintzen dautzut.

-Ori sistema ederra! Iñoren lepotik?

-Eleizatik gizon, eleizatik. Eleizara datozenak ez ete dira ba eleiza?

Garrazkeriak

Sakristitik urtekeran erretore zaarragaz topo egin eban Xabier'ek, bere naigabez edo sakristauaren olgetarako.

-Zer da, zer?

-Zerbait jakiten etorri naz.

-Zer, zer? Neu naz emen erantzun neikena, neu.

-Sakristaua eskerako bakarrik al da?, tartetik zoli-zoli jardetsi eban sakristauak.

-Ixo! Ixo! Agintzen danerako.

-Agindua obeto dago bai emen. Orixe da ain zuzen be emen falta ez dan gauza bakarra. Agindua.

-Ixo, esan dot, ixo!

-Zer dakartzu, zer? Xabier'eri.

-Beti zer dakartzu?, sakristauak. Noizko zer nai dozu?

Igarri eban Xabier'ek erretore igarrak eta sakristau zistriñak mozolokerietan ba ekiela zelan jardun.

Apaltasunez erantzun eban: Abel ikusi naiean etorri naz.

-Abel? Toki onera zatoz.

-Ba dakit eleiza onetako laguntzaillea dala.

Laguntzaillea? Laguntzaille deitu lei burukomiñak sortu eraziten dakianari?

Ebagita, etenda gelditu zan Xabier.

-Zoaz, zoaz kalera. Len abadien etxea eleiza izaten zan.

Gaur...

-Gaur be abadien biotza eleiza dala ziur dakit.

-Ikusteko dago ori, ikusteko.

-Biotza ta gogua.

-Mingaiñean.
 -Mingaiñean eta egitetan.
 -Ez dago itxurarik.
 -Baketsuago da eleizan bizi eta kantu edo otoitzean nasaitu igarotea.
 -Zetarako da abadea?
 -Gaur ezin giñei lotu lau orma onein barruan.
 -Nun ba?
 -Lau neskazar eta sei atsoren negar muxingak legortzen ezin giñei kezkatu ta eten, erririk geiena kalean gure betozkoz bizi dalarik.
 -Kristoren etxea emen dago.
 -Kristoren etxea gizonen biotzak izan bear leukie.
 Abadiiekandik asita, abadiiekandik, barriro be zoli sakristauak.
 -Ixo! Ixo!
 -Gaurko gazteak zoroegi zarie. Arifíegi. Gazteegi.
 -Ez da gaztetasun auzia.
 -Biziegi zabiltze. Itsu.
 -Otsoak iruntsiko zaituenik ez dozue ikusten, igarri ez?
 -Gizonak ez dira iñoiz be otso.
 -Gizonak? Basatiak, basatiak, gaurkoak batez be.
 -Gizonak, jaunak, gizonak. Maitasun eske dabil gizona, egi eske, ogi eske, bizi eske. Ezin dogu gaur gizonaren estutasunik eta problemarik igarri, beragaz eskutik ibili barik.
 -Betiko lelokeria.
 -Zegaitik ez gara gizonengan urreratuko?
 -Urreratu bearrik ez eben eukiko jatorrizko bidetik iges egin ez ba leu. Ba dakizu zuen jokabideak barbaro eta jardun bada-ezpadako asko sortu dabela?
 -Nun?

-Edonun.
-Ugazixuen kantu baldarrak kalterik egiten dautse
iñoiz zelaien loratzeari?
-Ez iñor berotu.
-Nik iñor berotu ez.,
Itsuak argitu nai neukez, baiña ba dakit ori mirari
izango litzakela. Eta ez dakit gaurko zitalkerian miraririk
merezi ete dogun.

Borondate ona kalean

Kaleko argia ikusi ebanean, ez zan gogoratu Xabier
zelan agurtu zan erretore zaarrangandik.

Sututa egoan. Aren itsumen, zitalkeri, garrazkeri edo
berekortasunak minduta.

Lengo kezka ta oraingo beroaldiak sentzuketik atarata
erabillen.

Txirristada otsean gelditu zan bat baten aurrean
kotxe bat. Frenoen zirrintada ta zarata biziak ikaratu eben.
Bero txoperra, zoro antzera, beretik urtenda jarki yakon,
goi ta bekoak erreten.

-Zoro ta itsu zagoz, madarikatu ori? Ama galduren
seme!

-Kontuz!

-Nun zabizen, nundik zoazen ez zara konturatzen?
Zapaldu ba zindudazan, zer?

-Ez naz konturatu.

-N.eurea da, neurea errua, il ez zaitudalako, zapaldu ez
zaitudalako, arlote kirten ori!

Bat bateko gertaera onek ebagita laga eban Xabier.
Mutututa.

-Parkatu..!

Ez eban bere larritsutik urteten. Ezin berbarik asmatu.

-Nok parkatuko eustan niri zapaldu ta il ba zindudazan? Zeiñek? Nork?

Ta bultzia ezin zuzenduz, an ebillan gogora jatorkozan goi ta bekoen izan eta izateak erre ta erre.

-Kontuz, gizon, ainbeste berotasunez ez zaitezaz zeu be erre.

-Ertzaiñari deitzea merezi zenduke eskarmentu on bat emon daitzun, zoro orrek.

-Tori arek kendu leikedazan bost ogerleko, orreïn premiñetan ba zara.

-Irabazi bako diruak gose gitxi kentzen dabe. Zeure burua il nai zendun?

Jaurti egizu Sena ibaira ta ez etorri bestiak ilteko arriskuak sortuten.

-Nirea baiño beste askorenak maiteago dodaz, gizon, orrelajarduteko.

-Ori be esan? Itxurak erakusten dozuz!

Kotxeari tengada bakoitzeko itz garratz edo destaiñak biribiltzen jarraitzen eban. Alegiñak egiñarren ezin zuzendu.

-Laguntasuna nai?

-Laguntasunik onena zur ibiltea da, onelako ezbearrak sortu barik.

-Prisaz nebillen, bai?

-Zetarako? Ara biok emen geldi, ez gatzetako ta ez uretako. Ba dakizu nire errian zer esan daben? Prisaz ba zabiltz, ibili astiz.

-Euskalduna?

-Izan eta izango.

-Ni be euskalduna, jaiotzez eta biotzez.

-Nungo?

-Zubero aldeko.
-Ni beste aldeko.
-Gerratik igeska?
-Egoera bateri aldeta.
-Azkatasun maitale?
-Gizon eskubideen eskale.
-Zuen joera ezagutzen dot.
-Sekula ez dot laga euskaldunik gogoz eskua luzatu barik. Gaur bai orraitik.
-Ez gaur be onezkero.,
Eta Xabier'en eskua luzatu eutsan ta besteak nagiz zabalduarren, oi dan lez estutu eutsen alkarri.
-Norako asmotan?
-Neuk ba neki...
-Ezagun da bai itsu zabiltzala.
Zuzendu eben kotxea Baretu zan pixkat.
-Sartu, sartu...
-Baiña...
-Sartu beintzat, emendik urten daigun.
Kotxe barruan, norako zan be barik, ixil-ixilik lotu zan Xabier.
-Ez zara txarretik urten. II ba zindudazan, zer?
-Ez dot uste niretarrak burukomiñik sortuko eutzuenik. Bakarra naz munduan, askorentzat bizi naizen bakarra.
-Osagillea?
-Abadea
-Parkatu. Ezin ukatu. Iñor beretik ataraten iñok baiño obeto ikasi zenduen. Agiri da.
-Ezaguera bako nabarmenkeria ez da pekatu ta ez parkamenik eskatu. Nik be, era berean, ez dot uste gaitzik egin dodanik.
-Ez al dago zurrezik? Arriskuan sartzea ez al da

pekatu?

-Noiz, zelan eta nun.

-Ba! Ez alperrik biguneri ta zurikeririk billatu baltzari. Zure itsukeria pekatu zan, pekatu, emen eta Pekin'en.

-Katea luzatu bearko dausat, orrela dala, itsutu nabinari... Ta ba zenki... Orduan bai zerbait esango zendukela.

Zubero'ra deika

Kale kantoi baten geratu zan kotxea.

-Jarraitzeko asmorik ba dozu, itxaron egidazu amar minutu inguru. Agurtzeko asmotan ba zara, urrengo ikusi arte.

Iñoiz Paris'en ezertarako bear ba nazu, ona nire zuzenbidea.

Ta eskiñi eutsan tarjetatxoan auxe irakurten zan: Mattin Iriart.

2, Rue de la Divise, 2.

Eskua luzatu eutsan agurtzeko gogoz.

-Nik beste bost minutuko zeregintxu bat beteko neuke pozik eta gero aurrera jarraitu.

-Noraiño?

-Ikusi bear.

-Ikusi bear? Ez dago txarto. Ba, ikusiko dogu. Edozelan be gizon atsegiña zaitut eta ez daukat orretan zer esanik. Laster arte.

Aldendu zan Matxin.

Xabier be lenengo igarri eban telefono lekura sartu zan.

Lenengotatik eta bein zalantzak kentzeko Zubero'ra deika asi zan.

-Abel'en etxea?

Telefonoan bitartekoak igarten ziran. Zentsura.

-Esan, esan, Abel'en etxea?

Telefonotako neskatileak erantzun eutsan erderaz egitea premiñako zala jardunaldia egiteko.

Gogor jarki jakon Xabier.

Azkatasuna, gizonen eskubideak, norbere izkuntzaren nortasuna, etorten jakon guztia ataraten eutsan Xabier'ek neskatileari.

Arek berak ezer ezin eikeala, frantzesez itz egiteko nai ba eban, edo gaztelaniarik ez ba ekian, baiña euskeraz ezetz.

Xabier'ek geituten eutsan, berak ez ekiala ondo gaztelaniarik, eta Abel'en amak ez ekiala frantzesik, eta ia zelan konponduko ziran euskeraz ezik.

Baiña erbesterako jardunetarako euzkera galerazoa egoala ta neskak berak besterik ezin egiala.

Eta tronpeten lako zarata sartu eutsan jarduna ulergaitza egiteko.

Telefonoa bere tokian itxi ta berari eutsita lotu zan une baten, nora ta nori ta zelan geiago deitu gogoratu ta asmatu ezifiik. Eta itsukeri askoren amorru irakinduz.

Etsita, atsekabetuta, kalera urten zan.

Txikikeriak

Ez ziran oraindik bost minutu.

An egoan Matxin itxaroten, bere kotxean.

-Amar minutu ez daustazuz agindu?

-Amar esan eta ordu erdi igaroteko bildurrez. Ta...
jakin zure itxukeriaren ondorenak.

-Nire erruz?

-Bai, gizon, bai.

-Len galdu dodazan amar minutuak eguna galdu
eragin dauste. Orixe da egia.

-Oker andiz?

-Ez jakin.

-Egun guztirako umore txarra, ta ez txikia, ipini
daustazu. Zuk, edo zure erruz bestek.

-Ba dakizu errurik ba daukat naitakoa ez dala.

-Osagille baten gana etorri naz. Alperrik.

-Edonoiz gertaten da ori.

-Zagoz ixilik. Ez dakit nun diran gure eskubideak eta
ez dakit nun agintariak.

-Emengoak eta gure alderdikoak, danak pikotan.

-Nik urte guztiko babes edo asegurantza ordaintzen
dot. Egun guztirako eta urteko ordu guztietarako. Nik
dakidala alaxe da. Ta osagilleak... egunean ordu bete
besterik ez dabe segurukoentzat. Ordu bete laburra. Ikusi
bestela ze ordu daukazun.

-Nire ordua loa ta gosea dira.

-Orrela bizi gaur, orrela?

-Nik, oraindik, bederatzi ta erdiak eta minutu bi
ostaz. Konturatzen? Osagilleak beste nunbaitera urten
dabela esan dauste, segurukoen txanda amaitutzat emon
ondoren. Eskubiderik ba al dago onetarako? Norbait etorri
bearko da, baten bat etorri bearko da mundu alu au
zuzentzen.

-Zuzentza baten billa ba gabiltz gu.

-Zuek? Gizaldien gizaldietan ezer egin ez dozuenok?

-Gure abotsa garbi entzun da.

-Basamortuetan izango da.

-Zuek luzeegi egon zarie lotan. Eta gaur onela diarduenak, zuek usteldu erazitakoak dira. Zuen lo-zorroaldiko semeak eta ondorenak.

-Ez gure zemaiak artu barik.

-Bai zuen indulgentziak artuta. Len eta orain.

-Langille artean gaur daroagun ekintzaren barri bat dakizu?

-Zelan sinistuko dautzue, okerrak dirala ta esan dautsazue-ta?

-Guk?

-Langilleak okerrak dirala? Ta beste oneik? Langille zuri oneik? Oneri ez deritxozu ezer? Zer diñozu onetzaz?

-Guk ez diñogu langilleak oker diranik, okertu dituela baiño.

-Langillien bildur zarie ta zerbait egin nai dozue. Berandu txaplatak galtza zarrei. Eten da gero. Ez al da ala?

-Sekula ez da denpora galdurik.

-Zegaitik ez zarie ausartuten zuen kidekoekaz? Menpetasun itsuegi eskintzen dautsazue batzuei. Zuek jakingo dozue zegaitik.

-Gu ez gara iñoren otsein. Ortxe gabiltz ba bide batzuk urratzen.

-Judaskeria tartean? Andikien zabarkeririk ez dozue ikusi nai. Gaurko bizimodu narrazagaz kutsututa zagoze, zuek be. Onelako gauzak eskutatu gura dozuez, edo arindu. Eta zuzentasun eske dabillena, guzurrezko bake santu baten izenean bigundu eta baretu nai izaten dozue.

-Gaurko abadeak ezagutu barik zabiltz jardunean.

-Kristo bear litzake emen barriro, benetako kristo, ez gaurko nabarmenkeriz moldatu eta eratu dozuen Kristo, danok astintzeko, zuekandik asita, . bere erakutsien merkatariiekandik asita...

Ez egoan Xabier gero ta beroago agertzen zan Matxin'en jardunei su geiago emoteko.

Bere bidea nundik asi... or ebillan, buru ta biotz.

Pozik eta arro zan Matxin bere bakarrizketak ziria sartu ebalakoz.

Euskalerrian, gerra zabaldu eta galdu zanean, dana kendu eutsen famili bateko seme zan.

Langille eta ugazaba, anai arteko bear zirala erakutsi eutsan aitak. Alkartasuna bear zala gizarteko alde bien artean. Alkarren ezaupide, alkar laguntza eta alkarrentzako lotsa.

Lanaren emaitzak be alkartu bear zirala, lanean ekiten eutsenen artean zuzen zabaltzeko.

Origaitik Xabier'en esanak, beretzat, albotik etorkiozan, gairdutako gauza lez.

Beste gaixo okerragoa ikusten eban gizartean. Langille artean eta goragotik igarten eban ustelkeria.

Baiña ze asmo ete eukan bere lagunak? Nora ete eioan?

Origaitik itandu eutsan:

-Norako asmotan?

-Gaur borondate oneko bat billatu nai neuke laguntasunerako.

-Egi garratzak esateko millaka billatuko gaituzu. Ortik igarri zelan dagon mundu au.

-Egia ona da maitasunez eta karidadez erabillita.

-Egia egi beti, karidadez edo premiñaz.

-Anilla be anil izango da. Baiña ozpin (binagre) pizkategaz naastu ezkeru, ba dakizu zetan geratzen dan?

Ekin, ekin etxean orrelako naste bat egiten. Ikusiko

dozu zure etxe dotorean nok irauten daben.

Barruko agerpenak

Euskalerriko guda ondoren,
urteetan sartua egolako eta gudari izan zalako,
eriotzara epaitua egon zan Santoña aldean, euskaldunak an
makurtu ziranean, Matxin.

Oiñarri bako salakuntzak egin eutsezan.

Gero, tartetako trukeetan, España gorrian era berean
preso egozaren ordez egin ziran trukeetan, bera be
kartzelatik atara eta erbestera joatea lortu eban.

Ez eban nai izan Bartzelona aldera joaterik.

Beretzat Euskalerriko gerra Bilbo'n amaitu zan.

Gurea amaitu ondoren, bere gogaiak ez ziran gerra
geiagotan sartzeko. Odolez eta sentimentuz.

Bilbo'ko jo aldietan kontzientziko kezkek euki zitun.

Beartuta ebillen eta bein sartu zanetik, zintzo eta leial.
Origaitik batalloe bateko izardun izatera eldu zan.

Urkiola inguruan zaurituta jausi zan. Laster barriro
berera etorri. Eta barriro Bilbo inguruan eta Bilbo'tik
kanpora euskaldunak Santander aldean ibili zituen
ekiñaldietan ibili zan.

Gero, Santoña'ko itunbena zala-ta, errialde aretará
urreratu eta an egozan itxasontzietako baten sartu zan, ez
bera errudun sendituten zalako, izardun izan zalako etorri
edo leporatu eikioen zigorraren bildurrez, kezkaz baiño.

Eta txarrago izan zan ontzian sartzea.

Danak atara eta Dueso'n sartu eben. Eta geroago
Bilbo'n egin ziran epaietako baten eriotzara epaitu.

Orrek emon eutsan min.

Bere ustetan nai ta ezean gerran sartu. Ezin iges sartzeari. Gero batalloetan ibili zan artean bai barruko mutillekin eta bai ingurutako erritarrekin, beti ordena bat zaintzen alegindu. Ifloiz artu zituen bestaldeko soldadu mutillak lotsa eta gizontasunez artu eta agintarien eskuetan errukiz ipini.

Bilbo galdu ondoren eskuetan euki zituen ainbat espetxeratu edo kartzeletan egozan gizonak. Gizonak, erritarrak era aretan erabiltea lotsagarri zan beretzat, biotz ikutugarri. Eta iñoiz bere aldetik al izan eban janarien bat be eskiñi eutsen.

Egoerak aldatu ziranean, lengo presoak azke eta lengo azkeak barruan sartu zituenean, bere aldetik ez eban nai iflori mesederik eskatu. Alaz eta estutasunetan gurasoak edo senideak ez dira geldi egoten. Bere aldez be alegin eben, baiña mututasuna eta ixiltasuna artu eben erantzun orde. Eta zabala zan Matxin'en gizontasuna!

Dana dala, Paris ingurura joan zan.

Eta an be gerran sartu bear!

Doixtarrak eta frantzetarrek, eta beste europar eta mundutar errialdeak asi eben gerra zala-ta bildurtu zan. Eta euskaldunak sortu eben taldean sartu zan bera be.

Gerra ori amaitu zanean, lantegi txiki baten asi zan lanean, eta andik laster jaube egiteko aukera euki eban, gerran ibilitako denporak orretarako bere mesedegarri zirala.

Lantegian ba eukazan bere kezka eta burukomiñak. Bere ardurak eta premiñak.

Ugazaba txikietako zan. Langille eta ugazaba batean.

-Or zabize zuek beti ugazaben aurka...

-Kontuz. Langillien alde egitea ez da ugazaben aurka jardutea. Ez itsutu zu be.

-Su bat aizetzen dakizue. Beti su bat. Ba dakizue

indarra nun dagon, kaleko indarrak bildurtzen zaitue.

-Egibidean eta zuzentasunean bakarrik.

-Demagogo zarie sarri.

-Ori da arpegira ezarten dakizuen akats bakarra.

-Yenteak naastu eta moskortu guraz zabize. Esakera bardiñekaz tontortu nairik.

-Iñoiz ez olakorik.

-Igarten dozue langillien ugaritasuna eta indarra, ta ederkatuta egiten alegintzen zarie.

-Guk ez dogu iñoren ederrik eta kerik nai, zuzentza eta ondasunaren bardintasuna baiño.

-Ijituen antzera ume eskel gosekilla ipinten dozue aurrean, kalean, erruki eskale.

-Errukigarri dana ipinten dogu.

-Nai litzake barrua obeta ezagutu, etena ikusteko. Odola ikustea bakarrik naiko ete da zauriaren betetasuna ikusteko?

Ba dakizu oraintxe bertan zer jazoten yatan?

Egur tratuan nabil.

Beti alegintzen. naz ondo lan egiten. Nik egin eta bestiei eragin.

-Eragite orretan ez ete da akatsik?

-On egiteko asmoz agintzen dakit. Lana lana da ta neurria neurri.

Ori ikasi neban umetan nire aitagandik.

-Ez uste gurasoak beti errazoizjokatzen jakin ebenik.

-Entzun. Lengo baten etxe andi batekoekin konpondu nitzan. ogei kamioi egur saldu neutsezan. Atundu giflan, estu baiña zelan, noiz eta nun sartu. Pozik nengoan diruz zerbait arindu nitzalakoan, sasoi onetan zerbait arintzea be irabazia dala-ta.

Asi nitzan lengo astean esandako tokira bialtzen... ta atzera bialdu eusten lenengo kamioia. Aitzakiak. Guzurrak.

Bidegabekeriak. Neurri ez bardiñak... lakak... Aitzakiak.

-Aitzaki utsak laster guzurtatzen dira.

-Neuk ikusi neban, nire baiño egur eze, makal eta neurriz baldarragoa bertan sartzen.

Asarretu nitzan. Gora joteko be egon nitzan. Orrela nabillela, borondate oneko batek ixil berbak esan eustazan. Laster konturatzen asi nitzan zer gertaten zan. Eskupekoa bear... sarrera-urterak ikustatzen zituan langilleari, arduradunari.

-Orrelakoak salatu egin bear.

-Errez da esatea.

Lotsatu nitzan, baiña emon egin bear. Besteen bidean sartu bear nik be. Ori zoritxarra. Eskupekoz zuritu bear.

Egia au da. Ni, goikoekin, asko estututa, asko makurtuta konpondu nitzan. Irabazi mei eta argalagaz, nire langille lagunak ordaintzeko dirua bear nebalako. Eskupeko ori emotekotan, galtzen geldituko naz. Emon ezik, ez daukat saltzerik, guzurretako akatsak nausi izango diralako.

Langille ori salatu ezkeroz... besteak atek sarratuko leuskidakez. Ez al da ala? Eta bestela, eskupekoa .bitarteko dala, metrotan irabazi nei, neu lotsagabetuta, neurri kontu orreri ajola gitxi emongo dautselako, bein azalak eta itxurak bete ondoren.

Langille orrek premiñaz egiten dabela, zillegi da orrela jardutea?

Eta langille orrek, premiñaz egin da be, ta ni saltzeko premiñan egonda, zillegi ez ete da nik arek kentzen daustan dirua egurraren neurrian kentzea?

Ez dozue usteltasun au danean igarten? Ala aldebatetik bakarrik begiratu nai dautsazue gizarteari?

-Ez dot uste orrelako langillerik egon leikenik.

-Ain itsu? Ainbestean? Guzurretan nabillena esan nai

daustazu?

-Ez. Bakarren gaitzak ez dira legetzat artu bear. Ori sekula be ez. Alaxe gertatuta be, zure esanik ukatu ez da be, baten lapurretak ezin lei biderik zabaldu, ta gitxiagó onartu, bestienik.

-Bakarra? Gaurko giroan bakarra? Ain zuzen be nigaz tope egin bear eban bakar orrek?

-Bakarra edo...

-Ogei kontatuko dautzudaz. Nai? Ogei. Minutuko bat.

Ustelaren arrak jandako mundu bat eskutatu gurarik zabiltze, ta ez zarie konturatzen?

Sagarrak, mallatunak eukiarren, barru zindoa zaintzen ba daki. Ori danok dakigu. Ez al da egi?

-Bai, ta?

-Ta bestera. Zegaitik ustelduten dira askotan?

-Sagarrak?

-Itxi sagarrei. Langilleak. Biargiñak.

-Ori zeuk jakin bear zenduke.

-Ez ete ugazaben edo jaubien erruz?

Eguerdi inguran

Eguerdi ingurua eldu yakoen.

Zuzenbide batik barik.

Umetatik alkar ezagutu ba ziren lez, kontu kontari, gero ta konfiantza geiagoz.

Gordin, baiña adizkidetasunez.

Jazoera mingarri bat. Bestea. Ta bestea.

Ez amaitzeko katean.

Batek esan, zirikatu. Besteak erantzunez bigundu nai,

itxuratu, aitzakitu edo zuzendu.

Sasoiko jazoerak, gertaerak, egiñenak.

Zikinkeriak, ustelkeriak geienetan. Gorroto edo ezin ikusiaren egitadak bestetan.

Aldi guztiak eukiko dituez euren erako gordinkeriak, uskeriak. Era bat edo bestean.

Lizunkeriak batzutan, lapurretak bestetan, gorrotoen itsukeriak tartetan, gerraetako lardasketak noz nai...

Ez ebillan Xabier'ek giro on onik. Bere kezkek zurbilduten eben, beretik aldendu.

Bear bada origaitik Matxin'en begirako, abade makal, gisaxo, jakituri laburreko on-on bat erabillan alboan.

Arrotu egiten eban orrek, eta makurtuta erabillan lez, menderatuta eukan bildots apal lez, ziri ta ziri, Xabier'ek igarteko aiñako destain, irri eta bitsez erabillazan bere jardunak.

Alako baten, orrelaxe ebiltzala egunkari saltzallien otsak etozan gero ta garbiago kale zear: «Eguna», «Eguna», egunkaririk aurreratuen, azkenengo barriekin!

«Eguna», egunkarietan irakurriena... «Eguna» «Eguna»... deadarka igaro zan moskor antzeko mutil txatxar bat.

Artegaz erosi eban Xabier'ek.

Beriala asi zan barruko orriak gain gaiñetik begiratzen, arek be ertzaiñen deirik edo agiririk ba ete ekarren kezkaz. Ta... egia ete irakurten asi zana? Irakurri eta ikusiaz batera artegatu eta sutu ebana, egia ete?

Goitik berako zirtada atara eutsan zerbait irakurten ebillan: «Polizikoen kotxean, illaren iruan, bizirik gelditu zan gizona, abade ei da. Zegaitik eroen kotxean eskuak lotuta?»

Saint Germain'go maitekeri baten frutua gogoratzen dabe... Oraingo onetan zer ete ebillan?»

Izparkari alu zikiña! urten eutsan asarre bizian

Xabier'eri.

B.at batean, izpar orren jarraian, letra txikiekin, zital eta mingarri jarraitzen eban:

«Abade langillien beste «eginkizun» goralgarri baten aurrean ete gagoz?

Aspaldi onetan euren nortasuna galduta dauken gazte onein jokabideak, goikoak kezkatuta darabiz, naastatuta, burukomiña besterik eruaten ez dautselako.

Gero ta argiago ikusten da, bear ba da ameslari eta kijotekerietan asi diran abadeak, sentzuna galdu egin dabela, ta igarri barik «langillekeriak» beste edozein mundutarren bizi-bide zikin, loi eta itxusian ondatuko dituala.

Katolikotasun garbi eta jatorrizkotik urtenda mundu barria eratu nai dabela diñoe, Kristo'ren Ebangelioko egi batzuk euren erara tajutuz eta Ebangelioan ez dauken gogo eta espirituaz kutsutuz.

Eta menpetasunera beartuta egondá be, Goikoak euren bidetik onartu ezin dabela jakinda be, euren itsutasunean jarraitzen dabe. Ta eurak uste edo nai baiño gizatasun ustelagoan sartuaz, mundua irabazi barik, munduak eurak irabazi ta mendetuten dituela ez dira konturatzen. Zoritxarrez, eurak egindako eskintza berberak aaztu, baztertu, ta irakasle lez autu zitun Eleiza toki txarrean eta barruko asarretan sartzen dabela ez dira konturatzen. Eta askotan lotsagarri eta barregarri lagatea besterik lortu ez.

Nundik ete ebillen Sain German'eko abade «ospatsu» izana, gau orretan, polizikoak lotuta eroateko?»

Azpijantzaille!

Guzurti!

Ur bedeinkatu ontzietako txis egille!

Mintsu, zoratuta lez urten eutsen berba orreik

Xabier'eri.

-Zer dabilizu?

-Aker txisati!

-Zer da, baiña?

-Nun da, nun periodiku katoliku baten burua?

-Zerbait dakar?

-Nun da egunkari katoliku baten izatea, eta legea, eta neurria, eta egia, eta bidea, ainbeste guzur, ainbeste zitalkeri, ainbeste ankerkeri, gorroto, azpikerizko izpar au egiten laga eta zabaltzeko? Eta maitekeri guzurrezkoz estalduriko ainbeste pozoi eta ozpin agertzeko? Nun?

Zoratuta lez ebillan Xabier, Matxin'ek zer itanduten eutsan be konturatzeko nortasun barik.

Beretik urtenda. Burua odolak artuta.

-Eta zetan dira egunero gotzaiñen onespenak artzen, eurei erastunak munga dabilzan egunkarietako zuzendari ultra katolikoak?

Irakurri dozu au?

-Ba. Ez naz egunkari orren zale. Lenengotan erosten neban, batzuk baiño gure tankerakoago zalakoan. Baiña eskumatarregi da.

-Nungo eskumatar?

-Petroleo usaiñik ez eta, intzentsu usaiña jaurtiten dau orrek.

-Deabruak ez dabe intzentzurik, atsa baiño, ustelaren atsa, ats zaartua!

Eta amorruez, tximurtu eta zatituta, kale ertzera jaurti eban egunkaria.

Kontuak artzen

Illuntzea ordurako, gazte talde bat, ogeiren bat, «Eguna» egunkariaren atadian egozan.

Illun, asarre, mintsu.

Iñok ez eban abade jantzirik. Kaleko jantzi oiak danak.

Ala ta be azal zuri, ibilkera berezi eta ostantzeko agerkeretan, ezagun eben eta laster igarten yakoen nortzuk ziran, edo beintzat, nortzuk izan eikezan.

Zuzendariagaitik itandu eben.

Ordu bete itxaroten.

Barrero deika. Igarri eutsela konturatuta.

Agure bat agertu zan, eta atean ikusi orduko:

-Zuzendaria ba dator edo ez?

-Zuzendariak, norbaitek deituta, urten bearra euki dau.

-Ori esateko ordubete?

-Ez jakin etorteko asmotan egoan. Baiña arin joateko deitu dautse.

-Nora?

-Ez dakit esaten nora joaten dan, urteten dabenetan.

-Eta etorriko danik, noiz etorri leikenik?

-Bein urten ezker, gaitz a gaur agertzea.

-Eta bigarren zuzendaria? A ikusi nai genduke, edo zerbait erantzun leiken norbait.

-Ordezkoa gaixorik dago.

-Eta irugarrena?

-Interviu bat egitera urtena da.

-Nor da atzo Saint Germain'go abadeatzaz idatzi ebana?

-Teletipoan etorritako zerbait?

-Ez. Ez da artutako izparra, egiña baiño, norbaitek egin eta biribildua baiño.

-Ez jakin.

-Norbait agertu daitela.

-Zuzendariak agindu dau iñola be sarrerarik ez emoteko.

-Ortaz, dakiala iges egin dau?

-Lenengoz beintzat, edonoiz esan leikiozu, koldarti bat dala. Akerrak, iges baiño len, topekadak artzen jakiten dabela.

-Orrenbeste jakingo dau.

-Ez dago itxurarik.

Geiago. Legearen izenean gatoz, zuentzat legerik ba dago beintzat, eta batez be, egunkari katolikoa zaren lez, karidadearen izenez jokatu nai dogula garbi esan.

-Zer dala ta?

Saint Germain'go abadea gazte lizuna, garbi esanda, gizon galdua izan leikela agertu eraziten dator gaur kurutzearen izenpean ataraten dan zuen egunkaria.

-Egunkari onek emoten daben barria, ondo jakiña izaten da.

-Ondo jakin eta ondo ziurtatua izaten dala uste ba dozue be, guk, emen gagozan ogei abadeak, abade gara danok-eta, zin edo juramentu egingo genduke edozeiñen aurren ori ez dala egia. Jakin dagiala garbi zuzendariak.

Eta zin ori ezin egin al izango genduke, ziurretik, beste askogaitik, zoritxarrez.

-Besterik?

-Idazteko makiña gai daukazue?

Barrura sartu zan gizona.

Ez eban alegin andirik egin, itxuraz.

Atea zabaldu, agertu ta asi zan: Makiña guztiak lanean ziarduela eta ez egoala betarik bat laga al izateko.

Xabier'ek kuartilla bat atara eban. Eta adizkidetako bateri esan utsan:

-Nik baiño baretsuago egiten dakizuz gauzak. Zerbaitetan etorri gara onera. Danok dakizue. Ez gaitue artu nai. Berbaz, bear ba da, garrazkeriz, zerbait esan eta amaitu egingo gendun. Legeari lotu gaitezcan orain. Legeak

ba daukaz tarteko eskubide batzuk. Eskubide orreik aintzat artuz eskatu daigun gure lagunaren izena eta ospea garbi geratu daitezala eta jakin dagiala egunkariak bere jokabidea maltzur eta guzurria dala.

Alaxe kuartilla bete zan:

«Abade langillien aurka diñozuzanak ez gaitu sututen. Bere egunean eta bere garaian agertuko da zein dabillen zuzen eta zein Kristo'ren bidetik zintzo ta garbien.

Ori orrela lagata, ezagutzen dogun gure lagun baten garbitasuna zitalkerez eta azpikeriz lizunduta ikusten dogu egunkari onetako izpar baten.

Ezin geinke, asarrerik bizienez, guzurra dala esan barik laga.

Legearen izenean eta legearen menpean, karidadearen indarrez nai ez ba da be, bere izena garbitu daitela eskatuten dogu, eta izpar ori garbitu dagizuela».

Ogei lagunek izenpetu eben eskabide ori.

Biamonean «Eguna» noiz kalera urtengo egon ziran, izpar a zelan konpontzen eben zai.

Itzik ez iñun.

Urrengoan, izki edo letra txiki-txikietan, iragarkien artean galduta, auxe etorran:

«Ogei gazte etorri ziran arafiegun gure etxera, zerbaiten eskabidez.

Abadeak zirala iñoen.

Eskabide guztiak aintzat artzen daki «Eguna»k, batez be zuzenak ba dira.

Ala ta be «Eguna»k lenengoz eta bein, ezin artu leiz abadetzat ezaugarri barik etozan gazteak. «Eguna»k, orain eta beti, abadegintzaren itxurak zainduten alegindu bear dau, Eleizaren beste agindu eta irakatsiak zainduten jokutzen daben lez.»

Illuntzean,
zerbait eukenetan batzen ziran lez, alkarri al eben eran
jakin erazi eta parkean batu ziran geienak.

Batzuk ezin eldu ziran, baiña euren naia beste
guztiena zala ta zerbait egin bear ba zan, eurekin
gogoratzeko, egiten zanari taldearen indarra emoteko.

Erantzunaren zitalkeria aztertu eben. Erantzun
emolearen esne txar eta garrastua gogoratu eta batez be,
aren karidade utsunearen sakontasuna aotan erabili.

-Gotzaiñari erakutsi bear jako jokaera au.

-Zetarako?

-Konturatu daitela.

-Beste munduan bizi da.

-Lagaten ba dautsagu okerrago.

-Gixajoak bere arimegaz be ezin dau eta zer egin
arek?

-Berak eskatu dagiola zuzenkata zuzendariari.

-Kakalarritan bizi da-ta!

-Lenago kanonigoekin aolkatu bear dala erantzungo
dau.

-Kanonigoak botoi gorriei bizi dira,ez kaleko gorriei.

-Katredaleko koroetan errezago lo egiten da,
lantegiatako makina ondoetan baiño.

-Erabagi bat guk artu ezik, besteak ez dabe artuko.

-Ni ez naz olgetan ibiliko.

-Orrela jarduten daben egunkariko zuzendaria,
niretzat, erriaren aurreko pekatari da. Eta erriaren aurrean
salatu bear da.

-Nik, Jaunartzerakoan aurrean ikusiko ba neu, ukatu
egingo neukio.

-Biaramonen «a divinis» zeu ziflake geldi arazita.

Jarduna jardun, beste zikinkerri bat geiago zala, ta or
gelditu ziran. Alboratutako gizonak, alperriko lanean

iñarduela mintsu konturatzen.

Ardura geiago

Polizikoak ez ziran gelditu ta baretu.

Miñez egozan Abel'en gorabera ezin ebelako garbitu. Ez eben urratsik billatzen.

Oraindik ezin eikian Abel'ek zentsu onez itz egin. Tarteka zerbait esaten eban. Ez garbi. Ez erraz sinisteko eran.

Sinisgarriak batzutan eta bestetan zorakeriak, burutasunak, amesak, kate bako jardunak erabillazan.

Galerozeta euken gaizotegiko agintariak Abel'en ondora iñor urreratzea, an gelditzeko asmoan.

Xabier eldu zan.

An egoan zaindaria. Bere aginduetan indartzeko asmoz. Bere zeregiña zintzo bete nairik.

Alegiña aletin, Xabier'ek errazoi batera ekarri eban. Ikusi beñik bein, ikusi. Abel ete zan be ikusi.

Begira egon ziran, alkarri begira... Abel'ek ez eban oraindik iñor ezagututen. Ez zan konturatzen.

Baiña ezin ukatu bera zanik.

Osagilleekin itz egin eban.

Ez egoan itxaropenik galtzeko arriskurik. Berera etorri ta osatuko zan ziurtasunez egozan.

Ertzaindegira, polizi etxera zuzendu zan Xabier.

Ziur egoan edozer izanda be Abel'en egitada ez zala iñoren lotsagarri eta kaltegarri izango.

Eragin eta eragin, eta ez eban iñun billatzen Abel lotsagarrikerietan ibiliko zanik.

Norbaiten aldezko agerketaren bat egin eikian. Bear

ba da gogorregi, sutsua zalako.

Langillien aldeko jokaldi, agerraldi edo urtekeraren bat egin eikean.

Beartsu eta premiñadunen aldeko agiri ausartsuen bat be egon eikean bitarteko.

Edo ta errukiarren ordeko eskintzaren bat.

Eskekoen bat, makalen bat, bear da gaizkalleren baten aldez urten eikean, edo ta gizonaren aldez, bakoitzaren eskubideak zaindu gurariz.

Ortik sortutako aitzakien bat agertu eikean, baiña beste ezetatik ez.

Iñun zaratarik egon ba zan; iñun matxiñadarik egon ba zan; edo gogortaderik, ori polizikoak jakin bear eben, nai ta Abel bakarrik atxiki eta bera bakarrik zigortuteko asmotan eroan.

Ortik asi eban bere jarduna.

-Xabier Etxezar naz. Abadea.

-Gaurkoak pioi antz geiago daukazue.

-Jaintziagaitik? Azaletik igarten al da mamiñik?

-Mesedez... Ez jarki. legeari albotik igestu nai dautzazue, edo legea zirikatu nairik zabiltze. Guretzat naiku da ori.

-Nik ezagutzen dot gaizotegian dagon zauritua. Lenengoz eta bein esan bearrean nago ez dala gizon lizuna, alukerietan dabillen gizona; ez dala gizon griñatsua, ez dala mutil galdua, gitxiago andretan dabillana, egunkari batek zerbait agertu eta ortatik auzi au eroan nai-arren.

-Min emon dautzue?

-Zegaitik ez dozue polizikoak olako barri zital eta guzurti ta mingarririk debekatuten?

-Ez da ainbesteko.

-Iñori zerbait ostuten dautsana ez da zigortuten? Dirua ta janari pizkat ostutea baiño lapurreta andiago ez

ete da gizonari bere izatearen nortasuna ostutea?

-Gorago jo, gorago. Ba dozuez agintariak. Zuzentasunaren barri dakienak, eurak esaten dakien lez. Eta musturra sartzen dakienak, komeni yakoenetan.

-Nik ba dakit, ziur dakit Abel ez dala orrelako. Neure izate berbera lez dakit berea.

-Ba dakizu zetan urten eben ertzaiñak gau aretako errondan? Ba dakizu zelan sartu eben gure kotxean?

-Ez daukat zetan jakin. Ez da nire ardura. Ta parkatu, esan zeinkie zetan urten eban?

-«Garbitasun» pizkat egiten.

-Garbitasun era asko dagoz. Nik ez dakit zaindarien izketarik eta modurik, igarri arren.

-Ez diarduzue beti zarataka, bazter guztiak zerbaiten gurari ta garrez dabiltzan emakume galdu eta lizunez beterik dagozala, edozein gazte nai gizoneri lotsa barik kalera urten eta eskintzen agertzen dirala-ta?

-Edozein zentzundunek urten bear leuke salketa lotsagarri orren aurka, Garbitasunagaitik, osasunagaitik, gizonkeriz, erri-maitasunez, etxetako bakearen alde.

-Ixo, ixo... Esan, esan asko egiten da. Ta... gitxien uste diranak ikusten dira bazterretan maitekerietan. Gure fitxeroak agertzerik balitz...

Guk, olakoetan, bildurrez eta kezkaz urteten dogu, agindu dabena bera billatuko ez ete dogun.

-Argalkeri larregi, ustez, zuen inguruan.

-Nok esan leike Abel berbera, zuk diñozun lez abade izanarren, ez ebillala orretan?

-Zamia jokatuko neuke.

-Zegaitik ete ekarren ba kotxean, ain zuzen be orretara urten eban gure kotxean?

-Abadegintza ipiniko neuke, ta bizia baiño maiteago dot, orretan ebillala ez dabela keixatu.

-Argibide barik, garbitasun barik, lenengotan beintzat, ezpai edo dudan jartea ez al da zillegi?

-Niretzat ez. Jakin nai ze bidetan atara zan kotxea?

-Zetarako?

-Gertau lei zeatzasun batzuk agertzeko eta argitzeko sakada andirik ez egotea.

-Oraingoz gure arteko eskutua da.

-Zetatik jakin dozue gizon ori Abel Dongaitz zala, oraindik garbi itz egiteko almenik ez ba dau eta garbitasunik aldian ez ba erabillan?

-Zelan dakizu garbitasunik ez eroiala aldian?

-Bereak neuk daukadazalako.

-Erbi txakur zarie abadeak!

-Geiago oraindik.

-Ba dakizue Abel'ek beste edozein abade langilleren antzera, norbere burua ta zeregiña langille artean eskutuan erabiltearren, beste karnet bat euki eikeanik?

-Zelan dakizu ori?

Zelan ausartuten zara orrelako bat esatera?

-Nik neuk be alaxe darabillazalako.

-Esana agertzeko eskatuko ba neu?

-Eskatu bearrik ez dago. Emen nireak. Nireak eta beste nirenak.

-Legearen aurkako da au.

-Legearen aurkako da gizonari bere duintsuna eta azkatasuna ez ezagutzea. Baiña sarri gertaten dan gauza da. Origaitik, guri abadeoi lantegian lana emoteko, nunbaitetik atara bear izaten doguz orretarako agiriak.

-Nun daukazuz Abel'enak?

-Sena ibaian, nunbaiten.

-Zelan dakizu?

-Zueri polizikoeri lez elduten jakuz, abadeai, kontzientziak zirikatzen ditun barru estuak.

-«Kakoen» artean zabiltz?

-«Kakoak» be gizon dira. Ba dakie iñoiz barruan darabilen onaren txingarra berotu ta agertzen. Ba dakie iñoiz gizontasuna erakusten, ta «kantatu» eragin barik erakutsi be.

-Adoretsu zara. Ekatzu bosteko ori.

-Nik danen bostekoak estutu nai neukez.

-Ala ta be, ta zure esanak egi izanda be, oraindik ez nazu nire eritzietatik ziur aldatu.

-Dan dana argi esan izanarren, abadeak be gizonak dira, aragi eta odolezko gizonak. Ta badakie gizon bero agertzen. beste edozein gizon lez. Gizon zirala egin ziran abade eta artu eben ortarako duintasuna, gizontasunik laga barik.

-Bai, baiña soiñaren gaiñean burua eta sentzuna ipini nairik.

Ezin etsi

Pozik ebillan poliziko nagusia kezkatuten eban autua argi bidean agertzen ikusi ondoren.

Bestera, ez zan nasai eta ezpai barik gelditzen Xabier'ek agertu nai eban jaubetasun soillagaz.

Barrurago sartu nai eban.

Eleiz agintariekana jo eban zer egon leikean sakondu guraz... ta eritxiren bat igarri nairik.

Elizako gora-beretan mutu agertu ziran goietan. Orrek ixilpeko ziran. Baiña kalekoetan, gizonkerietan, eskuak garbitu zituen. Ez eben kaleko agintariekin ezelako burukomiñik. Ez eben nai eurekin tratu estu eta gogorrik.

Erriko agintariei eskutuak eta burukomiñak sortu

ordez, eurei ederkatura egin eta azaleko alkartasun on baten jokatzeko gogo biziagoa egoan goietan.

Eskubideak eskubide, bakoitzak ibili eta erantzun egiala kaleko gora-beretan.

Esku garbi laga eutsen ertzaiñei Abel'en kaleko autuan egon eikean auzian. Azkatasun osoa iñok ez ekian tokian eta ziurtazenez ziran orduetan egin eikenaren okerkeriren bat sits eta bits aztertzeke. Ezer sakonik eta lotsagarririk ba egoan, ardura artuko eben, eta komeni ba zan eleiz baimenakin jokatu be bai, baimenak ainbat lasterren berari galdu eragin edo ezerezean bere alak lagata.

Egia esan, goietan zurbil ebiltzan abade langillien jokeragaz eta euren nastea besteren batek etetea gurago eben.

Kontzientziko gai eta tratutzat agertu eta erabilten eben abade langilleak euren jokabidea.

Kontzientziaren neurriak nun dagozan eta bere mugak nun batzen diran, bateko ta bestekoak eritzi ezbaridiñeko agertzen dira sarri.

Origaitik ba egozan goietan «zorakerizko» langintza ori, apostoladutza aizetsu ori eroan ezifiik, kaleko naste eta zabarkerietan iñor baiño lenago lizundu eta okertuko ziralakoan dardaraz ebiltzanak. Gero eleiza berbera tatarrez eroango ebela euren ondamendiaren naastean esan eta sinistuten ebenak.

Ba ekian ori Xabier'ek.

Iñok baiño ariñago argia egiteko garrez, erreta gelditu zan poliziko kotxeak ze bide eroan eban jakin ordurako, bazter guztiak inguratzen asi zan zurkulorik txikienak arakatzen.

Ibili ta ibili, andik igaroeran, laster gogoratu zan Abel'ek jaten ekian tokiaren izenagaz.

Laster sartu zan bertan.

-Abel'en adizkide bat naz.

-Zein Abel?

-Ez al zan egoten emen, iñoiz, afalduten, berrogei urte inguruko gazte bat, geienetan urdiñez jantzita, narruzko txamarra bat soiñean, ule mots eta betule baltz luze duna?

-Bai, bai...

-Ez da agertu egunotan?

-Egunak dira emendixek atara ebela polizikoak.

-Zetan egoan?

-Bakarrik.

-Bakar-bakarrik?

-Oi eban lez.

Bazterreko mai aretan egoan; erdi negarrez igarri gendun.

Egun aretan, ain zuzen be, bestetan baiño luzeago egon zan. Naigaberen bat eukala igarri be bai.

-Benetan be bakarrik egoan?

-Ziur gagoz, bai.

-Aurreragoko egunen baten ez zan iñor beragaz egon?

-Ez, ziur gagoz. Emen ez gendun iñor ezagutu.

Polizikoak sartu ziran...

-Bere billa?

-Gure ustean ez.

Geiagotan be sartzan dira. Ba dakigu, inguru au, gabetan, gau txorien ibil toki dala. Guk ez dautsegu sarrerarik emoten. Ba dakie. Ez dira sartzan emen.

-Zegaitik eroan eben?

-Bere patrikaran eukazan agiri guztiak agertu eutsezan.

-Ta?

-Konturatu giñan karnet bi eukazala. Besteren batena bear ba da.

-Legezkoak?

-Guk ez dakigu. Bera be konturatu zan biak agertu eutsezala. Baiña berandu. Ortik artu eutsen susmoren bat. Bere burua garbitu nai izan eban. Guk be lagundu geuntsan, ezagun gendula adieraziz, ez zala egun aretako jatuna, askotakoa baiño. Baiña txorien bat esku artean eukelakoan poztu ziran.

Berak, arduragabetasunez, irribarrezka, bere izatea laster agertuko eban ziurtasunez, nai-ez andi barik jarraitu eutsen.

-Lagunduko zeustake polizira?

-Premiña egon ezkeru, gogotik.

Guk ez dakigu nor zan. Ezin jakin giñei jatera etorten diranak nortzuk diran. Ez dago legerik orretarako.

-Zelan atara eben, bai, ori ba dakigu eta esateko ez dogu ezelako eragozpenik.

-Naiku da orixe.

Alkar ondo artuz, ostatuko jaunak neskameari deitu eta Xabier'eri laguntzen urten eban.

Orrelaxe amaitu zan laster aize lizunez puztuten eioan itxura bako jazoera bakan a, aize gangar eta lizunetan ekaitz biurtzeko zorian sartuta egoan gertaera a.

Agindu zorrotza

Laster emon eutsan gaixotegian urteteko baimena.

Oraindik errenka ebillan.

Barruko izurrak garbitu barik. Zaurien eten mintsuz.

Bere parrokira joan zan.

Sartzen ikusiagaz batera, berbaro garratz, asarre eta dardaratsuan ekin eutsan erretoreak.

Ba eukan orrelako agur baten itxaropena, baiña ebagita, koldartuta, atzeratuta laga eban Abel.

Sakristauak, erretoreari putsak berotu eta txinpartak atara eragiteko ziriz, aizetu egiten eban.

-Bai, bai, ba dabil, ba dabil zer esan, barriketa eta zarata ugari, zorioneko abade dantzari oneik dirala-ta.

Eta ez zer esan gozuak, itxurabakuak baiño.

-Geldi, ixo zu zeure tokian.

-Orrek, itxuraz, eta arpegiak guzurrik esaten ez ba dautsa, beorrek sekula egin ez dabena egin dau.

-Zer da, zer da nik egin ez dodana?

-Kristo'ren agindua bete.

-Norbere erako aginduak?

-Bai? Norbere erakuak? Ipini, ipini arpegia.

-Zetan?

-Iñok iñoiz masallekoren bat emoten ba dautzu... Nik ez dakidalakoan Ebangeliorik?

Esku zabalez mai gaiñean bete-betea jo ta ebagi eban erretoreak sakristauaren esan bear zirikalaria.

-Zoaz, zoaz zu zeure zeregiñetara. Kontuz, kandelak biztutean Yon Done Petri'ri giltzak apurtu barik. Eta gure Bartolome'n atzamarrik ez erre.

Ta gero, ba dakizu, eskea. Eta potua, eleizako potua leenago aurrean erakutsi ta ipini, zure esku zabal zikiña baiño. Entzun?

-Nik diska bat ipiniko neuke eleiztarrak be jakin dagien eskea zelan egin bear dan. Obe ogerlekoak botaten erakutsi, kaletan eskaz dagozan amar zentimokoak eleizarako ezin batuta ekarten alegindu eragin barik.

-Ixo, ixo!

-Ta zuk Abel ba dakizu, aaztu ez ba yatzu, gaurko

egunez itzaldia egiten dala. Kontuz itzekin, iñori burukomiñik ekarri barik. Gogoratu munduan langilleak bakarrik ez dirala kristiñauak. Langilleak bakarrik ez dirala bizi eleizan. Egiak esan bear dira komeni diranetan eta komeni lez. Ez edonoiz.

Egia egi izango da, baiña bakea bake, nai ta ustel.

-Zelan aldeztu lei bake ustelik?

-Niri ez ekarri ez asarrerik ez burukomiñik.

Damutu egin zan Abel esandako itaun bakarra egiteagaz be. Ixil egoteagaz geiago irabaziko ebalakoturatu zan.

Erdi tentel, gero ta beroago, bere kutxan ezer ete egoan ikustera joan zan.

Iru lau karta eukazan. Ez eutsen azaletik garrantzi andirik emon. Bateri bai, obispadutzakoa zala igarri ebalako.

Zabaldu eban arretaz.

«Gotzain jaunak parroki bat izentatu dautzu: Munaegi.

Zortzi egun barru sartu bearko zara bertan eta bertako ardura artu, ortarako agiria bialduz.»

Ez eban itzik egin.

Beste kartak zabaldu barik gorde zitun.

Lengoa barrero irakurri eban.

Ez eban iñori erakutsi nai izan.

^

Ezelako agerpiderik eta erakutsirik emon barik, burua makurtu, oldozkor jarri ta antxe geratu zan ixil.

Miñez?

Borondatez?

Keskaz?

Barruko irakifia gaindu eziñez?

Eroapenez?

Naigaberik andiena be arduragetasunez itxuratzen ekiana zan Abel. Ortara egiña egoan.

Berari ezer esan barik erabagi a zelan etorri eikean pentsaten jarri zan.

Ittotasuna igarri eban eztarrian.

Ulerik ez miñean

Ez eutsan ezer esan erretore gaixoari.

Arek aginduta lez, itzaldia egiteko zan.

Karta orrek gaia emon eutsan.

Meza bitartean, aldare aurrera igo zan. Beti lez, apal eta otsan, erriari begira jarri.

Berrogei lagun ez ziran eleizan batuta egongo, nai ta jai entzutetsu ta jakiña ospatu.

Begira egoan.

Betikoak. Betiko arpegiak. Ez umillak. Geienak liburuak zabalik, atsegin ez eben abadeari destain egiteagaitik.

Txaloak jo, konturatu eitezan, eta irribarrezka asi zan: Nik dakidan erri baten, eta nik dakidan abade batek, zuek orain lez, liburuak zabaldu ta bere entzuleak ikustean, esaten daki: abade santuak berbetan dagoenetan, liburuen esanak sobra dagoz.

Nik, danok ondo dakizue, ez naz santua. Baiña egiak esateko agindua daukat eta ba dakizue orretan ez nazela mutu.

Egi gordiñak. Esan bear diranak. Liburu orreik bigunkeriz eta eroapenez esango dautsuezanak bezin gordiñak esateko eskubidea daukat, geiago ez ba dira be. Eleizan egi gordin asko erakutsi bearrean gara, zoritxarrez, asko dakigula uste eta ezer ez dakigun denpora oneitan.

(Erretorea, bere jarlekuan, ezin egonda, eztulka, eztul zatarrak egiten asi zan).

Ez dautzuet itz egingo gaur, ala uste ba dozue be,

langillien alde. Ez bildurtu. Ez nua alperriko sermoirik egiten. Zagozanei dagokitzuena egiten aleginduko naz.

Areik, langilleak, garretan dagoz, irakin nairik. Zuek bitsetan, jaboï bitsa lez bertan bera, puzpulotxoak plist eta plaust bota, eten, urtu eta amataten.

Arein eleiza barriztuko da argi barriz. Zuen eleiza illundu egingo da adore barik.

Itxartu zaitetze. Argitu begiak. Eta batez be jaso biotzak, zabaldu biotz estuak.

Ez daigun ames Eleiza txikirik, norberekorrik. Ez zaitetze bizi diruaren autsez begiak lausotuta, iñor ikusi eziñez.

Nik ez dakit gaur ze santu dan. Langillien eguna. Zuentzat bardin da Yosepe langillea, Yosepe arotza edo ta Judas merkataria. Bardin da Balendin nai Antolin.

(Erretoreak egin eban eztulak dardaraka laga eban eleiza).

Danak santu dira norberekorrik izan ez ziralako, gizartearentzakoak baiño, Kristotarrak baiño. Eta Eleizaren egiari bildur barik eta oparo biotzak zabaldu eutsezalako.

Orrelaxe izan eta biziten alegin zaitetze: biotz zabal, auzokoaren lagun, premifiadunen maitale.

Poz andi bat emon nai dautzuet orain.

Ba nua.

Bialdu egiten nabe. Edo bear bada bialdu egiten nauzue. Aspalditik zebizen orren billa. Parkatuten dautzuet...

Eta sinistu egidazue, zuek niri inpernuren baten bizarrak erretearren iñoiz otoi egin ba dozue be, eta ziur nago orrelako otoitzak parroki onetan egiñak zariela, jakin nik maite zaituedala, ta nire lanak eta izerdiak eta nekeak zuekaitik be ezkintzen dodazala, benetan diñotsuet, alako baten be Jaunaren argira urteten jakin dagizuen.

Eskerrak emoten dautzuedaz gaixo eta txarto ibili naizen egun oneitan nigaz gogoratu ez zarielako.

Ortik ikusi eta ikasi dot gizonaren ezerestasuna zenbatekoa dan; or konturatu naz egunetik egunera gizonengan zinistuteko baiño Jaunarengan biziten ikasteko premiña geiago dogula.

Koturatu zaiteze zueri be bardin jazo leiketzuela, ta ikasi egizue biziten.

Gogoan euki Jaunagaz bizitea ez dala norberentzako bakarrik bizitea.

Kristo'k ez eban esan ondo bizi zaiteze. Kristo'k esan ebana au da: Alkar maite zaiteze. Alkar. Ez zuek bakarrik. Zuek eta ikusi ezin dozuezan anai eta gizaseme guztiak baiño.

Eleiza ez da egoteko, zabaltzeko baiño. Eleiza ez da eroapen illuna, berbizkunde argia baiño, esperantza barria, eteten ez dan itxaropen zuria baiño.

Eleiza bizia da, Kristo'ren odolaren garra, Espiritu Santuaren sua.

Zabaldu zaiteze. Ezagutu egizuez anai guztiak. Ta ez lotsatu, ta ez urrundu, ta ez igesi, anai langillietatik, egunen baten, eurak, Kristogandik, urrun zuen erruz bizi ondoren, benetako sua dagon inpernutara ten egin eta eroan ez zaitekezan. Alaxe.

Itzaldia amaitu ebanean, arnasa zabala bota eban erretoreak.

Bildur egoan, zerbait esango ebalakoan, langillien aldezko «mitin»en bat egingo ebalakoan.

Nasaitu zan.

Eta ingurukoak osorik eta betean entzun eutsen autortzetan, azken aldean, esaten dan itza: Vade in pace.

Zoaz bakean.

Gogoa jasoten

Ba dakizu nun dagon Munaegi? itandu eutsan sakristauari.

-Munaegi'ra bialdu zaitue? Je, je!

-Zer ba?

-Munaegi...

An ba dira langilleak. Ziur egon. Erleak eta satorrak. Baba!

-Burlazka zabiltz?

-Ba, ba! Ba dira bai langilleak. Zortzi auntz eta antxume bi. Bizardun emakume bi, iru agure ta lau atso.

-Zer diñozu?

-Esana. Ariña ez dana kirten samarra; ule ta bizar aiña bekaizkeri. Ba ba..! Ara duana, obeto esanda, ara bialtzen daben abadea be...

-Lur onetako inpernua orduan?

-Gaiztoago ez ba da...

-Jesukristo'k lez inpernutik igaro bearko dogu, orrela ba da.

-Burua artuta zabiltz?

-Zegaitik?

-Kristo inpernura? Erretore kaskajo orrek jakingo ba leu...

-Berrogetamar urte sakristau daroazuz, eta ez dakizu Kristo inpernuetara jatsi zanik?

-Benetan ez dozu esango ori.

-Kredorik ba dakizu?

-Latiñez be bai. Frantsezez baiño obeto.

-Ta? Ez dozu esaten il ondoren inpernuetara jatsi zala?
 -Esan bai, esan, alaxe da. Baiña izan?
 -E?
 -Nok siñistuko dau ba ori?
 -Akabo orretara zure kredoa. orretan gagoz?
 -Munaegi'tik zatozanean berba egingo dogu. Andik etorkeran, esaten dabenez, inpernuko edo linboko barri be jakingo dozu-ta.
 -Gaurko munduan egon lei orrelako erririk?
 -Ara, ara emen, liburu zar onetan, argitasun apur bat.
 -Noizkoa da?
 -Batek ba daki.
 -Norena da?
 -Ni sakristau sartu orduko emen egoan.
 Ta irakurri eta berak gaiñentzakoak geitu eta koipetuaz:
 Munaegi.
 Sarrerako parrokia.
 Ja, ja! Urteteko obeago izango da.
 Parrokiaren izena: Donesteban.
 Urteko jaia: Abenduaren 26'n.
 Antxumeajateko sasoi egoikia, ez?
 -Besterik ez dau esaten?
 -Ez dauka abade etxerik.
 -Bearrik be ez.
 -Badauka oar bat be. Ikus: Negutean edurpean geratzen da, iñorako urteera barik.
 Bai, an eztula ta doministiku franko egingo dala-ta nago.
 Egon... gogoratzen nago. Ba dakizu nor egon zan an?
 -Zein?
 -Emen pardel bizi eta kantaria izan be ta... on Martin.
 -Zein Martin?

-Ez dakizu? Ez zendun ezagutu?

-Oker ez ba nago illebeterako zigortuta bialdu eben.

-Zegaitik?

-Ez jakin.

Beregandik sekula iñok ez eban jakin zelako tokia zan. Aitatu be ez arek. Alaz eta, iñok emen, gangarkeri, edo zabarkeri, edo astakerien bat egitean, berak arpegira jaurtiten ekian: Munaegi'ko zara ala?

Ortik igarri, ortik zelako gizatasuna eta zelako «zibilizasiñoia» egongo dan an.

-Emongo dautzut aukera bat zelakoak diran ezagutzeko. Pozik atan be. Nai dozu etorri?

-Nora?

-Munaegi'ra.

-Olakoak niretzat?

-Ikusi da ezagutu egingo zenduke. Ta ez jakin zuretzat toki eta bizi biderik onena bertan billatuko ete zenduken.

-Iño! Ni, erretore gaizto eta zital oneri musturrak ipintearren, edonorako oiñak jasoteko gertu nago. Bai bein.

-Erabagi ba.

-Beste erri bat ba litz... Baiña Munaegi... ain zuzen be Munaegi... ta erretore barri bategaz...

-A! Ori be bai?

-Obe zar eta txarra izanda be ezaguna, barri ez ezaguna baiño.

-Ez nazu ezagutzen?

-Morroi bai, morroi, nire antzera. Baiña... Nagusi biurtzen diran morroi eta menpekoak ez al dira ba gertaten oker eta biurrienak?

-Nik kandaurik ez dausat ipiniko arimentzako diruaren kutxari.

-Nok emon edo nok bota eta zer bota egongo da an, ala?

-Ori be?

-Gaiñera, egia esan, txokolate antzeko arpegi baltz eta illun orregaz, ikusi be naiko zaitue egin?

-Geiagorik ez?

-Len zeozelako ba dira... Mundu guztiagaz burrukan eginda bialdu zaituela pentsatuko dabe.

-Bildur geiago artuko dauste.

-Ukabillen bildurra? Orretan guaz? Eta ortik maitasuna erakusten? Erretoretzako ardura emon ordurako, orretan? Ia gorozti eta irizillekin biguntzen zaituen! Orreik basotarrok...

Zoaz baketan.

Nik, premiña ba da, il kanpaia duban joko dautzut.

Ondo ibili.

Obispoa datorrenean itanduko dautsat Munaegi'ko abade gartsua zelan dabillen andik.

Gertaeretan

Denpora luzea eroian Abel'en sotanak maleta barruan egokitasun andi barik sartuta.

Zimurra ta litsa ba eukan atara ebanean.

Txukuna zan jazten, apaiña, dotore naikoa, garbi zalea. Baiña oraingoan ardura barik jantzi, eskuratu zitun liburu batzuk, banaka batzuk, sartu; bere amak meza barrirako eskiñi eutsan kaliza gorde, ta iñori agur egin barik urten zan.

Atadira jatxi ta atzerakada lakoa egin eban.

Atadian, parroko zarra billatu eban.

Igarri eta konturatu zan bere zain eukala.

Erretorea bera asi yakon:

-Agurrik be ez dogu merezi?

-Egunerokorik emoten al geuntsan alkarri?

-Zuek gazteok ez dozue ezagutzen gure problemarik.

-Zarrok be ez dozue alegiñik egiten gazteok ezagutu nairik.

-Zure joeraz minduta nago.

-Ni be ez nua pozik.

-Ez uste nik eskatu dodanik.

-Ez dot orrelakorik pentsatu.

Baiña, ezelako argitasun eskabide barik, bat-bateko goiko ordena onek, norbait ba dabillala tartean pentsatu eragiten dau.

-Ba dakizu, zuek esaten dozuen lez, ollar jokoan ibilita be, nik sekula ez dodala iñor salatu, eta sekula goietan ez dodala ezelako agerpiderik egin.

Nik esan bear dodana aurrez aurre esaten dakit.

-Zuen atso-aguren kamarillan bai.

-Salatu sekula be ez.

-Ba dakie beintzat eritziz topeka ibili izan gareala.

-Ori leike. Askotan berez esan eta egiten doguna be txartzat artzen da. Bakoitzaren nortasuna gaitz ezagutzen da.

-Leike. Zu be konturatu bear zara, zure parrokia ogei milla laguneko dala lurralde.

Gozoz... domeketako mezak kenduta, zer?

Ogei atso ta amar agura.

-Euren eskubideak daukez.

-Artuta daukez, bai. Oituraz. Bear ba da bizitzako asperkeriz. Luzea da eurentzat bizitza eta or billatzen dabe epeltasun pizkat. Eguna eteteko era bat. Arrimua. Baiña ortiz ez dator gizartearen azkatasunik.

Ortik ez dator illun eta kezketan eta miserian bizi diranentzako argitasunik.

-Dana dala, eukiko dogu ortaz jarduteko txanda.

-Ez dakit noiz.

-Alkar artean gauza bat itandu bear dautsut.

-Sekula ez naz ukatu erantzutera.

-Ba dakit guzurra izango dala. Gure artekoak aparte, ezagutzen zaitut. Zure jokabidea be, onartu ezarren, ezagutzen dot. Ba dakit abadegintza, zeure erara, baiña zintzotasunez artuta daukizula.

-Esan, zer?

-Nik zure izena garbi laga nai dot parrokian.

-Zure kontzientziko gauza da ori.

-Alaxe da.

-Ez nekien, baiña esan dauste, oraintsu polizikoak detenidu zinduela.

-Ez dot ukatuko.

-Entzute txarreko kale ta jatetxean zebiltzala atxilotu zinduezala.

-Kale ta inguruaren barri ez dakit. Ni joaten nitzan eta artu ninduen jatetxeagaitik iñok ezer esan ez daikela, ba dakit. Ziur dakit.

-Eta len egon ziñan parrokian billatu zenduen umea... zugaz zer ikusia daukana dala.

-Nik baiño obeto ezagutzen dozuz Ebangelioko gertaera asko. Eta ba dakizu Kristo'ri be Madalenaren begiraka samurrak arpegira jaurtiten eutsezala.

Ez erabili surik. Ez geiago tenik txikotari. Argi esango dautzut. Abadegintzan egindako eskintzak, oraiñarte beintzat, danak zaindu dodaz. Eta ba dakizu bat, soiñaren zintzotasuna dala.

-Orretan ezpairik ez neukan.

-Baiña itandu egin dozu.

-Salakuntzak etorri diralako.

-Eta esan dautzue zegaitik lotuta eroan ninduen?

-Orrelako gauzak danak naastuta.

-Jakin: Karnet bi neukazan. Nirea bata. Bestea...
abadegintzarik ez agertzearren, gure lana errezago egitearren, lantegietan sartzeko ataraten dogun karneta.

Biak erakutsi neutsezan etorri ziran ertzaiñei, eta areik be batzun antzeko burugogor eta goikoen serbitsari itsu diran lez, ezelako begirapen barik, barrura sartu ninduen, komisarian gauzak argitzeko asmotan. Eta gero, bideko ezbearra, gauzak illuntzeko.

-Eskerrak zure zirikada edo eztenkaden ordez.

Baifia ba dakit azalekoak dirana. Nire biurrikeri asko izan diran lez.

Abel, andik etorten zareanean, ba dakizu nun daukazun etxea. Etorri zaite nai dozunean. Topeka ibiliko gara, baiña odolik ez dogu atarako.

Besarkada bat.

Munaegi'ko ezaupidean

Erretorearen agurrak samurtu eban Abel.

Barruko poza, itxaroten ez eban nasaitasuna emon eutsan.

Autobusen geltokira eldu zan.

Ba egozan kotxe apain, bizkorrak. Dotore eta aberatsak. Bai narraz itxurakoak be.

Kotxeetatik igarri eikean zelako bide eta tokiak ikusteko ziran eta nora joateko.

Larrondo'rakoa ez zan arin ariña . Zaar, itxusi, kolore galdu eta jausi... bide zatarretan nai ta ez ibilteko tarrantz aztun, tripaduna eta ugartua zan.

Txartela eskatzera urreratu zan.

Munaegi'rako joan utsa.

Txartel emoten egoan andereñuak, irribarrez:

-Oi jauna, inguru areitakoa ez da ziurretik.

-Zegaitik?

-Angoa ba litz gogoratuko leuke esaera: Munaegi'ra mando gaiñean, astiz eta umore onean.

-Eskerrak. Ibiliagaz ikasten da.

-Munaegi'n ez ei dago ze ikusi andirik.

-Edo geiegi.

-Ezagutzen iñor an?

-Dakidala ez.

-Ez orixe. Daukan entzute eta fama izanak be ba dira... benetako ba dira...

Lenengoz ba dua ez da barriro biurtuko.

-Uririk eta kalerik ikusten ez daben lez, guztiz begitankor eta sarratuak ei dira.

-Azaletik ez da ikusten barrurik.

-Gure amonaren amona angoa ei zan.

-Ta amonaren ama?

-Familiko goraberak jakin nai?

-Ni Munaegi'rako txartela eskatzen asi naz. Andik gorakoa zuretik asi da.

-Tori ba, Larrondo'rako.

-Eta Munaegi?

-Esan dauksat eta konturatzeko eran: Munaegi'ra mando gaiñean, astiz eta umore onean.

Geiago barik takillako kristaltxoa eratsiaz eten eban jarduna neskatilla txotxin arek.

Txartelari begiratu, izentatzen eban dirua kristal

artetik sartu ta irribarrezkako agurra egin eutsan Abel'ek.

Munaegi'ko bidean

Atze aldean geratu zan Abel kotxean.

Zerbait ikusi eta ezagutzeko asmotan.

Lenengotan erdi utsik urten eban kotxeak. Gerotxuago, bideko auzune txikietan iñor geratu ez eta banaka batzuk sartu egin ziran.

Lurgiñak. Menditarrak. Atxur eta otzara, aizkora ta ardau-zatoa, makilla luze ta manta zarrak lepuan.

Egunetako bizarra geienak; aste betekoa be bai norbaitek, geiagotakoa ez ba zan be.

Ez ziran barritxu eta kontu esale. Berba neurtu eta zorrotzak erabillezan.

Laster igarten eben sartzen ziranak ez ezagunen bat etorrela atzean.

Igarrita be, euren artean alkarri ez eutsen arek kezka eta jakin miñik agertzen.

Zenbat eta aurrerago, asi ziran banakak urteten. Baiña urten ala beti egoan norbait sartzeko.

Toki utsik ez egoan, bat edo beste baño; alaz eta nasaitasun eta patxadaz joateko modu andirik be ez.

Jarrilekuak etenda, plastikuzko gaiñeko azalak dindilizka, burdiñazko barruko alanbre eta eutsigarriak euren punta zorrotzak erakusten eta konturatzen ez zana urratzen.

Bide kurutze baten, agure makur batek urten bear eban.

-Ba! Eldu gara ta ondo jarraitu.

Ori esan eta jatxiten asiaz batera, tarratada luzea egin

yakon praketan.

-Meka...txi!, bota eban zoli-zoli.

Bere berba ebagiteko ta amaitzeko eran igarri eban Abel'ek, gizon arek barru ona edo lotsa zuzena gordeten ekiala.

Bera nun egoan eta zein ete zan ikusiaz, berezko lotsa eta begirapenez, ziur.

Baiña tartean etorran batek, zirikalari ekin eutsan:

-Errepika kaskarra gaur, errepika motza. Kordia eten? Ala erroi balzak igarri inguruan?

Iñok ez eban atzera begiratu. Ala ta be euren arteko irribarre bigun eta destaintsua oartu eban Abel'ek.

Aguratxoa bere tarratadeari begira jatxi zan, asarre, begiak urten bearrez.

Lodienetako batek, nasai, patxadaz eta zirika itz egiñaz:

-Otsondo'ko tabernariak batuko dau gaur ze esan ugari zure bizarrak aitatuaz. Esku liraiñak daukaz arek josteko. Ez bildurtu!

Danak barre egin eben ganora barik.

Ateari bultzada siku bat emonaz urten eban agureak.

Or eten zan jarduna.

Tabaku ketzan aurrera jarraitzen asi zan kotxea.

Mendiko aizea gero ta me, garbi ta fiñago igarten zan unetan eta kotxearen tartetatik sartzen.

Alde guztietara begira, ikusgarrien alaitasunak barruko kezkek aztu eragin eutsezan Abel'eri.

Bostetan eldu zan Larrondo'ra. Ordu erdiko atzerakuntzaz. Beste bat eta bera bakarrik eldu ziran amaira.

-Ze bide daukat emendik Munaegi'rako?

-Ankak eta umoreak, bakarrik joateko, erantzun eban txoperrak.

An, goratxoago dan bidea artu ta jo aurrera. Ezkerrera beti. Lenengo billatzen dan aterpea, etxe txiki pillotxoa, a izango da Munaegi.

-Agur ta erdi.

-Oso be bai ara duanak.

-Zer ba?

-An gelditzen dana bertan ilten ei da.

-Auzo errietako olgetako esaera izango da.

-Edo ta iges egiten dabena, illunetan ibili.

-Ain erri...

-Esan, esan. Urteten dabena esan. Lenagokoak txarragoak esanak eukiko ditue-ta.

-Bear ba da jakin ba lebe abade barria datorrela, mutiltxoan bat bialduko eben laguntzera.

-Mutillak an?

-Familiarik ez al dago?

-Gazterik ez beintzat.

-Nire adiñekorik?

-Bai zera! Ezta ezta... urreragokorik be.

-Ortaz Munaegi'n zer dago?

-Mendi artea galanta.

-Baiña bizi lagunetan?

-Azurak eta buruak gogorak an.

-Zarren bizilekuen bat?

-Arek beste mundu batekoak dira, jauna!

Orrelako esan eta jakiñez asi zan Abel bidean.

Esperantzarik ezak estutzen eta arantzaz beteten eban bidean.

Alaz eta erretore zarraren besarkada gogoratzen eban oraindik. Eta batak eta besteak, malkoak atara eragin.

Denpora galduak?

Munaegi'ko lenengo illabetea, nik gogoratu bearrik ez daukat. Eleberri (nobela) onen asieran sartu da, ain zuzen lenengo il onetako egunkaria da.

Beste iñok baiño obeto bere biotzak idatzi eragin eutsan egunerokoa.

Bera irakurri ondoren, beragaitik asi gara Abel'en bizitza ezagutzen.

Eta jarraituko dogu beste illabeteko lana ikusten.

Paris'en barriro

Lenengo illabete etengarria igaro ondoren,

Munaegi'tik urten eban burua makur.

Larrondo'n kotxera igo, kezka izur.

Sotana kendu eban ta boltsa baten sartu,

Paris'era jo, kotxean, itxaropen urratuz.

Kiriotsu ebillan, gogo eta soiña zotinka,

ikusi be ez ondo, begi-niniak diz-dizka.

Lengo etxera joaterik ez eban nai izan,

ta ez ekian nun egin lo.

Arlotekin gogoratu zan, ikaslekin, ertilariekin, gau-txoriekin, droga artzaille ta droga-saltzailleekin...

Ta Sena ibaiaren ertzen baten lo egiteko aukera eukiko ebala ta aren ibarretara urreratu zan.

Ikasbide bat geiago, esperientzi bat geiago.

Munaegi'ko bakartade itzal eta gau illunetatik Paris zaratatsu ta argitsu onetara ba egoan aldia.

Ibai ondoan, danetako irudiak ikusten zitun. Gazte taldeak, soinu ta guzti batzuk; bizar luzedun agure bakarrak; emakume jausiak be bai; ordi naskagarriak;

benetako pobre zintzoak...

Geienak ba eukezan euren manta zarrak edo bestelako estalgarriak gau ozkirria epeltzeko.

Bera, Abel, nekatuegi egoan lo egin al izateko.

Zenbat burutapen!

Munaegi'tik iges egite au, sotana betiko lagatekotan egin ete eban?

Lenengoz bururatu yakon ori.

Goikoak ez eutsen baketan lagako.

Berak zer erantzun?

Ta ze jokabide artu?

Goiz lena eldu zan loak artu orduko.

Paris dan ederra!

Baiña Sena'ren ibarretan lo egiteko, jaio egin bear orretarako!

Sena'ren egaletan

Goizean jagi eta bere sakua gertuten asi zanean, albokoak itandu eutsan:

-Ba zoaz?

-Ez dakit.

-Barrero gabea bertara?

-Leike.

-Orrela dala ez eroan sakurik.

-Nire izatea bertan daukat.

-Ez bildurtu.

-Zegaitik ez?

-Pobre batek ez dauza ezer kentzen beste bateri. Ez eta tokirik be, ezaugarria laga ezkeru.

-Ziur zagoz?

-Sei illabete daroadaz Paris'en. Ikasle naz.

-Zer ikasten dozu?

-Psikologia.

Toki ederra au ikasbideak artzeko.

-Benetan, ezaupide ona dago emen.

-Illero bialtzen dauste dirua.

Amabostarako eralgi eta iruntsiten dot. Gaztea naz ba,
ta jakiña.

-Zenbat urte?

-Berrogei.

-Esan nai neban gazte naizela bizitzarako. Paris'eko
gauak atsegin yataz.

Ezin ukatu diru asko bear danik ortarako.

-Eta Aurrezki Kutxa emen.

-Bai. Amabost ostatuan eta beste amabost egun
ogitarteko ta urez eta aterpe nekez.

Oituta nago, egiña, bizi modu onetara. Ta ze
demoniño! Ez da txarra. Okerrago zan eta latzago gerran
ibiltea. Ibiltea edo erabiltea, ni-neuk, neurez, sekula
oinkada batik ez neban emongo-ta gerra kontu orretan.

-Nuntarra zara?

-Gernikarra.

-Ikusi zendun erreta?

-Picasso'k baiño kolore obez.

-E?

-Ni beintzat an jausi nitzan zaurituta odolez.

Eta zu?

-Ni be euskalduna, zuberotarra.

-Kontxe! Ugarí gara euskaldunok.

-Zegaitik euskeraz egin ez?

-Gernika'ko Arbolak ez dau orretan fruturik,
zoritxarrez.

-Zer?

- Gernika'n, kaskoan, erdera egiten dogu aurrez.
 - Munduaren kontzentziari deika ta zuek ain baldarrez?
 - Kontuan euki diktadura baten menpean bizi gareala zaplada eta makurrez.
 - Diktadurak, bateko ta besteko, zuri nai gorri izan, lenbailen kendu bear dira indarrez.
 - Orrelakoak erbestean esaten dira errez.
 - Ta zuk zer psikologi aldez?
 - Gizonak libertadea bear dabela gizon jokabidez.
 - Orren billa gabiltz garrez.
 - Zu abade zara, ez?
 - Danok gara abade bakoitzaren zeregiñez.
 - Edo izan ziñan.
 - Jantziak salatu nau? Jantziak egiten al dau frailerik?
- Edo ta zer dakizu iñori kendu ete dautsadan guzurrez?
- Nire psikologi doaiak, eta zerbait ba dakit, eunetik eunetan abade ezagutuko zindukez.
 - Gaitz da gaur ori.
 - Asko dabiltz egazka, ez?
 - Zer esan nai?
 - Askok eskegiten dozuela jantzi ori.
 - Etxean, beintzat, danak.
 - Ulertu daustazu.
 - Nik be bai zeu nundik zoazen.

Ikasle artean

Laster ziran lagun.
 Alkarregaz urten eben.
 Bardin eutsan Abel'eri batera nai bestera jo.

. Euskalduna zala ta Soborna'n ainbat euskaldun batzen zirala-ta, arajoatea pentsatu eben.

Bizi alaiko izanarren, eta atsegin biziaren zale izanarren, Aritzeta gernikarrak ez eban utsik egiten bere Ikastetxera joan barik.

Metro'ra eldu ziran.

-Bakoitzak berea.

-Ala bear, birentzako aiña ez daukat-eta.

Alako diru egoeran egoan Abel.

Bi atara zitun Aritzeta'k, esanez:

-Aberatsik andiena ez daukana.

Txikito bat kendu daustazu.

Ez estutu.

Ba daukadaz tiketak Ikastetxean bazkaltzeko. Etxetik ordaintzen daustez, bazkaria ziur euki daidan.

-Ni be oituta nago eguerdian aidean jaten ta gabeen epeletan.

-Zelan?

-Eguerdian ogi bitartean eta gabeen porru patatak platerean.

-Gabekoa zure kontura?

-Nire kontu gaur.

-Ta... nundik?

-Konfiantzaren ordeaz bearko.

-Konbenturen batera ez nazu eroango.

-Ez dira txarrenak lapikokorako. Zuen alde aretan be esango da gure aldean oi dana: Abadearen lapikoa txikia baiña gozoa.

-Lotarako be ez dira tokirik zaratatsuenak.

Baiña gure bidean jarrain daigun.

Loa an daukagu ziur Sena'ko ibar oteletan. Jan arin eta kezka barik ez da txarto lo egiten eguraldi ona dagoenean.

Ikastetxera eldu ta beriala ainbat lagun ikusten eta ezagutzen asi ziran.

Euskaldunak ziran geienak lagun artekoak. Euzkadi'ko Ipar eta Ego aldekoak.

Premiñazko ikasgaiak euren tokietan ikasi eta artu ondoren, ikastaro sakonagoak egitera etorriak geienak. Beste batzuk asieratik bertako ikasleak.

Aritzeta ezagutzen ez ebanik ez egoan.

Ezagunak baiño geiago, itxuraz. Lagun arteko adiskide jator eta alaiak.

Ainbat aurkestu zitun.

Alkar arteko jardunetan, gertaten ziarduen urteko mendi-egonaldia gogoratu eben.

Udako berotatik igestuz, amabos-ogei eguneko ostera egiteko oitura euken.

«Lan eta on egin» eukan zeregin onek izentzat.

-Lan eta on egin, benetan?

-Bai. Erri beartsu bat aukeratzen dogu. Bizitasuna galdu daben erri bat. Txikia al dala.

-Erri txikiak izaten dira esku zabalenak.

-Ez nator orretan.

-Zer ba?

-Nik ezagutzen dodan bat, erregelako ardi baltza izango da.

-Jokatuko neuke...

-Galduko zenduke. Ez jokatu.

-Erriaren premiña aztertzen dogu lenengo. Benetako bere bear izana.

-Zelan ebatsi premiña ori?

-Erri guztiari begiratuta.

Berrogei lagun joaten gara. Gizarteko zauriak osatu naian. Ori da egia.

Estudiante tunante esaten da. Guk ez dogu geuretik

umorerik eta arlote izaterik lagako.

Talde onetan danetakoak gara. Ala bear be. Baiña egun orreitan, aribetaz gogortuta be, zutik egon ezinda geratuta be, danok ardura batek erabiliko gaitu: On egin.

Irugarren urtea izango da aurten,

Igaz, aurreko urtean egin genduna gogoratuta, laguntasun ugari artu gendun.

Ez dogu dirurik eskatuten. Ortik, ikasle bizitza ezagututa, ez genduke askorik lortuko.

Gaikiak eskatzen doguz. Eta erabilgarriak eta lanerako tresnak.

Orretan laguntza ugari ta oparoa artu gendun.

Uste dogu aurten be lortuko dogula.

Ortik dabil gaur be eginkizun onein sortzaille eta zirikalari dan Matalas, gertaeretan.

Emen egon da.

Biar arte ez da etorriko.

Gau^ak argiteen

Bazkaltzen jarri ziran.

Abel'ek Aritzeta'ri:

-Matalas izena atsegin yat.

-Niretzat zazkar da.

-Ba dakizu bere kondairarik?

-Sekula ez dot entzun Matalas santurik.

-Beste santuen izenak bardin ziran santutu aurretik.

-Gaitz sartzen da.

-Ba dakizu len santuak erriak egiten zitula. Orain erriari, nok santu deitu ta gurtutea merezi daben, goitik esaten yako.

-Ta Matalas nundik dator?

-Zuberotar jatorra zan. Erri gidari.

-Au ikasleen gidari dan lez. Eta zuberotarra berau be.

-Esaera da, Zuberon danak bero.

-Au beintzat berakats atala baiflo fiflago da.

-Au da istoria:

Iruri'ko jaun baten diru egarria ase ezifla zan.

Zuberotarrak bere aurka jagi ziran 1661 urtean.

Iruri'ko jaunak, aberats eta andiki izan nairik, Montori eta Atarratze'ko etxe jauntzak bereganatu zitun eta Iruri kondadutzan biurtu. Maule'ko gaztelua be erosi eban.

Zuberotarrak, bere eskabideak ezin beteta eta ezin ordainduta, gora-goraka jaso ziran.

Mitikile'ko abadeak 800 baserritar batu ta Atarratze'ko gazteluan sartu ta bertan jaurritu zan.

Zuberotarren eskubideak bete eragin zitun, Iruri'ko jaunaren eskariak baztertu eta ordaindutzat emon eta ango lurrak barriro baserritarren artean banakatu.

Frantze'ko gobernuak bere soldaduak bialdu zitun.

Baserritarrak beratu eta zapaldu zituen.

Mitikile'ko abadea iges egitekotan egoan; ba eukan ortarako aukera, baiña bere erritar eta lagunak bakarrik ez lagatearren, Gotañe'ko gazteluan sartu zan, an eutsi nairik.

An mendetu eben. Eriotzara zigortu be bai, burua ebagita iltera.

Erriak ba ekian Goienetxe'ko Beñat zala bere izena, baiña Matalas deitureagaz ezagunago eta maiteago eben.

Esaidazu, Matalas au zer ikasten dabil?

-Erri ekonomia. Eta erri eskubidetza be bai.

-Ortaz, erri ardura.

-Alaxe da.

-Zenbat urte?

-Ogei inguru. Ta abaderen bat naastuten dabe bere

bizitzan.

-Euskalerrian edozetan sartzen ditue abadeak.

-Eurak sartzen diralako.

-Jatorrizko bizitzan. Edo obeto esanda bizitza jatorrean.

-Eta bestelakoan.

-Zerbait dozu euren aurka?

-Eurak eukiten dabe gure aurka eurekin batera ez goazanetan.

-Euskalerrria mundutik erririk abade menpekoena dala esaten da.

-Baiña Gernika'ko batzarrak ez eutsen tokirik emoten.

-Kanpotik agintzen ebela ba ekielako.

-Ni abade ba nitz laster giñake txopinka.

-Ez zara ala?

-Egoera larri baten nago.

-Emakumeak atsegin?

-Ez nabe zirikatzen. Bear ba da oraiñarte txotxin batzuk baiño ezagutu ez dodazalako. Bizitzako gertaera izan da. Ba dakit askoren zirikaldi eta erekarle dirala. Egia da ez naizela gertatu bestelako aukeretan. Baiña gaurkoz ez nitzake jausiko.

Abadeak daukagun erakundearen aurka nago. Abadetzako gogoari kateak eta estuntzak ipintearen aurka.

-Abade langilletako zara? Edo ta abade iraultzailletako? Gaur modan dagoz abade iraultzailleak.

-Zuzentza baten aldez jokatzeari iraultza deitzen ba dautsazu, ni be iraultzaille naz. Langilleen eskubideen alde jarduteari, edo ta langilleak eleizara ekarten alegintzeari, izen ori emoten ba dautsazu, ni be sartu neikezu.

Baiña, egia au da: izenak ez nabela eroaten batera nai bestera. Egin bearrak baiño. Eta egin naiak. Eta egin al ezak

atzeratu eta koldartu eta etsi eragin.

-Ezin alak mendetu bear dira.

-Or dago kakua.

Igesaldi atsegiña

Bazkaldu eben.

Bazkal ostean klaseak eukazan Aritzeta'k. Ez eukan galtzeko oiturarik.

Zazpiretan alkar ikustekotan geratu ziran. Abel'ek lengo denporetan afaltzen eban jatetxean.

Ez batak ez besteak ez euken dirurik, baiña Jainkoak ez dabela iñor itoten eta onetan ziran.

Abel'ek Ikastetxetik urten eta bat bateko pentsamentua euki eban: erretore zarra ikustekoa.

Eleiz ateko dei eta agiriei begira geratu zan, andik igaroeran, ikusmiñez, jakin miñez eta oituraz.

Negarrak urten eutsan.

Erretore zarrak agindu zorrotz bat ipinita eukan bere eleiztarrentzat, Abel bere laguntzaille izan zanaren izen onik aotan ez erabilteko eskatzen.

Etxera igo ta atea jo eben.

Erretore berbera atera.

Besarkadak.

-Ostera bat egiten?

-Ez dakit.

-Aldatu zaitue?

-Nik dakidanik ez.

-Ta?

-Ezin neban, ezin neban bakartade a jasan, eta nire buruari ezin eutsita iges egin dot.

-Zuentarregi zarie gazteak.
 -Ez da orrela.
 -Ta noiz urten?
 -Atzo.
 -Betiko etxera etorri zara?
 -Sena'ko erriberetan lo egin dot.
 -Egia ete?
 -Lo gelarik ordaintzeko aiña ez neukan.
 -Kobratuko zendun.
 -Iñor ez da gogoratzen erri aregaz.
 -Baiña meza dirua, eskupekoak eta abar...
 -Iñor ez da elizara etorten.
 -Domeketan be ez?
 -Egon naizen lau domeketan iñor be ez.
 -Nun bizi zara?
 -Bakarrik.
 -Etxerik bai?
 -Eleiza ondoko aterpetxo bat.
 -Zelakoak dira erritarrak?
 -Lengo abadeak nota baten esaten eban lez, amalau atso, amabi agure ta sorgin bi.
 -Ta gazteak?
 -Nungo gazteak?
 -Berrogetak urtetik berakorik iñor ez dago.
 -Ta umeak?
 -Itxaropenik be ez.
 -Bakana da.
 -Benetan be ain arrera gitxi abadearentzat?
 -Urtetan egon diran azken abadeak danak izan dira zigortuak. Buru galduak edo odol beruak. Bateri eleiza erre be egin eutsen, eta barruan egoala erre nai be.
 Zer egin dot nik orrelako erri batera bialtzeko?
 Eskubiderik ba dago orrelako erri baten abade bat

eukiteko?

-Gogor egin, beartu eleizara joan daitezaz.

-Eleizaren naia ez al da kontzientzien azkatasuna ez indartu ta ez biurritzea?

Une baten zitaldu be egin ziran.

Erretoreak errie emon eutsan.

-Askotan gazteak errazoia dozue, ezin ukatu. Baiña oiturak galduten gaitue.

-Igarri barik okertu, bide zuzena galdu eta dotriñatik urten daberen oiturak. Ori da txarrena.

-Baiña biurtuko zara.

-Nora?

-Munaegi'ra.

-Ez dakit.

-Menpetasuna galduko zenduke.

-Ardurarik ez.

-Abade zara.

-Ez dakit zetarako.

-Ez zaitu arduratzen?

-Arduragetasunez nago. Edozetarako.

-Beti izan zara gartsu.

-Gartsu ez, gogotsu.

-Bai.

-Eta gogo ori eteten alegindu zarie. Berari etsi eragin arterañoko ostopoak ipinten alegindu.

-Ni ez.

Eleiztarrei lotsa eskatzen alegindu naizela esaten ba dozu, egia da.

-Batzuei lotsa ta bestiei jaramonik eza.

-Leike.

-Ikusi dot eleiz atean ipini dozun agiria. Eskerrak.

-Nire kontzientziko ardura zan. Ezagutzen zaitudalako.

-Baiña barriketan jarraituko dabe.

-Egia esateko bai.

-Karidadea guk baiño geiago guzurtatzen dabenik, ez dago beste siniskereren artean.

-Bear ba da besteak gauza geiago libretzat daukezalako.

-Dana dala, afaltzen etorriko zara.

-Lagun bateri ordaindu bear dausat.

-Ez dozu esan dirurik ez daukazula?

-Norbaiteri eskatuko dausat.

-Pentsatu be ez. Emen nago orretarako. Joan ziñeanean emon bear zerbait.

-Nire serbitsuen orde ez dakit ezer eskatzen.

-Ondo dakit.

-Eta lotara? Ba daukat oe bat.

-Gaur beintzat Sena'ren usaiñak artzen egiteko asmoa daukat.

-Ez orrelakorik.

-Tartetan an ostatua artzen daben euskaldun psikologo bategaz egoteko gogoia eta premiña daukat. Bart ezagutu neban.

-Edozetara be etorriko zara beste edonoiz?

-Leike.

Erretoreak eskupeko ona emon eutsan. Ta iru-lau bidar esanez, borondatez eta gogoz emona zala.

Eta etxetik urterakoan, besarkada sutsu baten, belarrira esan be bai:

-Ez etsi Abel. Zu zeure borondatez abade egin ziñan betirako-ta.

Laneko aparria

Esandako orduan an egozan Abel eta Aritzeta jatetxearen aurrean.

-Ona etorten ausartuten zara?

-Zegaitik ez?

-Ez dakizu atsegiñetarako ingururik ezagunena au dala, ete emen batzen dirala txori galdu guztiak?

-Sekula ez naz konturatu.

-Jatetxean be ez?

-Geienetan bakarrik gertatu izan naz.

-Eta bertako neskak?

-Nik ez daukat zer esanik.

-Igarri be ez?

-Zelan igarriko neban sekula txarrik ez dot pentsatu-ta? Edo ta nai ta ez txarto pentsatu bear al da? Gure gizarteko gaitza izan lei ori. Txarto pentsatu eta txarto esan. Ta okerrena, txarrerako esnatu eragin.

Maian jazarri ziran.

Betiko neska agertu zan.

-Oi! Azkatu al zinduen polizikoak? Emen egon ziran geroago be itaunka.

-Jokabide oker bat izan zan. Itsukeri bat.

-Ba dakit gero kotxea erre zala.

-Ta barrukoak il. Ta ni zauritu.

-Bakarrik ziñoiazan.

-Ementxe artuta lez.

-Beste neskarik edo iñor ez?

-Nigaz ez.
 -Poztuten naz ikusteagaz.
 -Aparitako zer?
 -Nik betikoa.
 -Porru patatak eta arrautza bi tomatetan, ez?
 -Bai. Baiña onek berak nai dabena.
 -Ez da afari txarra. Bardin.
 Ta neska biurtu zanerako:
 -Ba daukazu dirurik?
 -Ez zaitez estutu.
 -Esatearren zan nik be lagun bateri kendu dautsadala.
 -Biurtu ziñei, bestetarako bear ezik.
 -Gero ez gara joango inguruko klub'en batera?
 -Ez daukat oiturarik.
 -Beingoa ez litzake oitura.
 -Bear ba da bai oitura baten asiera.
 -Zegaitik itandu dautzu orrek azkenengo zure gertaera?
 -Emen gertatu zalako polizikoak sartu ziranean.
 -Ta zegaitik eroan?
 Abel'ek asieratik jakin eragin eutsan Aritzeta'ri gertatutako dana, gaixotegian agertu arte.
 Sinisgogor egoan Aritzeta.
 Beste barik lotuta eroan eta ondoren orrela ibiltea, arrigarri ziran beretzako.
 Aparia amaitu ebenean, Aritzeta'k zirikatuarren, Abel ukatu egin zan inguruak ikustera.
 Sena egaletarako bidea artu eben biak.

Barrero Sena'ren egaletan

Esan lez, an egozan euren tresnak, laga zituen

tokietan, iñok ikutu barik.

Illuna jausten asia zan.

Alaz eta inguruak ikusteko guraria agertu eban
Abel'ek

-Osteratxo bat egingo dogu «clochards» entzutetsuen
toki oneik ikusten?

-Batzuen esanetako «miseriaren» etxeak ikusten?

-Niretzat jakingarri izango litzake.

-Idazle asko etorten dira au ikusi ta ikasten. Geienak
azaletik ezagutzera elduten dira. Ikaratu egiten dira zauriei
ikututen. Azala, kolorea artu ta barrua barurik laga.

-Abaderik sekula sartu ete da emen?

-Sartuko zan, bear ba da estutasunen baten gaixoren
batentzako deituta.

-Lan egin leike emen.

-Ez uste.

Nire eritzian agintarien .eginbearra geiago dago.
Garbitasun bearra da geiago.

Zer egin lei emen abade batek?

Moskor bategaz alboan jarri eta gangarkeriak eta
biraoak eta zikinkeriak entzun?

Droga zale eta drogaz-eri bateri Jainkoaren zoramena
artu eragiten alegindu?

Udala eta Gobernua dira au erabagi bear dabenak
Oker esan dot, erabagi ez, ebagi baiño.

-Luzaroko jokera da. Urte luzetakoa.

-Askoren lana dago emen. Osagilleena, psikogaituena,
eziketarena, agintaritzarena.

Batu egin bear dira oneik. Danok Tokiak gertu. Erri
laguntzaz edo gizarte babesen bitartez.

-Askoren lana ifiorena be ez.

-Oneitariko asko gaixoak dira. Soiñaren eritasunez eta
gogoaren eritasunez. Gizartearen eskabideen gaixo beste

asko.

Bakoitzak bere jokoa, bere kasua dauka. Ez daukat nik? Zegaitik bizi naz beste emen amabostero?

Ez daukazu zuk?

Zegaitik etorri ziñan bart? Ez zendun len egoten ziñan etxerik, bertara joateko? Edo ta zuretzat egokiago etorran eleiz-etxe edo konbenturen bat?

Ziur egon. Emen zoro eta burugalduen artean, jakintsuak be egongo dira. Droga zaleen artean, osagilleak. Ez jakiñen alboan, artistak. Gosedunen artean, arloteak.

Askotan moda bat lez.

Ikasbide ta agerbide bat egitearren, zuk atzo egin zendun lez.

-Jota nengoan.

-Esatea beste bakartadearen gaixoa zenkarrela. Etsipenaren makalaldia zenkarrela.

-Leike.

Esan neutzun atzo. Zuk zeure arduren kezka daroazu. Zuk abade jarraitu bear dozu.

Biotzean daroazu abadegintza.

Zure azala zuritzen ikasi egizu. Kanpoa da minduten zaituna. Biotza nasaitzen laga barik, estutu eta ito eragiten dautzun zure inguruko erakundea.

Euren tokietara eldu ziran.

Biak konturatzen ziran eurak be arloteen jokoa bizi egin ebela eta gau onetan be, munduaren aurrean, gizarterik atara eta bastertutako gizonak lez iraungo ebela.

Konturatu ziran bizibideak negar egunak eta negar egoerak ba daukazala, bai eta guzur egunak eta olgeta egunak lakoak.

Aritzeta'k lo egin nai ebala eta biak be lo egin bearra eukela esan eban.

-Ez zendun atsegin tokietara joan nai?

-Izan be errezago nekatuten da joan barik. Gorputza astundu egiten da, artara oituta dagona beintzat.

Alkarri gabon esan eta ixilik gelditzea erabagi eben, eta bakoitzaren estalgarri azpian eskutatu zituen buruak.

Alaz eta ibaiaren albotik eta bere gaiñeko zubietan, kotxeen argiak urrunera bialtzen eben euren diz-dira eta estalgarrien azpian be igarri egiten zan Paris'eko gau bizitzaren joan etorria.

Bide barrietan?

Eguna zabaltzen asi zan.

Abel, argiagaz batera esna egoan.

Aritzeta oituago zan bizibide onetara. Origaitik nekezago argitu zan.

-Ba dakizu zer pentsatu dodan?

-Eguna argitu baiño len buruasteak nasaitzen?

-Munaegi'ra joango naz.

Itxasontzietako kapitan batek legez, bakarrik egonda be, nire ontzia zaindu bear dot.

-Noiz zuaz?

-Gaur goizean bertan, eguerdiko kotxean.

-Ta ba dakizu nik zer pentsatu dodan?

-Zu be buruaustetan?

-Tukur bat legez lo egiten dakit bestetan, baiña gaur ezetatik ezin lorik lortu.

-Porru pataten astuntasuna?

-Kopa batik ez gendun artu ta aren berotasunaren utsunea,

Bizibideko eskaria da ori be.

Nekez loak artu ta gero be iru-lau bidar esnatu.

Ta beti zu gogoan.

Zer niretzat abade bat gorabera? niñoian.

Ia sinistu be ez dot egiten eta zer?

Baifla zure egoerak eta zure bat-bateko erabagiak urduritu nau.

Zure bizitzan, nire ustez, garrantzi andiko izango da Munaegi'n aurrera egitea.

-Orixe da nire pentsakera be.

-Psikotekniak nekez uts egiten dau sentzu oneko izakiekin.

-Oraindik nire bidean ondo nabillala esatea da ori.

-Jakiña, ba!

-Aurten amaituko dozuz ikasketak?

-Ikasketak amaitzea ez da zaila. Baiña beste geitxuago sakondu nai neuke.

Beste gauza bat,

Naiko zenduke zuk ikasleak egiten daben urteroko ibillaldia Munaegi'ra egitea?

-Zerbait esan dautzue?

-Ez dot iffogaz aitatu be.

-Lortu leike?

-Uste dot lortuko neukela.

-Zeuk?

-Igaz eurei geien lagundu eutsen etxea, Etxagintza izenekoa da, bilbotar atzerriratu batzuk Paris'en dauken etxea.

Bilbo'n asko ikusiak ziran. Ondasun guztiak kendu eutsezan abertzale ziran aitzakiz.

-Dana kendu ta oraindik lengo korriduak dantzan?

-Ez. Bilbo'k kendu eutsena Paris'ek emon dautse.

Gaitz izaten da erbestean aurrera urtetea. Baiña orreik anka onagaz sartu ziran emen.

Jatorrak dira. Langilleak Edozeri be onura ataraten

dakienak.

-Iñoren lepotik?

-Zelan?

-Iñoren izerditik?

-Ez. Koperatiba eran egiten dabe lana. Euskal errefugiatuak dira danak. Euskaldunik premiñan billatzen ba dabe, ez dabe lagako laguntasun barik.

-Baiña Munaegi ez da Euskalerrri.

-Ez dago ardurarik. Ara doazan mutillik geinak bai, euskaldunak. Eta euskaldunen lana goratu leike an.

-Matalas euskalduna al da?

-Zuk pentsaten dozu frantzetar bateri izen ori ipini nai izan dautsan bere errikiderik billatu leikela?

-Joan zaite nasai, gogoz eta itxaropenez.

Matalas billatu dot.

Lau egun barru urten bear dabe. Iru-lau toki daukez erdi aukeratuta. Ez dakie ziur nora joan. Baiña beste barri au sartu leike euren asmoetan.

Zer dautse eurei batera nai beste joan?

Lanik geien eskatuko dautsen tokira, alegiñik geien eskatuko dautsen tokira, arajoango dira.

-Munaegi'n eukiko dabe zer konpondu.

-Erri txikia naiago dabe, dan dana errez mende artzeko.

-Erri itsua da. Sarratua.

-Ostoporik gainduten lenengotik ikasi ezik, zer egingo dabe edo zer egingo dogu ikasleak, ni be ikasle lez sartutén nazala.

-Ba daukazue emen ostatua.

-Ortan zagoz?

-Agirian dagonik ukatu?

-Egia esango dautzut. Ba dakizu zegaitik eta zetan asi nitzan etorten?

Nire ikas-lana, nire tesisa gai onetaz egiteko.

Nire albora etorri diran guztien flash bat egiña daukat.

Zur egon. Munaegi'ko abadea be nire tesis orretan agertuko dodala-ta nago.

-Ezetz eskatzea alperriko izango da?

-Bai.

-Nire izenik ez agertu.

-Izen abizenen asierak bai. Eta Munaegi'ko abadea be bai.

-Askorentzat arrigarri izango da.

-Leike.

-Galdubideko ezaugarri.

-Edo ta abadetzan be dana ez dala sedazko sotana konturatzeko bidea.

Batzuntzat, askorentzat, salakuntza bat, beste askorentzat esnarri.

Gertaera eta egiterik txikienak eta utsenak izan leikez kontzientzi askoren bizigarri.

_ -Lengora jota: Uste dozu mutil ikaslien ibillera ori lortu daitezula?

-Atzamarra jokatuko neuke.

-Niretzat bizi oiñarri izango litzake.

Bakartadeari bildurra dausat.

-Au ez al da bakartadea?

-Ori esaten neutsan nire buruari bart: Ni, zoro au zetan etorri nitzan bakartade onetara?

Edonok esango leuke Paris lizun eta ardura bako onek esku on bat luzatuten dautsela emengo gizon eta emakume bakanei.

-Ez bildurrik. Ez dakizu bakartadeko gaitza bakartadean osatzen dala?

-Zelan?

-Bakartadeari arrika eginda.

Bakoitza bere bidean

Zubi ondoan txosnak.

Txurro usain,

ardau zarren ats,

kafe-lako usain bizigarri...

Orrelako baten sartu ta kafe utsa eskatu eben.

-Ba! Kafea baiño txikori geiago dauka.

-Niri ondo sartu yat.

-Ori da osasuna! Ur-epel zikin au ondo sartu?

-Ikusiko ete gara barriri?

-Matalas'ek nire besarkada eroango dautzu.

-Ala ba litz...

-Sinisten ez?

-Ba litz eta ba zan biak alkarren kasan, esaten ekian gure ama zanak.

-Ez zaitez fede epeleko gizon!

Lenengo agertu ziran mikrobusetan bakoitzak bere alderako bidea artu eben.

Biak, burutapen bat eroen kotxetan: Matalas.

Bata Ikastetxe nagusira joan zan. Lotsa andia eutsen Aritzeta'k Ikastetxeko klaseei.

Abel, zuzen, autobusen geltokira.

Xabier'egaz gogoratu zan. Ez ete eutsan berak argibide eta aolku on bat emongo?

Ez ete eban merezi nundik eta zelan ebillan jakiteko

beste egun bat bere ondoan édo inguruan egitea?

Ikusten gelditu?

Zalantza.

Ez luzaro.

Erabagia sendotu eban eta zalantza ta beste aitzakiak eten: Nire bidean joan nadin!

Lurralde barrien billa

Lau jeep barritan, bakoitzean amar gazte, gudaren batera ba joiazan antzera, Munaegi'ra urreratzen etozan ikasle alaiak, ames eta egitada barrien garrez.

Kantuz, soiñuz, algaraz...

Ameriketa billatu ebenak, estutasun eta itotasun amaibakoen ondoren be, ez eben ainbesteko poz eta algararik zabalduko bazterretan, eta ixiltsu ta kezkatiago begizatuko eben euren lur barria, lenengo sartze eta ikus aldietan.

Etxe batetik besterako joan etorriak igarten ziran munaegitarren artean.

Ezin egona. Noiz ikusi ete eben ainbesteko gaztedirik Munaegi ingurutan?

Eurekana arin urreratzeko gogoia datorkio Abel'eri. Agur alai bat merezi dabe!

Biotza alaituten, nasaituten igarten dau. Itxaropen barrien ozkirria sentiduten dau bere gorputzean. Katez lotuta, arerioz inguratuta bizi ete da ba? Edo urten ezindako kartzelaren baten? Edo ainbestean ete dago, igarri barik, gaixo?

Bere soiña eta bere gogua azkatuten ba letozan antzerako arrada eta samurtasun berezi bat naibatzen dau

beragan.

Ala ta be, eutsi eziñez be, geldi dago eleizatxoaren ondoan. Geldi. Ezer ez ba leki lez.

Ta bat batean, ara arin-aringa, jeep batetik beratu ondoren, gazte argi bat, itsu-mustuan, yoranez, arnas-estu, beregana urreratzen.

-Abel zara?

-Matalas!

Besarkatuten dira.

Barriro.

Ta barriro. Luze. Bero. Anaikor.

Zenbat oroipen berez sortutako maitasun onek!

Zenbat biozkada eurak ez dakiela lortutako anaitasun onek!

Ta alkartu zitun biotz zindo baten amatasuna... Anai izan barik anaitu zituana!

Ama! Ama!!!

-Nun dago eleiza?

-Auxe.

-Au? Eleiza nagusia au?

-Ber berau. Apal deritxazu?

-Itzal.

-Ta munaegitarrak?

-Ez dodaz ezagutzen.

-Egi. Ifior be ez gara ezagutzen. Abadien esanak.

-Ta... izanak. Izanak emen beintzat.

-Aritzeta'k berba egin eustan. Ez neutsan sinistu. Ba! Illeta jotearren izango zala esandako guztia, pentsatu neban. Bertora etorri eragitearren.

Zure etxea? Nun daukazu etxea?

-Aurrean. Ikusten ez?

-Etxekoandre ona daukazu?

-Ni naizen bestekoa. Ni naz etxejaun eta

etxe-garbitzaille.

-Orretan be abade guztien antzeko. Jaun eta jabe.

-Nire etxea ikusteko gogotan zagoz benetan?

-Ikusiko dogu. Alkarregaz jarduteko denpora artuko dot.

Niretzako tokirik ez zendun aukeratuko e? Oerik be ez dot nai, lagunetatik urrun.

-Munaegi'n beti dago gertu oea: lurra.

-Illeta joten? Amaren seme!

-Negarra obeto jo leike emen. Illetaz eta barruko miñez be jo leike eraen negarra.

-Orain ez beintzat.

Besteak zain dagoz.

Txabolak jasoteko tokia aukeratzen lagunduko dozu?

-Ori, emen, berez aukeratu leikena da. Or beerago ba dago errekondu zabal eta egokia.

-Erriarena da?

-Bertakoak baiño geiago zarie ta nor ausartuko da zuekin?

Ta ondo etorriak barriztatuz, zarataka, kantuz eta oiuz, irrintzi eta algaraz, kotxetako abotskiñak jo ta jo, ba doaz Abel'ek esandako errekondu ingurutara.

Errekondoko lenengo eguna

Zirku bateko lagunak bezin arin eta gogotsu jaso zituen mutillak euren txabolak.

Zirazko txabola txikiak.

Zuri ta ori geienak.

Amar txabola, launako txabolak, alkarren parean, garbi-garbi, erdian kale antzeko bidea lagata.

Ura ekarri ta txondorrak batu.

Suak egin eta janariak gertu.

Orrela batzuk.

Beste aldra bat sasiak erre, arri zátarrak baztertu ta pillotu, urei bideak zabaldu, ota eta zakarrak aldenduten, euren ingurua txukun gertu eta egokitzeko.

Illuna jausi aurretik amaitu nai izan eben lan au.

Gero transistorak lotu zituen makilla zendoen puntetan, eta zabalduagaz kantu, soiñu ta izpar eta barri emole asi ziran.

Bakartade eta itzaltasun andi aren pixu eta astuntasuna urratuta egoan Munaegi'n.

Lenengo illuntzean ezelako premiñarik ez zan oartu. Bear izanik agertu ez.

Iñoren laguntza barik egin zan dana. Su eta jan, etxe eratze eta lo toki.

Ibillaldia ondo gertuta eioala agiri zan.

Gertaera onen zeaztasuna erritarren aurrerako ardua andikotzat euken ikasleak. Duintasuna, jaubetasuna agertu beiñik bein lenengo unetik eta lenengo zeregiñetatik, txikienak izan da be.

Afaldu eta atsedean labur ondoren, ordu batean, amarrak inguruan, suak itzali zituen eta argi biziak atzen.

Egaletako txabola buruetan, argi motelak biztuta laga ziran, premiñaren baten gidari izan eitezan.

Danak, ixilik, lotaratu ziran.

Bizi guztian orretan ba ziarduen antzera ekin eben errekondoan batu ziranetik. Alkarren lotsa, maitasun eta laguntasunez.

Ez zan iñor gelditu Munaegi'n ingurutatik ikusmin edo jakin garrez agertu barik.

Agure ta atso, illuna egin orduko, gabaren itzal eta babespean, ixillean etxetatik urten ziran, eta solo

motetatik, edo zugatz ostetatik, edo lar artetatik, zertzeladarik txikienak be artu zituen. Ez eutsen alkarri ezer adierazi ta bakoitzaren gogorik agertu, baiña indar batek eraginda lez, bakoitzarentzat tokirik egokienetan, eta alkar ikusi nai ez da, an egozan.

Sinisgogor egozan ainbeste gazte ain makur eta zintzo batu eta bizi eikezanik. Ainbeste alaitasun eta poz, ainbeste alkarrentzako borondate ta alkar laguntza, ainbeste anaitasunek arritu eta bigundu zitun.

Nekez etxeratu ziran geienak.

Zer ikusi askorik ez eukela konturatu ziranean. Bakoitza bere aldetik eta bakoitzari eratsuen jatorkozan bide txiorretatik. Gabaren lapur.

Ixilleko ikusmiña, auzokoak ezagutu ta jakiteko aukera eta zabaltasun barik.

Gaba.

Eleiz aterpean, bakartadea Abel'entzat.

Bakartade alaiagoa.

Kandela argia biztuta euki eban luzaro.

Ta itxaropenez betetako pentsamentutan loak artu eban.

Leku barriak ezagutzen

Eguna zabalduagaz batera mutillik geienak lau jeepetan sartu ta auzo eta egalak ikusten urten ziran.

Mendiz-mendi, baso bidetan, piñadi eta arboladietatik zear joan etorri luzeak egin zituen.

Eguerdi alderako Munaegi'ko baster eta inguru askotako argazkiak atarata eukezan. Baita planoak jasoteko marrazkiak egin be.

Gero etxeak eta etxe-ondoak goitik bera aztertu ta zer egon eikean iruditu eben.

Eguerdi ostean Matalas ta beste iru lagun eleiz ondora joiazala, Pierre'n etxe ingurutik igarokeran, bidera urten eutsen onek. Zerbait jakin nai, nundik eta zetan etorriak ziran jakin nai. Argazkiak, erretratuak zetarako atara zituen, planoak zegaitik jaso.

-Edozein ikasle ta edozein langillek bere opor eta atsedean aldietan edonora juateko ta edonun atsedean egiteko baimena legeko ba dauz, guk be, era berean, ikastaroak amaitu ondoren, gure urteko zeregiñak amaitu egin ondoren, jai egin nai dogu.

-Toki egokiagorik ez al dago?

-Egokitasunaren neurria norberegana dago. Paris'en bizi dan agurerik oituko ete litzake emen?

-Origaitik ba, origaitik... Gu be orrek kezkatuten gaitu.

-Lorik ez galdu gugaitik.

Itxasertzeko ondar eta kresala maite dabez batzuk. Guk mendietako garo ta intza.

Jolas eta dantza lekuak batzuk; kabaret, night club eta antzerakoetako lizunkeri, zarata eta lurruna; guk basoetako ixiltasuna. eta bakea naiago doguz.

Kaletako gora-bera ta zorotasuna batzuk; guk emengo bakartade eta giroa.

Onetan gizonok ez gara eritzi bardiñeko.

-Nora zoaze emen gora?

-Abade bat ikusi gendun atzo. Ba dakigu errietan abadeak agintzen dabena ta beragaz kontu batzuk argitu nai gendukez.

-Kontuz txakurrekin.

-Txakur gaiztoak al daukaz?

-Ezagutzen ez dana baiño gaiztoagorik bai? Ta guk ez

dogu ezagutzen ezta nai be. Bera, bera.

-Katean lotu bearko dogu, zuek ausartzen ez ba zarie be, esan eban irriz Matalas'ek.

-Uxatzea obe, uxatzea.

-Benetan?

-Egin leiken kalterik txikiena ezer egin ez eta jatea da. Ta badaki, ba daki, berak landu eta jorratu ezarren, ortu barrenetatik igarotén.

-Moko fiña?

-Zer da ori?

-Ao gozoko?

-Uxatu bear dan txakurra! Lenengotatik urrundu bear dan txakur gaiztoa!

-Ikusiko dogu, ikusi.

Barruko miñez geratu ziran, jardun-aldi onen ondoren, Matalas eta bere lagunak.

Abel'egaz batzean, erdizka, azaletik bakarrik ibili ziran erriko gauzei ikututen.

Garbi esan eutsen Abel'ek zer jazoten yakon.

Etorri zanetik ordurarteko egunerokoa buruz ekian. Gordin, zeatz, ez geitu ta ez kendu barik, maitetasunez itz egin eutsen berak. Benetako barruko min eta itzalez.

Illun igarri eben. Itzalegi.

Laster jakin eben beste mutillak erriko itsutasunaren barri.

Ez ziran estutu.

Ez al gara etorri lan egiten? Ikusi daigun, ikusi, zetatik etorri leiken ori, esan eban batek. Guk gurean ekingo dautsagu. Abadeak ba dauka errua, konpondu eragingo dautsagu. Ta erriarena ba da... ikusiko dogu erri onek bestek ez aiñako indarra ete daben.

Orrela, amesez beterik, ekaitzari aurre emon bear izaten dala-ta, alde batetik poztu egin ziran lan egin bearra

ba egoala igarri eta jakin ebelako.

Erieak **lanean**

Erleak lanean bezin gogotsu ekiten eutsen arratsaldetan lanean.

Bakoitzaren zeregiñeterako, bakoitzaren arazoetarako itxi eben goizeko zatia.

Ikastaroa, etxetarako eskutitzak, jantzi apainketak soñari dagozkion ardurak, ate abar egiteko.

Etixerik etxe eskintzen ziran, euki eikezan premiñeterako.

Lenengotako keixurak eta arpegi izurrak laster uxatu eta liraindu zituen.

Gizonki jokatzen asi ziran sartu ziranetik.

Alai, bizkor, eztitsu, baiña leial, jator, egitsu.

Iru ziran etxietan dei egin eta ezaupideak artuaz, biotzak zabaltzen alegintzeko aukeratuak. Matalas eta beste bi.

Gero lana antolatu, danen artean ondo zeaztu ta zer egin bear eben erabagi ondoren, Larrondo'tik edo inguruen batetik premiñazko zituenak ekarri ta edozein arotz edo argiñek egin leikezan lanetan ausartuten ziran. Ez ain berezi ta ain jator askotan, baiña bai ardura onez eta sendo.

Ainbeste lan, ainbeste borondate oneko zintzotasuna ikustean, zer esan be ez ekiela ebiltzen Munaegi'ko atso agurtxoak. Eta tartetan, euren ixil-mixiletan, botaten zituen alako esakera ta txikikeriak:

-Alderdi oneko mutillak ete dira eurok, gero?

-Ekarriko dabe oneik zerbait «goitik».

-Politikan zigortutakoren batzuk izan leikez, edo ardi narruz estaldutako nastetsuen batzuk.

-Zaindari barik?

-Eukiko dabe ixillean norbait.

-Gure etxetako orma zar eta baster zikiñak astintzen ain gogotsu ibilteko, lapurren batzuk ez ete?

Ba egozan euren dirutxuak etxetik kanpora eskutatu zituenak, eta pitxi txikiak edo gurasoakandik gelditutako kate lodi edo ontzako gorri banakak, edo diru lodi batzuk, balio ete eben be ez ekien diru lodi batzuk, toki jakin baten zuloa egin eta gorde zituenak, eta egunero, lau bost alditan eurei begira ebiltzanak, keixu eta zur.

Iñok ez eban galerazo etxe eta inguruak dotoretzeko biarrik. Bat ikusi orduko, besteak be arduratsu egoten ziran euren etxea zelan geratu ta zelan itxuratuko.

Ez ziran agertzen esku zabal mutillekin.

Egia esan, mutillak be ez eben ezer artu nai.

Lenengotatik euki eben ardura ori. Iñok be ez egiala ordaiñik edo ordezkorik artu.

Eskintzen eben laguntza benetakoa, zintzoa, biotz onekoa eta ordain bakoa nai eben.

Ori orrela ikusiarren, oraindik bildur ziran munaegitarrak. Euren barrurik ez eben agertzen.

Amabost egun orduko eleiza jausi eta itxusia zuri ta garbi ta apain egoan.

Bustitasunak kenduta, tella apurtuak aldatu ta barriztu ondoren. Barruko kare zaar eta jausiak arrazkatu ondoren, ormak bardindu ta txukunduta.

Abadearen etxetzakoa be zuri ta garbi. Kaleko etxetxo asko dotore, batez be lenengotatik tarreak eta zuloak estaldu ondoren.

Indar andiren bat euken ikasleak atzetik. Ekarten eben biarkiñik be ez eben munaegitarren kontura ekaften,

eureri laguntzeko euken laguntalde edo alkartearen kontura baiño.

Munaegi'n bildur ziran norbaitek eurak erosteagaitik bialdutakoak ete ziran.

Mutillak ez euken arantzik mingaiñetan gauzak eskutatu ta estalduteko, ta bertan bera jaurtiten zituen orrelako esakera ta uste argal eta sentzunbakoak.

«Sorgiñen» etxea be txukundu eben.

Pierre'ren etxetik be, berrogei urtetan basatutako autsak atara zituezen, bizilekua andituz.

Eta atsotxurik zaarrenari, eztabaida ta asarre aldi txiki bat beragaz egin ondoren, zeenak jandako ol zarrak kendu ta barri-barri ipini eutsezan sukalde ta gelatxoa.

Etxe guxtien erdirengo egiten zan tokian, plastikozko tubo luzeak eroan eta luzatuz, iturri apain bat iruditu eben, eta jaso, arri koskor eta zementuzko orma luze bat bertan egin ondoren.

Iturriari «Bale-iturri» izentzat ezarri eutsen, gaiñean uso zuri baten irudia ipiniaz.

Madalena'ren txabolatxoa

Ez zan etxea, txabola zaar zaarra baiño Madalenarena.

Lur gaiñean eta argitan egon ez ba litz, leiza zuloa geiago esan zeinkean barruko illuntasun eta lur gorria ikusi ondoren.

Ollo tokiren bat edo ardi txabola galduren bat izan bide zan bere garaian.

Ez sukalderik, ez gela berezirik. Zati bakarreko aterpe zikin, loi, itsu, basatsua.

Egal baten, lasto zikin, baltzitu eta zorritsuen gaiñean,

bere oea.

Maitasun bereziz artu eban Matalas'ek etxe zatar a konpondu edo barriztu bearra.

Lagun artean zerbait esaten asi ordukoxe, a barriztuterik ez egoala-ta bestien eredutzat alegin beroago bat egin bear zala a konpontzeko, ao batez esan eta iragarri eben.

Bakoitzaren asmoak ikasten ekin eutsen, egokiena izango zana aukeratzeko.

Zegaitik Etxegintzako zuzendariari premiña a agertu ez?

Ba ekien ango zuzendaria «mundu-barri» zalien maitalea zala.

Ta ba ekien Etxegintzak beti eukiten zitula aurrez egiñiko etxetxoak be.

Origaitik, biaramoneko laga barik, Larrondo'ra joan ziran batzuk telefonotik itz egitera.

Arrera ona, txeratsua artu eben eta urrengo egunerako zerbaiten agindua be bai.

Biaramon goizean, goiz goizetik, egun sentiagaz batera, lau jeepak Munaegi'tik aldendu ziran.

Nora?

Biurtzeko ordua izentatu eben. Bai jai andi ta berezi eratu be an gelditu ziranak.

Eguerdi-eguerdian, jantziak eta kanpora atara eragin ondoren, atxurrekin jo ta zatitu eben Madalena'ren etxea, ta sua egin, erregarri ziran ol zati igarrekaz.

Madalena'ren negarrak eta aren uluak, zoro ta ankertzat danak madarikatuten!

Geugaz etorriko zara biziten, danokin, esaten eutsen. Ainbeste mutil artean alaiago biziko zara.

Baiña ez egoan iñor aren negarrik legortuko ebanik.

Irurak aldian, su ziri batzuk entzun ziran urrunean

txipli-txaplaka.

Sekulako zaratarik andienagaz beste guztiak bidera úrten eben, eta an etozan lau jeepak ol zabal eta tresnaz beteta.

Munaegitarren begiratu bearra!

Etxegintzatik lortu eben etxe dotore ta apain bat laster zabaldu, jaso ta josi eben.

Leio argi ta zabaldun zati biko etxetxo ikusgarria. Uralitazko tellatua. Baiña bustitasunaren aurkako bitarte ta guzti. Sukalderako tresna barriak, eta jantzi garbitzeko makiña bat be an etozan.

Mutillen poza eta bertakoen arrigarritasuna!

Alderdi onetik etorri ete eikezan ainbeste gauza?

Izena be ipini eutsen: «Etxe-alai».

Munaegik, egun aretan, gizaldi baten baiño gaiago irabazi eban dotoretasun eta txukuntasunean!

Bakartadea ezisi etenda

Zoratuta egozan erritarrak mutillekin.

Laster ezagutu zituen geienak. Bat edo beste izenez, besteak itxuraz, edo jantziz, edo egitetatik.

Erosten ebena ordaindu egiten eben zintzo. Eskatzen ebena biurtu. Bear zana besterik ebagi ez, nai ta ezkoa besterik artu ez, ta bera, eskatu edo aurrez jakin erazi ondoren.

Alkarrekin ezin obeto konpontzen ziran.

Illuntzetan, toki egokiagorik ez egoalako, erreka ondora dei egiten eutsen munaegitar guztiei ta an berebiziko jai alai ta zoragarriak antolatu.

Musika ta kantu alairik entzun eragin eutsen.

Barregarririk ugari bota be bai.

Egun baten esku jokuak egin zituen. Ba euken euren tartean bat guztiz erotsu ta patxadatsua orretan.

Pierre'ri orduari edo erlojua berak ez ekiala kolkotik atara eutsenean, inpernukoak ziralakoan ebiltzan ango emakumé sorgintsuak, eta orretan ebiltzala euren patrikaretan iñok sartu barik korapilloz beteriko zapiak eukezala ta atara eragin eutsezanean, ango algara ta ango koplak ez ikusteko obe ziran. Geiago: iñok lotu barik, emakume guztiak gona barrenetatik alkarri batuta egozala konturatu ziranean, ango egoera ikustekoa zan. Zoro etxea egoan an!

Ta sorgin edo deabru, barriro be joan egiten ziran erritar guztiak, gau alaiak igaroten.

Bein, teatro jai bat egin nai ebela-ta, gonak eta kamisoiak eskatu eutsezan ango emakumiei, ta munduan problema andiagorik ez zan sortuko emakume areik euren jantziok emoteko aurkitu ebena lakorik. Baiña jaia egin zan eta danak adurretan.

Orrelaxe ia egunero jai bat edo beste, kantaldi bat edo beste, alkar ikusi ta ezagutzeko, ta batez be konfiantza sartzeko unea billatzen alegintzen ziran.

Abel ixilik egoan bere eleiz aterpean. Amesez, keskaz baifio geiago. Itxaropenez.

Erritarrak, ordez, ez eben sekula aitatuten aren izenik.

Pentsabide igarlariak

Mutillen artean ez egozan bakarrik arkiteto, inkiñeru, maixu edo peritu ikasleak.

Ba egozan psikoteni gaietan sartuán ebiltzanak be,

barru ta gogo azterketaren ikastaroetan aurreratuta ebiltzanak.

Edozein tokitan, edozein lekutan, ikasleak alaitasunez eta bizi-bide onez irabazten zituezan erritarrak. Eta biotzak zabaldu eta poztu eragin ondoren, goguak nasaitu eta arindu ondoren, barruko arra sendatzea, osatzea etorten zan.

Aurreragoko urtetako esperiantziak berotu egin zitun mutillak barriak egitera. Origaitik etorri ziran Munaegi'ra, beste edonora joango ziran lez.

Jairik geienak biotzari zerbaitetan ikutu eragiten ekien. Ikustalderik geienak zerbait esnatu eragin, jakin bearreko zerbait atara, zikiñen bat garbitu, begietako makarren bat bigundu ta bota eragin. Alaitasunik zoroenak kezka aizea atara, zoroaldirik irritsuenetan buruaustea sortu.

Bitartean Abel bere tokian geldi egoan.

Beti bezin bakar, beti bezin beartsu eta baztertu.

Ikusten eben erritarrak gazte batzuk beregana joaten zirala, baiña egun berbertan talde berbera eurekana joaten zan lez, ez zitun ainbestean arduratzen, eta batez be, ez eben igartzen ezaupide ta adiskidetasun berezirik egoanik.

Eleiza dotoretu eutsen antzera txukundu eutsezan eta egokitu eurei be euren etxeak.

Eleiza, euren esanetan, ez zan abadearena, eleizarena, erriarena edo bertan bizi ziranena baiño.

Origaitik ez ziran mindu.

Noizbaiten euren gogoko zerbait egiteko be izan eikeala ta..

Ez ziran sasoi baten bero ibilli eleizako aterpetan gaizotegi antzeko zerbait eratu bear ebela, iñoiz gaixo gaixtoren bat errian sartzen ba zan?

Gero ta sakonago ikusten eben psikoteni ikasleak erri

aretako auzia.

Auzi txikia, baiña estua. Estuegia. Biziten ez dakian erri itsu baten auzi mingotsa.

Ba etozan ezagutzen.

Erri txikien barrua estua

Iñun baiño gaiago igarten da erri txikietan gizonaren ezerrestasun eta argaltasuna.

Alkarren arteko etengabeko artu emonak ekarten dakizalako bekaizkeri ta errezeloak.

Gizalde andietan, edo erri itxuratsuetan aintzat artuko ez litzakezan uskeriak, erri txikietan asarre ta gorroto-bide dira.

Garra egoten da alkarren txikikeria agertzeko. Eskutuki, ixiltsu baiña lapiko txiki.

Betiko gelditzen da baten utsa. Parkatu bai, baiña aztu ez, esaten da. Alaz eta ori parkamen azalekoaren estalgarri edo aitzakia da.

Laster jakin zituen mutillak nor zan aberats eta nor beartsu; nor zan biotz zabal eta nor biotz erkin; «sorgiñak» deitzen eutsenak zeñen alaba ziran; emakume lizuna nundik nora ibilia zan; gogo onez etorriarren, zezenaren odola eukan abadea zetan geratu zan; erri guztiagaz asarre egoan agurearen garrazkeria nundik etorran; baten lurrak zelan jaubetutakoak ziran; bestearen piñadiak zenbat sor estalduten eben; auntz baten bedar jateak, zenbat negar eta zenbat autu, eta zenbat odol naste eragin, sortu edo ixuri eban; batek besteari zenbat emoteko eukan; biderik zegaitik ez zan egin bere garaian eta komenien zan lekutik; Munaegi'ra etorten zan osagillea edo medikua, ez zala

sasi-mediku ta erdi albaiteru baizik; azkenengo berrogei urtetan munaegitarren botoak nok eukazan eta zegaitik artzen zitun be jakin eben; nai ta erritarrak bera ezagutu ez eta berak erria nun egoan be jakin ez.

Eta Munaegi'ra elduten ziran kartak zeiniek irakurten zitun lenengo, danak ekien.

Eta abade barriari etxer-ik ez zabaltzeko juramentua zeiniek asmatu eban eta juramentu ori egin baiño len zelako autu eta zarata eta nasteak ibili ziran.

Eta Millan zaarra zegaitik obiratu eben edo lurra emon, kanposantutik kanpoan, bera kurutzeari musuka il ba zan be.

Munaegi'n ez ekien ez zer ziran, ez ze asmotan ebiltzen. Norberekorrek ziran.

Norbere begitik eleiza, norbere begitik politika, norbere begitik gizarte auzia, norbere begiz baso ta soloetako langintza.

Erraz beratzekoak, konformista ziran bizi bidez; alper ziralako edo nortasunik ez eukelako euren izatea apurtzeko.

Eta ez ziran gauza barrietan sartzen, ez ziran premiñazko bear izatetan ausartzen, batak besteagan sinisten ez ebelako.

Bide barriak zabaltzea laster lortuko ebela agindu eutsen bein mutillak. Ba eukela eurak nun atea jo ori egiteko, euren ezaupideak luzeak zirala-ta.

Aurrerabiderik ez eben lortu. Bildur ziran bideak zabalduaz auzoetakoak sartu nai izango ebela bertan.

Bear ba da igarri egiten eben gizartetik urrunegi bizi zirala, gizartetik kanpoan bizi zirala, ta lotsa ziran.

Origaitik naiago eben bakartadean, basamortuan, erdi eskutuan iraun eta txarto bizi, estu bizi.

Munaegi berez jausitako erria baiño, gizabidearen

legez makurtutako erria baiño, txikikeriaren eta itsukeriaren borondatezko kartzela bat geiago zan.

Ta ba dira kartzelatan be ondo biziten diranak, edo egoki billatzen diranak; ba dira azkatasunari kateak lotuten dautsezanak, maitasunari pozoia sartzen dautsenen antzera, edo argiari orma lodiak bitartean jarri.

Aberastasunen bidetan

Amar egun falta zituen mutillak Munaegi'tik urteteko. Ta oraindik gauza asko aurreratzeko.

Lurraren ikasleak, geologi ikasleak be ba ziran tartean. Egunero joaten ziran oneik goizetan mendien sakonetan zerbaiten billa, euren ikastaroen betegarri.

Zorongo biurtu ziran egun baten. Eureka. Munaegi aberatsa zan. Ez baso ta arboladiekaitik. Gaur mundua ezin billaturik dabillen arririk aberatsena igarri eben, bere arraztoa ikusi: Uranioa.

Ziur egozan zerbait agertu orduko agintariak talde ugariak bialduko zituezala ikusi ta azterketak egitera, lurrak sakonduten. Ori egizkoa ba zan, Munaegi'ko bakartadeak amaituko ziran. Munaegi ezagun izango zan erri ta erbeste, mundutarrak dabillen guda-otsean eta teknikaren aurrerakuntzean premiñazko dalako meazki ori.

Arkitze orrek, topate orrek, egiazkoa ba zan, barruko ardura eta auzi sakona sortu eragingo eutsen. Mundu barri egiten ebiltzan. Aberastasunaren aizetan baiflo, gogoaren aurrerapidean geiago. Orrelakorik bazan, Munaegi ondatu eikean, aurrez buru gogorreko eta ikusmen laburreko gizon areri begiak argitu eta gizarteari begira lotzea lortuten ez ba eben.

Zaratatsua izan zan gau aretan lo aurreko elkarte eta txolartea.

Erritarrak ez eben sinistuten.

-Amesetz bete nai gaituzue? Bizarrak baltz daukaguz danok be, emakumiak barruan dirala, ots egin eban baldarti eta sinisgogor Pierre'k.

-Gazte zoroak! Gure aurretikoak guk baiño geiago ekien gai orretaz, nai ta zuek bestera pentsatu. Sekula ez eben ezer agertu, ezta aztarrenik emon be. Ibili ziran emen be gizon jakintsuak mendiak neurtuten, zuek baiño aurretiago, esan eban irribarrezka Simone'k.

-Joan aurretik txartelen bat kobratu nai dozue? Nire lepoz ez, seguru egon, barriro be Pierre'k.

-Guk adierazi egin dautzugu etorri leikezan gantzeruak fede onean artu ez zagiezan.

-Guk ez daukagu zuen lurren jabe egiteko asmorik. Etixeratzean bakoitza bere zeregiñetara joango gara. Ala ta be zuek zur egon. Guk agerpide bat bialduko dautsagu agintariei, gure irakaslien aolku edo kontsejua artu ondoren. Erriagazko eginbearrak beartu egiten gaitue orretara.

Ziur egon agerpide onek ots andia atarako dabela.

-Laster etorriko zarie periodikuetan, egunkari eta aldizkarietan. Gaur larrez eta otaz diran tokiak, laster bide zabal biurtuko dira; zuen lurrak aberastuko zaitue, aberastu...

-Auntzen errapatetik tengadaka jarraitu bearko dogu, egunero lez gero be, barriro zatarki Pierre'k.

Danak barre egin eben, baiña mutillak laster ziran barriro euren esanak eta kezak eta jakin-miñak barriztu eta zolituten.

Destaintsu zan Pierre maltzurra. Ozkil.

Irribarrezka, burlazko irribarre gangarretan

«sorgiñetakuak». Zerbaiten arrak ikutu zitunak be ba ziran tartean.

-Eta egia ba litz?

Itaun ori egiten ebana Madalena zan. Erdi gorri, erdi lotsakor, bestien urteeren bildurrez.

-Antzututako emakume galduren batek lenago sortu ta ekarriko leuke beste semeren bat!

-Pierre zan ori erantzun ebana gaiztoz eta zital, eztulez eta garramaz ezin biribildutako barre zatarrez.

-Burua makur, erdi negarti, brixak urtenda... eskutatuta zan Madalen nai ta lenengotan sututa madarikatzen asiko ete zan itxura erakutsi.

Mutillak ixildu ziran. «Sorgiñak» be erdi izututa, mintsu, aldenduten asi ziran.

Pierre'k barriro, arro ta gangartsu:

-Ikusten? Ikusten? Egi erdi bat esan orduko... Zer litzake egi osoa biribil-biribil agertuko ba gendu?

Mutillak ez eutsen luzatzeko biderik emon.

Orrelaxe amaitu zan jaia; batzuk minduta ta lotsakor; arro ta gangar besteak; betikoa bere gogortada ta gangarkerietan.

Ikasleak zurbil, arrituta, sinistu eziñez.

Goizaldeko deia

Goizaldea.

Obeto esanda, oraindik eguna urratzen asteko.

Erdi lo, erdi amesetan, ez esna ta ez lo egoala, ateko deia lakoa iruditu yakon, ixiltsu, Abel'eri.

Ziur jarri zan. Adi.

Bigarrenez be dei ixilla.

Atea zabaldu aurretik jantzi ta gertu zan, barrutik deika zan bitartean:

-Nor da?

-NL

-Zein?

-Ni, Madalen, lenago be egon nitzan andrea.

-Gaixo?

-Ez, itz egin nai neuke.

Ta atea zabaldu ta barruko asarrea agertuz, Abel'ek.

-Emakume, amasei ordu argiko daukaz egunak itz egin eta kontuak esateko.

-Parkatu, baiña ezin neike geiago egon. Gau guztian irakiten nabil. Ezin nire bururik zaindu ta gorde. Ezin neurera etorri. Norbait erretoko garretan nabil, zerbaitei su emoteko zorotasunez... Ezin nei, ezin. Ez naz neure jaube.

-Baretu zaite lenengoz eta soseguz berba egin.

-Nire biziagaz gogaituta nago. Urkatuteko gogoa datorkit sarri. Ezin nei luzaro bizi era onetan.

-Emakumea katean eta gizonak airean, zoritxarrez, lenakoak esaten eben lez.

Gu pekatuaren lokatzak narraztuten gaitu. Narraz ibili eragin. Eta pekatuaren buruak, benetako pekatariak zabal dabiz.

-Alaxe da. Edo izan leike. Ez dautzut ukatuko. Ori orrela, zer da ordu onetan nigana ekarri zaituna?

-Ba daki zegaitik lurperatu eben Mitxel kanposantutik kanpora?

-Zuk eta nik egiña ez da ori ta ez daukagu zetan origaitik lorik galdu.

Gauza zarrak atsa, ta obe ez eragin.

-Eragin barik atsetan dago.

-Iltegiko lur santuak ez dau iñor inpernutik

azkatuten, eta basoetako lur bedeinkatu bakoak be ez dautsa iñori zeruko aterik sarratuten.

Besterik?

-Nik jakin eragin nai dautsat an zegaitik lurperatu eben.

-Eguzki epeletan, eguerdi inguruan, eleiza onen ostean itxarongo dautzut. Obeto argituko doguz eskutukoak.

-Ez. Nik oraintxe kontatu bear dot. Ez neuke bestela bakerik. Etxean sartu nai ez ba nau, edo bildur ba da, ementxe bertan.

-Ez daukazu gaur bildurrik iñok ikusteko?

-Ikusita be ardurarik ez. Billatuko nitukez mutil gazteak ni aldeztuteko. Orain ez nago bakarrik.

Mitxel Paris'en ibili zan lanean. Ba ekian? «Eguna» egunkarian, laguntzaille edo pioi antzera, bobina andiak erabilten. Ni be an egon nitzan serbitsari. Ta ba daki... Ez daukat zetán ukatu. Zirikalaria zan nire ugazaba. Beroa. Erdi basatia, oso ez esateagaitik. Iru bidar ibili, obeto esanda, ibiltera indartu ta bein bete. Gero ondorenak...

Erritarrak giñalako eta iñoiz alkarregaz ibilten giñalako, gazte giñan gu be, Mitxel'eri bota nai izan eutsen etorrenaren aitatasuna.

Lenengotan, amatasunik ez artzeko edo ez erakusteko be, izan neban indar eta eskintza ugari. Baiña nik ez neban orrelakorik nai. Estutu egiten nitzan. Ez neban lorik egiten. Ez daukat zetán ukatu. Mitxel eta nik ez gendun sekula ikuturik eta lizunkeririk euki. Orretarako atzeratuak giñan, egia da ta ba geunkan erri txikitxoetan sartzen dan bildur eta lotsa.

Etxean neukan, etxean, sartu nitzanetik baketan lagaten ez ninduna.

Irabazi geitxuago nai ebalta ta euki eben asarraldi ta

oporraldi txiki bat egunkari orretan. Inpernukotzat etsi ebezan aurreratu ziranak. Eta nire erditzea laster zanez, denporetan aurrera netorrelako, nai ta ni be nire loditasuna eskutaten alegindu edo ekienak baiño geiagok ez igarteko eran ibili... dana bat egiñaz... lantegiko auzia nastatu ta nire pekatua eskutateko kanpora bialdu eben Mitxel. Areri errua emon ta ni be etxetik kanporatu ninduen. Orixe da egia.

Ta geroko zeregiñak al zan eran egin ondoren, biok barrero ementxe ikusi giñan.

Gizon andia zan nire ugazaba.

-Andia zetan?

-Beti andikien artean ebillana...

-Ortan leike.

-Origaitik, nire ustetan ez bestegaitik, ementxe baztertu ginduezan biok, itz egiten ba gendun zigorrik astunenak artuko genduzala iragarri ondoren, iñora urtetea be galerazo ondoren... Ementxe, basarte onetan, bakartade onetan, soiñak eta miiñak lotuta.

-Emakume, emen iñok ez zaitu zainduko. Emendik joan al zeinkean, nai zenduna egiteko aukera artu zeinkean.

-Ain erraz dalakoan? Azeri ona dabil emen. Ez daki?

-Ni, dakizun lez, aterpe onetatik ezin urtenda egon naz oraiñarte, betozkoa ta ate itxiak bakarrik eskiñi daustazuezalako.

-Ez dauka ba urrun azeri ori.

Ba neukazan ortik zear lagun batzuk eta... kartarik be ezin artu. Karteruak atzera bialtzen ei zitun nigana etorten asi ziran karta banakak.

-Ainbeste?

-«Eguna» egunkaritik. Ez ekien?

-Nok esanda jakingo neban?

-Eta illean bein, gu il arte, gure gorabera emon bear

izaten dau. Origaitik bildurrez euki nai izan gaitu, berak be sari ori galdu ez dagian.

Mitxel, azkenetan egoala, gora-goraka asi zan, barrua eten bearrean, ez zala bera ez lapur eta ez gizon lizun erakutsi nairik; bera gizonki portatu zala; beste asmo ta gogoetan azkatasun zale agertuarren be, orretan aurreratu ibili ba zan be, batez be irabazi zuzenen eskabidez... eleiztarra zala ta abadea eroateko berari.

Baiña Pierre gogortu eta zitaldu zan.

Azkenengo txakur eztula zala ori, esan eban. Ta iñori deitu barik, emengo «sorgiñak» deitzen eutsen beste Madalena eta Natali'k lagunduta, kurutzeari fnusuka il zan.

Ala ta be kanposantutik kanpora obiratu eben, lur santurik ez eutsen emon, Pierre'k ezetsita, kondematuta eukalako.

Ixil egoan Abel.

Emakume arek, bere kontuak aritu eziñik, esan eta esan ebiltzan burutapenak artegatuten eben.

-Zegaitik apur bat lagundu ez, zerbait itanduten?

-Nik jakin, entzun eta gorde besterik ezin nei egin.

Eta mututu.

-Saint Germain'go sasoi bateko abade gaztearen antzeko ba litz...

-Nor?

-Ez dakit. Abade gazte bat.

-Kontuan euki ainbat igaroko zirala andik.

-Orain ogei urte inguru ba egoan bizkor bat.

-Ezagutu zendun?

-Nik ez. Prakak eukazala esaten eutsen, sotana orde.

-Zegaitik ez zitun erabili bear?

-Esan nai dot... Ba daki zegaitik dan esaera ori.

Orrenbeste ta geiago be ba daki.

-Besterik?

-Ni esateko gertu nago. Nasaitu naz, eta...

-Zin edo juramentu egingo zenduke egi utsa esan dozula?

-Nire kaltezko ez ba da...

-Egiak ez leuke bear iñorentzako kalterik.

-Ori be...

Gertu nago. Ala ta be, benetan esateko, estutu egingo nitzake bein egiñiko ziña apurtu bearko ba neu.

-Zer dala ta?

-Ez daukat orretan jakin-miñik.

-Ala ta be, bear izan ezkeru, orretan be...

-Ez, ez. Pekatu egin ondoren, garbitu ta kitutu ezkeru, or konpon.

Ez geiago eragin.

Noiz egin zenduen juramentua eleiza onetan geiago ez sartzeko?

-Pierre'k eragin euskun. Estututa. Nai ta ezean.

-Ez dautzut ori eskatu, baiña eskerrak. Noiz?

-Orain amar urte inguru.

-Zer dala ta?

-Ba... jakin nai?

-Egongo zan aitzakiren edo zioen bat, premiñen bat.

-Abade barri bat etorri zan eta...

-Zenbat urte dira Mitxel il zala?

-A etorri baiño urte bat lenago.

-Ortik asi zan?

-Bai.

-Beste barik?

-Ez eutsala iñori parkatuko gauzak argitzen ez ba ziran, esan eban goiz baten danon aurrez-aurre ta asarre.

-Zer agertu?

-Ba... olakoxe gauzak.

Erri au oraintxe lako alkar ikusi eziñean bizi zan

lenago be. Augaitik, besteagaitik, eta batek ba daki zergaitik ez.

Orduan, Natali ta beste Madalenaren etxean biziten zan abadea.

Ta... ez daki? Ez dautsa igarri Natali'ri Pierre'n itxurarik? Ba orduan abade egoana... zerbait izango zan... ezer barik ospe eta famarik ez dalako artzen, baiña... egia esatea nai?

-Orko egia iñoren zer esana izango da ta naiku da.

-Ta juramentua? Egin genduna?

-Ez egitea obe, gauza ziurretan ezik eta premiñezkoetan.

-Indarra bitarteko dala be ez?

-Indarrezko juramentuaren kateak, ez dira kate lodi. Ez estutu. Aleginduko naz gauzak argitzen eta baretzen. Ala ta be nik aiña edo geiago alegindu eta saiatu zaiteze zuek be alkarri parkatu eta garrazkeriak arindu eta adiskidetzen.

Egun aretako illuntzean ez zan iñor batu errekondoan, illunabarretako jaian.

Ba euken mutillak, beste egunetan lez, zerbait gertuta, erritarrekaz atsedean aldi bat igaroteko asmotan.

Lotsatu?

Gaiztotu?

Bildurtu?

Ain zuzen be ifior ez joateko, ze burutapenek jo ete zitun munaegitarrak?

Mutillak, ori ikusita, bestetan baiño goizago, argiak itzali eta ixiltasuna eskatu eben txabola barruetarako.

Gau egiñean, Pierre'ren etxean, dei bigun eta ixiltu

baten ondoren, atea geldiro zabaldu zan, zaratarik ez ataratearren.

Gaztetariko bat sartu zan: Matalas.

Iñok ez eban sumatu noiz urten zan.

«Gizartearen umezurtza»

Edozein errietan egiten dan erara, kartel da guzti iragarri eben Munaegi'n «Gizartearen umezurtza» izeneko antzerki samurra.

Zugatz zarretatik dindilizka, etxietako ormetan, «Bake-Iturri»'ren usoaren mokotik, eta al zan orma antzeko baster guztietan, kartelak dindilizka edo josita ipini zituen.

Ori gitxi zala, itsuak eta gorrak be egon eikezala-ta, an bizi ziran ogetamar lagunetatik norbait jakin barik geratu eikeala-ta, pregoia be jo eben turuta eta tanborrez Munaegi'ko kale bako bidartetan.

Etixerik etxe ate azprietatik paper txikiak sartu zituen, eta karteruari be dei egin eutsen, eginda eukezan kartak etxerik etxe banatuteko, bakoitzean etxean ziran aiña txartel sartuta.

Edozein uri andietan egingo eben erara jokatu nai izan eben.

«Gizartearen umezurtza» zer zan ñok ez ekian. Nortzuk egiteko edo antzeztuteko etorriko ziran be ez. Baiña olakoetan gertaten dan lez, biztu ta arduratu ziran.

Gero, lau jeepak be bidez bide erabili zituen eta Ikastetxe Nagusiko plaza-teatroarako tresnak eurretan ekarri zituezan.

Etxeetatik aulki zarrrik ez eroateko eskatu eben,

danentzat aiña jarrileku egongo zirala-ta. Larrondo'ko tabernan egozan aulki ta jezarlekuak eskatu ebezan eta eroan, zerbait ordainduta.

Ikusgarri ederra izango zana igarten eben. Ez zan asko bear be an atsegin aizea zabaltzeko. Alako kartelik ez eben iñoiz ikusi be Munaegi'n. Beste nunbaiteko zati ta irudiak artuta, ikusgarrizko eraketak egin zituen mutillak, emakume gona-labur, dantzari, abade ta jaio barri baten irudiak konpondu eragiñez.

Egun osoa emon eben mutillak gertaerak egiten. Nunbaitetik ekarri zituen argiontzi edo foko andi bi be, munaegitarrak zinea atarateko makiñak zirala iruditu ebezanak.

Arrituta egozan danak mutillak euken indar eta egokitasunaz.

Orain ez zituen ikusten alderdi txarrekotzat.

Etxe onegietako semeak zirala esaten eben, gurasoen diruak neurri barik erabili eikeenak, ta bear ba da, uranio usañean joan eta ango tratua aurrez konpontzera bialduak orrelako jai eta atsegifien bidez.

Zur egozan orretan.

Amua espanean, arrantzale errietan esaten dan lez.

Iñor be ez zan geratu etxean.

Amarrak aurretik munaegitar guztiak an egozan.

Lenengotan aulkietan jarri nai-ezka, erdi lotsaz, biña gero, bat jezarri orduko, danak erreskadan bete zituen aulkiak eta patxadatsu geratu.

Gozoak emoten be urten eben mutillak, erri andietako antzokietan urteten diran antzera.

Argiz bete eben antzeztokia.

Jaia asi aurretik, mutil batek urten eban guztiei zorionak emoten, asarre txikiak gainduten jakin ebelako eta erri batu lez agertzen ekielako.

Barre txikiak egin zituen batzuk eta kiñuak be igarri ziran.

Naigabe bat dogu. Barruko min bat. Zuen artean erriko abadea ez egotea. Benetako batasuna ortxe legoke.

Ori ala ta be, zuen zentzunean lagaten dogu. Guk ez dogu iñoren libertaderik estutu nai. Ez dogu asi eta sartu nai iñor biurritzen.

Asi gaitezen.

Lenengo zatia erri baztar baten agertzen zan. Lapurrak, lizunak, moskorrak... eta tartean abadea itz bigun eta gozoezin edo borondate oneko laguntasunarekin maitasunez danei laguntzen. Espetxean, kartzelan geratu zan amaieran, laguntzar batzuk lapurreta bat egin ondoren, berak nor ziran jakiñarren, esatera ukatuten zalako, autortzako ixiltasuna gordeteko.

Agintari zoro batek berari ezarri eutsan errua, argitu arte.

Negarrez egozan emakumeak. Arro benetan Pierre.

Orrelako, orrelako bear litzakez abadeak eta ez prakazardunak. Orrelakoak edozeiñek artuko leukez, esaten eben ingurukoan artean.

Ixilik egon ziran mutillak. Geienak erritarrei begira eta euren azaleko agerpenak oartu naian.

Bigarren zatian langille arteko lanak agertzen ziran. Sotana barik ebillan abadea lanean. Argalei lagunduten, gaixoen orde lan astunetan, zuzentasun billa toki guztietan, premiña egoanetan ugazaba ta nagusiei gizontasuna eta maitasuna eskatuten, gogo ta biozdun gizonak makiñak ez ziralako.

Gordin agertu zan gaixotegi bateko burruka zitala, lantegian, ez-bear edo zoritxar ikaragarri batek lau langille ondatu zitunean. Langille guztiak gOra-goraka ebiltzan, abadea danen gain sartuta ta gaixoari eriotzaren bakea

samurki eskintzen.

Areik ziran txaloak!

Irugarren zatia samurrena zan.

Ume errukarri artean lanean ziarduen abadeak Saint Germain'en. Beartsuen umeak geienak. Kutun eben umeak eta eurekin jolastuten ekian, arriskuen zaindari.

Ume maitale zalako eta zainduko eban ziurtasunez, goiz baten, eguna zabaltzean, andrazko bi, otzaratxu baten jaiotze barri bat erioela, eleiz atadira joan ziran. Umea ate egalean eskutatu ondoren, igeska joan ziran.

. Laster zan an abade gaztea, atea zabaltzera, ezer ez ekiala. Umearen negar muxingak entzun... Zer egin? Samurrez, errukitsu, maitasunez umeari begiratu... begiratu... ta laztantxo bat emon ondoren...

Garraxi edo irrintzi luze batek urten eban erritarren artetik, garraxi luze mintsu batek. Matalas! Matalas..! Orrelaxe zan egia. Egia da! Egi egia!

-Ixi!, deitu eutsen danak ao betean, indar batek eraginda lez.

-Betiko zoroa!

-Ezin neike, ezin neike ixildu! Neu nago ortxe! Ni!

Matalas! Matalas! Matalas..!

Ez eben lortu ixildu eragiterik. Zoratuta ebillan andratxoa. Beretik urtenda, negarrari eta bere buruaren gogorapenei eutsi ezinda.

Amaitu zan jaia.

Abadea egiten ebanak urten eban, eta ixildu eragin ondoren, ekin eutsen:

Munaegi'ko anai arreba maiteak: parkatu.

Nik ez nekian nire bizitzako iñor emen egon eikeanik. Biotza urratu yat. Saint Germain'go abadea ni izan nitzan. Ni. Ez daukat zetan ukatu. Ez dautzuet ezer geitu ta ez eskutatu. Nitzan berbera agertu naiz. An efa

beste edonun egin nebana egiteko garrez etorri nitzan zuen artera.

Bakartadean bizi naiz. Ba dakizue. Ez dakit zeñien erruz. Baiña maite zaituet eta ba dakit maite izango nazuena.

Ta Saint Germain'go abadea ikusi nazuen ezkerro, Saint Germain'go mutilla agertuko dautzuet, ikusi dozuen umetxo berbera, ama baten orde, nik bataiatu ondoren nire amatxori eskiñi neutsana, oraintsu ni emen nagon bitartean il zan nire amatxo kutunari, berak edozein seme, bere erraietako seme bezin maitetsu asi daben nire anaitzako kutuna: Matalas, zuen artean dabillen ikasle gaztetariko bat.

Arritu ziran danak.

Madalena'k, urreratu ta musuka jan eban Matalas, abadeak erriari erakutsi eutsanean.

-Nire ama zarean agergarririk ba daukazu?

-Maitatuko ninduzuke?

-Zegaitik ez?

-Ez zara ez, nire seme.

-Ez zara, benetan diñot, nire seme.

-Nik ba dakit, nik bakarrik, zeñien seme zarian. Ez daukat lotsarik danen aurrean esateko.

Zure ama ta ni auzoan bizi giñan, biok neskame. Benetan maite giñan. Bera ta ni, biok, argalkeri bardiñean jausi giñan. Ez naikeriz, gure ugazaben errespetu edo bildurrez ukatzen jakin ez gendulako baiño.

Nirea jaiotzean il zan. Bere aitak, oraindik bizi ba da be... ez ezagutzeko.

Zu bizi al izan ziñan, nirea ikusi ondoren, etxe baten artu ginduezalako.

Zure ama... iñoiz Bretaña'ko kartujaen etxetik igaroten ba zara, antxe dago obiratuta, eortzita, bere bizitza

betiko eskutatu nai izan ebalako. Sorora Madalen artu eban berak izentzat.

-Benetan? Eta aita?

-Aita... juramentu egin neban betiko aaztuteko. Indarrean, baiña zin egin neban.

Ba dakit nik, eta ori edonun esango dot, ez zala Saint Germain'go abadea, gero erru ori berari bota ta ezarri nai izan ba eutsen be, beste norbaiten lizunkeriak eskutateko.

Urrengo goizean, eleizondoko aterpean, Pierre zan lenengoa ate joten.

Gerotxuago an zan Simon be. Ta Dimas... Ta Natali eta Madalen «Sorgintsuetatuak»,

Bakar bakarrik Madalen geratu zan etxean.

Ez bakarrik. Matalas eukan lagun.

Zorra ta agurra

Mutillak joateko ziran.

Biotz biotzez agurka ebiltzan, erritar eta mutil alkarri besarkadaka.

Erritarrak ez eben nai esker txarreko agertu ta inguruetakoa sagar batzuk batu ta eskiñi eutsezan. Opari merkea, baiña guk ez daukagu besterik, esaten eutsen.

Oraindik bete barik euken zor bat bete nai izan ebeh urrundu aurretik: Abel'en amaren aldezko elizkizuna, aren illeta.

Danak batu ziran eleizan. An zan lenengotatik Pierre be. Ta erriko guztiak, bat bakarra geratu barik, an agertu

ziran.

Mutillak, minutu bi aurretik eldu ziran.

Euren tresna ta gauza guztiak batuta, elizatxoaren aurrean laga zituen jeepak.

Munaegi'ko azken zeregiña orixe izan zan euren borondatez.

Abel'ek ez eban barbarik egin. Meza guztian begiak malkoz lodi, andituta igarri yakozan.

Meza ostean Matalas ta bera besarkatu egin ziran.

-Emen jarraituko dozu?

-Langilleak ba letoz, pozik.

-Eta bestela?

-Zorakeri deritxat, gaurko munduaren premiñetan, gizartean ezelako indarrik ez dauken iru-lau lagunen arduretara egotea.

Eta zuk?

-Nik Euskalerritik kanpora 'ezin nei arnasarik artu.

-Ortaz, ara zuaz?

-Laster.

-Zer egiteko an?

-Zeiñek esan eutzun Matalas izena ipinteko?

-Burutasun bat izan zan.

Gizarteko okerkeri artean, nire errialdeko iraultzaille aregaz gogoratu nitzan.

-Euskal gatza sartu nai zendun Paris mundutarrean, eta aitatasun barik jaio nitzan oneri.

Nire amak aziko zinduzala lenengotik pentsatu neban.

-Azi eta ezi. Niretzat benetako ama.

Eta Euskalerrria nire aberria.

Ba dakizu an burrukan asi dirala. Ni be tarteko naz.

-Gogorregi asi zarie.

-Ta oraindik gogortzeko.

-An sartzeko gogotan zagoz?

-Nire atsegiña errien alde jokatzea da. Atsegiña ta kontzientziko deia.

Ta errien artean azpiratuena gurea da.

-Odola dabil an.

-Odolik barik gaitz lortuten dira errietako garaitzak.

-Edozein egunetan ilgo zaitue.

-Matalas urkatua izan zan, ba dakizu.

-Ta?

-Abel: Paris lizun onetan iraultzaille biurtu naz. Eta nik be, bakezale pozik izango nitzaken onek, ikasi dot metralleta erabilten.

-Asko balio dabe izkilluak, erabilteko adorerik barik. Izkillurik onena biotza da.

-Besteak be biotzez jokutzen daben artean.

Egunen baten deituko dautzut.

-Zetan?

-Iraultza guztiak gogo bat, espiritu bat bear dabe. Ta guk espiritu barri eta oneko gizonak bear doguz.

Irri mingotsa urten eutsan Abel'eri.

Barriro besarkatu ziran.

Eta jeepak urrunduten ikusi zitun, irudi illun lez, malkoz lausotutako begiak zabaldu eziñean.

Bizi-bide barrian

Alaiago bizi ziran Munaegi'n. Argiago.

Atsegin eben Abel ikustea.

Beti eukan onek asmo barrien bat. Txikikeriak, baiña Munaegi barriztuten ekienak. Batez be bere giroa.

Egokiago biziten asi ziran, nasaiago, erosuago. Berez.

Mutillen iragarkizuna beteaz, laster asi ziran langille

barriak errira agertuten.

Lenegotan Larrondokuak etorri ziran, uranio zelan igarten ete zan jakin nairik. Inguruetakoko gaitza ta naia.

Geroago langilleak taldeka.

Etxe andi bat sartu zan bitarteko. Baiña langilleak taldeka bialtzen asi.

Besteren mende geratu barik, lenegotatik neurriak artzea komeni zala, esaten eutsen Abel'ek. Orrelaxe bateko laguntzaz, besteko kontseju eta agindu onekaz, eta bear ziran baldintzak ipini eta erabagiaz, erbestetik etozanak lege eta bizi-bideko jakin batera etozan, munaegitarrei jaubetasunik eta nortasunik kendu barik.

Alegindu zan Abel Munaegi'ren eskubideak eskatu, agertu, zaindu eta ontzat artu eragiten. Bere menpekoak ez ziran altsuak, ez ziran dirudunak, baiña gizonak ziran eta nortasun eta eskubide batsuen jaube. Eta ori zan premiñazkoena, zaindu eragin bear zana.

Orretan, poz eta min, zintzo jokatu eban.

Pozik egoan.

Urtetako itsukeriak baztertutea lortu eban.

Batetik, bizi guztian berak ames egin eban langillien arteko zeregiña ta ardura eukiko eban bertan.

Gertu bako erri baten egoan eta besteak aurrera artu aurretik eratu nai izan zitun gauzak.

Origaitik agintarrietatik lortu eban, iñor bialdu aurretik, tokiak gertuko zirala ta bear ziranak bialduko zituela, barriro etozan gizonak gizarteko aurrerapidea bertan euki egien.

Lanera etorran Elkarteak ortara makurtu zan.

Lenengo gizonekin batean emazte ta umetxoak be eldu ziran.

Azi barria etorran errira. Azi ta landara barriak. Eta garaiz egin bear ziran jorratze ta txertaketak gero igali edo

frutuakjator eta zintzo etorri eitezan.

Bero ta amesti ebillan orretan. Bai zintzo ta umil jarraitu be berari erritar guztiak.

Uste bako ikustaldia

Goiz baten, ikasleak an egon eta sei illabete ingurura, jeep bat geratu zan Munaegiko eleiz .aurrean.

Aritzetak urten eban bertatik.

Lenengotik, ikusi orduko igarri eban Abel'ek barrien bat eroango ebala.

Agurtu ziran.

-Zetan zatoz?

-Barri txar bat dakartzut.

-Matalas?

-Ez. Xabier, zure laguna, il da.

-Nun? Paris'en? Noiz?

-Ez zenkien Euskalerriko burrukan sartuta ebillanik?

-Ez. Noiztik?

-Matalas'ek deituta joan zan.

-Osagille bat eta abade bat nai zitun Matalas'ek eurak an mugan asita dauken burrukarako, beste kargu ta zeregiñik barik, euren arduruan.

-Ta burrukan il da?

-Bai. Egunkariak ez dabe ezer ekarriko. An dabilzan mutil askok ez dabelako erakutsi nai euren nortasunik. Baiña Maule'ko baserri bateko iltegian obiratu dabe.

-Ta?

-Matalas'ek zera diño: Pozik ikusiko zindukezala eurei gogo laguntza eskintzen.

-Matalas'ek ba daki Euskalerriko abaderik geienak,

ixillean, gogoz bere alde dagozala. Nik aiña beste edozeiñek egin leikela.

-Zuk aiña gitxik ezagutzen dituela toki areik.

-Zer diño zure psiko-jakintzak?

-Betikoa nik. Kontzientzi batik ez dala gogortu ta okertu bear.

-Ta niri dagokidanean?

-Len be esan neutzun zure deia abade izatea zala.

-Abade jarraituko dot.

-An ala emen?

-An burrukan, ia gerran sartu bearko neuke nire gogoa erakusteko, nire pentsabidea aurrera atarateko. Ta niri ez dagokit gerran sartzerik.

Emen nire gogoa landuten asia naz.

Angoa burruka da, indarkeria. Abade bateri ez dagokiona.

Emengoa ereintza, zabalkundea. Abade baten zeregin berezia.

-Abel, zuk diñozun guztiori agertu dausat Matalas'eri.

-Berak zer?

-Gaitz da burrukako itsukerian bake-zalien naia aintzat artu edo besterik ezean ondo ikustea.

Zuek be erdi burruka erabili. izan dozue langille artean.

-Maitasunezkoa. Zuzentza baten alde bakezko burruka. Errazoizkua.

-An be, azken baten, zuzentza da elburu.

-Ez dot ukatzen.

Baiña nik ezin nei armarik artu.

-Beraz zer esango dausat, ezetz? Minduko da. Anaitzat zaukazu. Berak eta zuk pentsabide bardiñez asko lortuko zendukela uste dau.

-Zer egingo zenduke zuk nire tokian: Anai deiari jarraitu ala kontzientziari?

-Niretzat gizonaren izatea bere kontzientzia da.

-Niretzat be bai.

Beraz...

Esan Abel'eri...

Bakoitzak bere deia eukiten dabela eta dei orreri bakoitzak bere kontzientziaz erantzun bear dautsala.

Luzaro jardun eben beste kontuekin.

Aritzeta'k ondo artu eban eta ondo ikusi Abel'en erantzuna, bere jokabideko ondoren jatorra zalako.

Giroen menpe

Eta Abel'el Munaegi'n jarraitu eban.

Munaegi anditu, zabaldu zan bizilagunez.

Langilleak eta euren sendiak aita bat billatu eben arengan.

Lengoak, edozetarako, Abel aukeratzan eben bitartekotzat.

Bein Obispaduko karta bat artu eban.

Abadekientzako irakasle autu ebela, an txikiei Lutelesti (Geografi) eta Edestia erakusteko.

Abel'ek bera artean: Zoratuta dagoz orreik? Ba dakie gaur zer dan Munaegi? Ba dakie nun ete dagon be?

Mesede egitearren egindako izendapena izango zala pentsatu eban, edo bestela burugalduea irudiala.

Erantzun zitala bialdu eban.

Bere kontzientziak agintzen eutsana.

Obispaduan arrituta geratu ziran abade batek Munaegi'n jarraitu naia erakusteagaz.

Ez eben barriztu euren eskabide ta izentapenik.

Urte batzutara, ez bearrez, oraindik mardul zala,
mendian il da erriratu eben Abel'en gorputza.

Gaitz beste iñok arek lako azken agurrik artzea.

Laster eleizatxoaren aurrean bere oroitarri bat ipini
eben:

Munaegitarrak eta langilleak
ez zaitugu aztuko.

Denpora berean, Euskalerrian, gero ta gordiñago
burrukan.

Gero ta odol geiago ta izkillu geiago.

Ta Matalas, biotz onegiak erabillala-ta, baztertuta
euken erabagien orduan.

Eta bere senitartekoak be banatuta ebiltzan, alkar
ikusi eziñean.

LANAREN ATALAK

Orrialdea

- 5 Mendiko ibillaldietan.
- 7 Semearen «biotza».
- 10 EGUNKARIA. Munaegi'n.
- 37 EGUNKARITIK BIZITZAKO
EGUNETARA.
- 38 Goizeko oparia.
- 38 Eskintza samurra.
- 40 Ama billa.
- 42 Bat bateko erabagia.
- 44 Biotz ustelak.
- 46 Betiko tokian.
- 47 Lengoak gogoratzen.
- 50 Uste bagako bidetan.
- 52 Alkarri begira.
- 53 Odoletan.
- 55 Gaixotegian.
- 57 Argitasun billa.
- 59 Kaleko lagunak.
- 61 Ibili ta ibili.
- 64 Nundik ekin?.
- 66 Sakristau baten goizeko salmuak.
- 68 Jardun berean.
- 70 Garrazkeriak.
- 72 Borondate ona kalean.
- 75 Zubero'ra deika.
- 76 Txikikeriak.
- 80 Barruko agerpenak.
- 84 Eguerdi inguruan.
- 87 Kontuak artzen.
- 92 Ardura geiago.
- 96 Ezin etsi.

LANAREN ATALAK

Orrialdea

- 99 Agindu zorrotza.
102 Ulerik ez miñean.
105 Gogoia jasoten.
108 Gertaeretan.
111 Munaegi'ko ezaupidean.
113 Munaegi'ko bidean.
116 Denpora galduak?
116 Parisen barriro.
117 Sena'ren egaletan.
119 Ikasle artean.
122 Gauzak argitzen.
125 Igesaldi atsegiña.
129 Laneko aparria.
130 Barriro Sena'ren egaletan.
133 Bide barrietan?
137 Bakoitza bere bidean.
138 Lurralde barrien billa.
140 Errekondoko lenengo eguna.
142 Leku barriak ezagutzen.
145 Erleak lanean.
147 Madalena'ren txabolatxo.
149 Bakartadea ezin etenda.
150 Pentsabide igarlariak.
152 Erri txikien barru estua.
154 Aberastasunen bidetan.
156 Goizaldeko deia.
163 «Gizartearen umezurtza».
168 Zorra ta agurra.
170 Bizi-bide barrian.
172 Uste bako ikustaldia.
174 Giroen menpe.

